

BI HILABETEAN, 41 EDUKIONTZI ERRE DITUZTE; ETA 36.825 EURO GASTATU DITU MANKOMUNITATEAK

Debagoieneko Udalen Elkarteak kezka azaldu du "modan jarritako ekintza bandalikoan" ondorioengatik; salaketa jarri du gertaerak ikertu eta argitzeko / 5

Edukiontziak kiskalita Aretxabaletako Basabe poligonoan; domeka goizaldean eman zieten su ezezagunek. OIHANE AGIRRE

'Egunkaria. Gizarte zibilaren arrakasta' liburua aurkeztuko dute Arrasaten martitzenean / 3

Aita Madinaren musika ondarea batzen ari dira; hil zela 50 urte beteko dira ekainean / 34



BERGARAKO UDAL ARTXIBOIA

Bergarako Udal Artxiboko argazkiak, Interneten ikusgai

36.000 argazki eta 23.000 testu kontsulta daitezke 'artxiboa.bergara.eus' webgune berrituan; ondarea herritarrei gerturatzea dute helburu / 24

SINADURAK

	MIREN JOSU ARRAZOLA / 8		ITSASO ERRARTE / 22
	OIANA SANCHEZ / 11		AMAIA EROSTARBE LETAMENDI / 36
	MARIA IZAGA / 17		ANDER ETXEBERRIA / 48

 Luis Ugalde jesuita bergararrari elkarriketa

Bestelako kirol batzuk ere badaude aukeran

AZKEN EGUNAK
MERKEALDIA
+ 2. BETAURREKOAK OPARI

www.multiópticas.com



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA


MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	77	121	8.499	%38,87	896
Oñati	52	65	4.478	%39,18	1.020
Bergara	44	105	5.377	%36,87	990
Aretxabaleta	19	43	2.591	%36,45	875
Antzuola	18	8	821	%39,45	1.193
Eskoriatza	18	33	1.532	%37,09	1.242
Aramaio	5	11	540	%37,09	1.081
Elgeta	5	4	300	%26,29	795
Gatzaga	2	1	72	%34,12	1.282
DEBAGOIENA	240	391	24.210	%37,82	985

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Pandemiak beheranzko joerarekin jarraitzen du Debagoienez ere

Ordutegi eta edukiera mugarik gabeko lehenengo asteburuaren atarian, pandemiaren adierazleek hobera egiten jarraitzen dute Debagoienez eta Hego Euskal Herrian. Nolanahi ere, "zuhurtziaz" jarduteko mezua helarazi nahi izan dute osasun agintariek

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Aurreko asteko egunenetik eguazten honetara bitartean, 240 koronabirus kasu hauteman ditu Osakidetza Debagoienez; aurrekoan baino 151 gutxiago. Hala, intzidentzia-tasa metatua 1.000tik behera kokatu da: 985ean, zehazki -1.033 puntu egin ditu behera aste bakarrean-. Hego Euskal Herriko lurraldeekin alderatuz gero, Debagoiena da intzidentzia-tasa txikiena duena.

Herriei dagokienaz, beheranzko joera nagusitu da gehienetan, eta kasu batzuetan oso nabarmena izan da: Bergaran eta Aretxabaletan, adibidez (Ikus goiko taula). Nolanahi ere, salbuespenak izan dira: Antzuolan, Elgetan eta Leintz Gatzagan gora egin dute positiboek oraingoan.

OSPITALEETAKO EGOERA DEBAGOIENEKO OSPITALEAN EGOERA ARINDU EGINDA

Ospitaleko Zuzendaritzak jakinarazi duenez, atzo sei ziren ingresatutako positiboak; aurreko egunean baino lau gutxiago. "Beheranzko joera igarri dugu ospitaleratzeetan; batez ere, aste honetan", azaldu du.

Bestetik, ospitaleekin lotuta, Osakidetza langileek mobilizazioak egin dituzte aste honetan; bat, Arrasateko Anbulatorioaren atarian. "Pandemiak agerian utzi dituen Osasun Sailaren murrizketak, prekarietatea, inbertsio falta eta pribatizazio eta osasun publikoaren desegite

politikoa" salatu dituzte. Hilaren 25erako eta 28rako, greba deitu dute Osakidetza langileek, Satse, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen babespean.

ADINEKOEN EGOITZAK

ZAZPI EGUNEAN ZAZPI POSITIBO HAUTEMAN DITUZTE

Joera orokorraren kontrara, Debagoienezko egoitzetan gora egin dute COVID-19 positiboek. Sei kasu atzeman dira Bergarako Mizpirualde egoitzan eta bat Eskoriatzako Jose Aranan. Hala, guztira, San Juan de Dios egoitzan dagoenarekin, zortzi dira eskualdeko kasu aktiboak. Gipuzkoa osoan 200 daude.

6. OLATUAREN BILAKAERA

ADIERAZLEEK BEHERA EGINDA DUTE HEGO EUSKAL HERRIAN

Omikron eta delta aldaerek markatutako seigarren olatua "bukaerara" iristen ari dela diote osasun agintariek. Hego Euskal Herrian adierazle guztiek berresten dute hori; positiboak, intzidentzia-tasak, ospitaleratzeak eta hildako kopurua behera egiten ari dira, pixkanaka.

Gotzone Sagarduik eta Santos Indurainek emandako datuen arabera, 507 herritar daude uneotan ospitaleetan; duela astebete baino 185 gutxiago. Horietatik 82, daude Zainketa Intentsiboen Unitateetan; hilaren 9an baino 23 lagun gutxiago. Eta heriotzei dagokienez, hilaren 14tik 20ra bitarteko datuaren arabera, EAEn gaitza zuten 203 lagun hil ziren, eta Nafarroan, berriz, 20.

NEURRIEN ARINTZEA

ASTELEHENA EZKERO, TESTUINGURU BERRIAN

Ordutegi eta edukiera mugarik gabeko asteburuaren atarian daude debagoiendarrak; izan ere, astelehenean indargabetu zen osasun larrialdia EAEn eta dekretuak jasotako arauak ber-

tan behera geratu dira. Egoera honetan, bi dira bete beharrekoak: espazio itxietan maskara erabiltzea eta kirol ekitaldietan orain arte ezarritako zegoen edukiera muga ez gainditzea. Nafarroan neurriak berdinak dira, eta Ipar Euskal Herrian arinago ari dira jokatzeko: hilaren 28tik aurrera, barrualdeetan ere ez da maskarak behar, txertaketa ziurtagiria erakusten bada.

JAURLARITZAREN KUDEAKETA

URKULLUK ESAN DU "HERIOTZAK EKIDIN" NAHI IZAN DITUZTELA

Lehendakariak pandemiaren kudeaketaren inguruko adierazpenak egin ditu asteon. "Informazio kontrajarria" eman dela eta "pedagogia egitea" falta izan dela onartu du: "Bi urte hauetan ezer jakin gabe kudeatu dugu pandemia, baina hemendik aurrera bestelakoa izango da kontua; informazio gehiago daukagu". Bestetik, azpimarratu nahi izan du Labik hartutako neurriek "heriotzak ekiditea" zutela helburu, eta "oreka mantentzen" saiatu direla "pandemiari erantzuteko beharren" eta "gizartearen neke psikologikoaren" artean. Bukatzeko, gogorarazi du, neurriak malgutu badira ere, pandemia ez dela bukatu, eta "zuhurtziaz" jarduteko dei egin du.

Euskaldunon egunkaria, liburu batean kontatuta

Egunkariaren sorrera, ibilbidea eta itxiera azaltzen dituen liburua hasi zuen Joan Martin Torrealdai, eta iaz argitaratu zen, Joanmari Larrartek bukatuta. Aurkezpen birarekin hasiko dira datorren astean, eta Arrasate izango da lehenengo gurekua

U. I. L. ARRASATE

Domekan hemeretzi urte beteko dira *Egunkaria* itxi zutela. 2003ko otsailaren 20an, euskal gizartea asaldatu zuen Espainiako Auzitegiko Del Olmo epailaren aginduak; *Egunkaria* ETArekin lotu eta hamar kide espetxeratu zituen. Horren ostean, besteak beste, Juan Mari Torrealdai sortzaile eta lehendakariak atxilotan jasandako torturak salatu zituen, eta bera izan zen *Egunkaria*-ren historia jasotzeko liburua idazteari ekin ziona.

Liburu hori bukatu aurretik zendu zen, baina, Torrealdai, eta lankide izandako Joanmari Larrarteri egokitu zaio Torrealdai-utzitako liburua amaitzea. Lagunak jorratutako ildoari "ahalik eta fidelen" jarraituta, iaz azaroan ikusi zuen argia *Egunkaria*. *Gizarte zibilaren arrakasta* liburua.

Arrasate, birako lehenengoa

Arrasate izango da liburua aurkezteko egingo duten biraren lehenengo gurekua. *Berria*, *Elkar* eta *Jakin* fundazioa ari dira horren atzean lanean, eta martitzenean egingo den aurkezpen horretan Arrasate Euskaldun Dezagun elkarte (AED) eta Goiena izango dituzte lagun. 19:00etan izango da, Kulturategi areto nagusia. Larrartek berak egingo du aurkezpena eta ondoan izango ditu Joseba Ezpeleta arrasatearra –*Egunkaria* itxi zenean AEDko lehendakari zena eta herri batzordean lanean jardun zuena– eta saioa gidatuko duen Larraitx Zeberio, Goiena Komunikazio Taldeko kazetaria.

Memoria ariketa

Hil baino astebete lehenagora arte aritu zen Torrealdai liburua idazten. *Egunkaria*-ren sorrera, ibilbidea eta behartutako itxiera jasotzen ditu liburua; dena, barnetik kontatuta. Horretarako, xehetasun asko ditu lanak: do-



Liburuaren lehenengo auzkezpena, Martin Ugalde Kultur Parkean. ELKAR



Goienako langileak, Bergaran, *Egunkaria*-ren aldeko elkarretaratzean. GOIENA

kumentu ofizialak, bizipen pertsonalak, gogoetak... Bost bat urtez jardun zuen Torrealdai memoria ariketa hori egiten; besteak beste, argi gera zedin *Egunkaria* "herri ekimenean" sortu zela –horregatik *Gizarte zibilaren arrakasta* izenburua–.

Zortzi kapitulu osatutako lana da, lehenengo pertsona idatzitakoa, eta agerian uzten ditu *Egunkaria*-ren misioak: euskalgintzaren aldeko lana, komunitatearen parte-hartzea, lankidetzatza... Martitzeneko aurkezpenaren zehaztuko ditu Larrartek nondik norako guztiak; izan ere, esan bezala, berak amaitu du liburua. Azaldu izan duenez, egitura argiarekin, aurkibide batekin eta dagoeneko idatzita zituen pa-

sarteekin jaso zuen lana Joan Mari Torrealdairerengandik.

Hemeretzi urte atzera

Egunkaria-ren itxiera izan zenean, Debagoienean elkartasun keinu ugari egin ziren. Goiena Komunikazio Taldeko langileak, adibidez, mobilizazioa egin zuten "adierazpen askatasuna" aldarrikatzen eta *Egunkaria* osatzen zuten langileei –eta proiektuari berari– babesa helarazten.

Arrasaten, beste zenbait herri-ritan bezala, herri batzordea eratu zen, eta *Berria* aurrera ateratzeko, besteak beste, *Egunkaria* Rock jaialdia, bertso-bazkaria, material salmenta eta harpidetza eta akzioak erosteko egitasmoak egin zituzten.



Erostege azalpenak ematen, Arburuaren ondoan. JULEN IRIONDO

Espetxeetako osasun arretaz jarduteko hainbat hitzordu

Bergaran eta Oñatin mahai-ingurua eta hitzaldia egin dituzte, euskal preso osasuna ardatz hartuta

U.I.L. DEBAGOIENA

Aste honetan hainbat hitzordu egon dira, bailaran, preso eta osasunaren gainean hitz egiteko eta hausnartzeko. Bergaran, Gure Artera Sarek antolatuta, mahai-ingurua egin zuten martitzenean, eta eguaztenean, berriz, Lander Garroren *Tipularen sehaska kanta* pelikula proiektatu zuten; "espetxeetan gaixotasunak dakarren samina azalera ekarri nahi duen filma". Oñatin ere gai bera landu dute: aurreko astean eman zuten Garroren ikus-entzunezkoa, eta oraingoan, martitzenean, Txema Matanzas abokatuak hitzaldia egin zuen.

Preso ohien mahai-ingurua

Joseba Erostege *Eltzikorta* preso ohi antzularra eta Jaiki Hadi elkarte kide Fernando Arburua nafarra egon ziren Bergaran. Jaiki Hadi preso osasun arloaz arduratzen den elkarte da. Bi hizlariak 23 urtez egon dira espetxean. Azaldu zuten, gaixotasun larriak dituzten hemeretzi euskal preso daude egun, eta adierazi zuten egoera "itzulerarik gabekoa" denean bakarrik askatzen dituztela. Horri lotuta, "konfiantzazko medikuek emandako osasun arreta duina" senideengandik gertu jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

Joseba Erostege kontatu zuen koloneko minbizia sortu zitzaio- la kartzelan: "Hemorroide bat

izango zela esan, eta pomada bat eman zidaten. Nire kasuan, borondatea zuten sendagileek, baina ez zuten bitartekorik. Nahi izanda ere, espetxeetan medikuek ez dute bitartekorik izaten". Arburuak gehiago zehaztu zuen medikuen inguruan: "Denetarik dago: batzuk txukun portatzen dira eta beste batzuk erabat le- rrokatuta daude espetxearekin".

Bestetik, buru osasunak ere hartu zuen tokia. "Espetxearen- dako arazoa izan daitekeela pentsatzen dutenean hasten dira esku hartzen", zioen Arburuak. Joseba Erostege ere jardun zuen horren inguruan: "Imajinatu nola egon daitekeen arazo psikikoak dituen pertsona bat lau hormaren artean eta horre- la 40 urte egin behar dituela pentsatzen". Euren buruaz beste egindako presoak ere badire- la ekarri zuten gogora.

Oñatin, Matanzasen hitzaldia

Oñatiko Sarek antolatuta, Txema Matanzas abokatuak Gotzon Telleria presoaz jardun zuen martitzenean. Telleriak senda- zina den ELA gaixotasuna du eta "egoera larrian" dagoela adierazi zuen hizlariak.

SALATU DUTE BORONDATEA IZAN ARREN, MEDIKUEK EZ DUTELA BALIABIDERIK ESPETXEETAN

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Gaurko Arantzazuko saioaren bezperan erantzun ditu GOIENAREN galderak.

Zein da Kataluniako ekonomia sozial eta solidarioaren argazkia?

Ekonomia soziala osatzen duten kooperatibak eta hirugarren sektoreko gainerako erakundeak 12.000 inguru dira gaur egun, eta langileak 180.000 bat. Hirugarren sektoreko erakunde berriak ez dira sortzen ari azkenaldian, daudenak hazten bai, baina, kooperatibei dagokienez, 500 inguru sortu dira azken bost urteotan, eta beste 500 ekimen, kooperatibarik sortzera ez iritsi arren, ekonomia sozialaren esparrukoak. Lan kooperatibak dira, gehienbat, baina gero eta gehiago hasi dira sortzen kontsumo kooperatibak ere, produktu agroekologikoenak eta. Katalunian indarra hartzen ari den ahalduz modu bat da. Gure politikekin lagundu dugu sortzen *Proiektu singular* deritzen horietako 200 inguru, batez ere, interkooperazio arlokoak; modu askotakoak daude: produkzio arlokoak, kontsumokoak, lan esparrukoak, komunikazio teknologietakoak, zaintzakoak...

Gizarte-erlaketak asmoarekin?

Alderdi garrantzitsua da hori. 2015etik, eta, areago, 2016an ezker independentista errepublikazalea Gobernura iritsi zenetik, eta, oro har, ezkerre, baita Comu-koak eta CUPekoak ere, udaletara, politika aldaketa gertatu da tokiko zein nazio mailan. Kontuan izan behar da mugimendu bat bazela aurrez, eta elkar elikatu dute, eta, sortu diren kooperatiba berriak eta indartuz joan diren besteak lana eta aktibitate ekonomikoa sortzeko helburura ez ezik, komunitatean eragitera eta inguruaren gizarte eraldaketara egon dira bideratuak, herritarren bizi baldintzak hobetzera, beraz; interkooperatzera eta komunitatea egitera, auzoan, herrian, hirian...

Erraza izaten ari da administrazioaren eta beste erakunde horien arteko elkarlana, kontuan izanda, sarri, halako egitasmoak ezarritakoarekiko desadostasun batetik sortzen direla, adibidez?

Ezer ez da erraza. Baina uste dut eraikitzailea izaten ari dela. Ez da konfrontaziotik egiten, baizik-eta elkarriketatik eta ko-erakuntzatik. Bakoitzak du bere ikuspegia, ikuspegi pertsonal desberdinetatik begiratzen

"Kooperatibak sortzea eta komunitatea egitea da nahia"

JOSEP VIDAL EKONOMIA SOZIALERAKO ZUZENDARI NAGUSIA GENERALITATEAN Euskal Herrian da, KoopFabrikaren jardunaldi batean Kataluniako esperientziaren berri kontatzera etorrira. 'Ateneu cooperatiu' direlakoak ditu hizpide, besteak beste



Josep Vidal, atzo, eguna, Aretxabaletako Otalora jauregian. KOOPFABRIKA

zaie gaiei, edo bakoitzaren komunitatearen ikuspegitik, eta Gobernuak ere, eta gure zuzendaritzak eta udalek, beren ikuspegia dute. Baina, inpaktua sortzeko, garrantzitsua izaten ari da bat egiten dugun puntuak topatzeko erakusten ari garen gaitasuna. Gure politikekin, konfiantza ematen ari gatzia mugimenduari, erantzunkidetasun espazioak sortu ditugu, eta mugimendua gai izaten ari da, bakoitzak bere jarduera aurrera eramateaz gain, ardura horiek hartzeko. Honek ekarri du, adibidez, administrazio teknikan ere beste era batera lan egin beharra, eta baita mugimenduen administrazioarekiko jarrerak aldatzea ere, kasu batzuetan konfrontazio kutsuak izaten ziren-eta. Ko-erakuntza da orain asmoa, eta hausnartzea nola kudeatu behar den denona den, eta ez kooperatibarena, diru publikoa.

Zer dira Ateneu cooperatiu deritzanak eta aipatu Proiektu singular-ak?

Ateneu-ak mugimenduak kudeatutako egitura publikoak dira; publikoak, diru publikoz hornitzen direlako; egiten dutena da

lurraldeetako ekonomia sozial eta kooperatiboa lagundu, indartu eta ezagutarazi. Hamalau ditugu Katalunia osoan, eta lankidetzan jarduten dute mugimendu kooperatiboak eta udalek, lehenaren lidergoarekin. Egituraren helburua da kooperatiba berriak sortzea eta komunitatea egitea. Honela, ekonomia sozial kooperatibora gerturatu nahi duen edonork aukera du *Ateneu*-etara jotzeko, eta han topatuko ditu kooperatibak sortu dituzten pertsonak, eta teknikari batek edo politikari batek baino hobeto azalduko diote nola egiten den hori. Honek ekarri du kooperatibismoa herrialde osoan egituratzea eta elkarren, lurraldeen eta kooperatiba ekosistemen arteko sinergiak sortzea, sare bat eratu den heinean. *Proiektu singular*-ak, berri, lehendik sortutako kooperatibentzako ekimena dira, hazteko proiektu estrategikoak sor ditzaten. Baina proiektu horiek ezin dira kooperatibari begirakoak bakarrik izan, interkooperazio zentzua izan behar dute, eta beste kooperatiba edo enpresaren batekin elkarlana egin, herritarren beharrei erantzuteko. Iraunkortasunerako gakoa da hori, beste batekin hartzen duzulako jarduteko konpromisoa.

Zerk erakusten du ekonomiaren halako eraldaketa baten beharra?

Batetik, nahi duguna da lanpostuak eta aktibitate ekonomikoa bertan geratzea, ez deslokalizatzea, eta produkzio bideen kontrola herritarrek duten formula batekin bermatzen du hori. Bestetik, ekonomia sozial eta kooperatiboak, produkzioaz eta mozkinaz gain, ingurunea hobetzea du helburu, produktuak saldu edo zerbitzuak ematen dizkion jendearen bizitza hobetzea –bestelako zenbait enpresa txiki eta ertainek ere bai–. Hirugarrenik, ekonomia, lehia moduan barik, kooperazio moduan ikusi beharra aipatuko nuke. Eta, azkenik: egungo ekonomiaren ezaugarria da lurraldearekiko atxikimendurik eza –Amazon, Globo...–, eta horrek dakar bertako ekonomiak sufritzea. Lortzen badugu herritarrek sortzea interkooperaziorako espazioak, ekosistema kooperatiboak, gertuko ekonomiarekiko kontsumitzaileen eta langileen konpromisoak egingo du irauten laguntzea.

"LANA SORTZEKO EZ EZIK, GIZARTEA ERALDATZEKO ERE BADIRA KOOPERATIBAK"

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Asteburuetakako edo herrietako jailetako gaueetan zehar gertatzen dira, normalean, zabor edukiontziekin lotutako suteak. Kontua berria ez den arren, inoiz baino arduratuago daude ordezkari politiko eta ingurumen teknikariak, azken hilabeteetan nabarmen hazi direlako halako ekintzak.

Udatik negura, hamabi sute

Atzera begiratua eginda, ia zko uda hasieratik aurrera jar daiteke fokua. Ekainaren 26tik uztailaren 18ra bitartean, sei alditan eman zioten ezezagunek su edukiontziei, Aretxabaletan, Arrasaten eta Eskoriatzan. Hiru aste haietan 22 edukiontzi kiskali ziren, guztira, eta, ondorioz, lau autok, bi zuhaitzek eta bi eraikinek ere jasan zituzten albo-kalteak. Gainera, ordu txikietan etxetik kanpora irten behar izan zuten Arrasateko Loramendi kaleko zenbait bizilagunek, fatxada su hartzen ari zela ikusita.

Uda eta negu artean, berriz, nabarmen apaldu zen kiskalitako edukiontzien kopurua, ezbehar bakarra atzeman zelako bailaran, kasu hartan Bergaran, irailaren 7an: kiskalitako hiru eta kaltetutako bi kontainer, hain zuzen ere.

Baina negua iristearekin bat hazi egin ziren zaborrontzi handietako suteak. Abenduaren 23an, hiru edukiontzitan piztu zuten sua Aretxabaletako Basabe industrialdean. Handik bi egunera, hiru herritan eman zieten su: Eskoriatzan bati, Arrasaten biri eta Aretxabaletan bosti. Handik hiru egunera, beste horrenbeste gertatu zen Eskoriatzako Olazar auzoan: bi edukiontzi eta auto bat sugarretan erre ziren. Eta abenduaren 29an, bost egun lehenago jarritako edukiontzi berriei su eman zieten Aretxabaletan.

2021eko azken sei hilabeteetako gertaera horien batuketa eginda, Debagoienean hamabi erreketak izan ziren, guztira, eta, guxtienez, 24 edukiontzi kiskalita eta bost auto kaltetuta geratu ziren.

Aretxabaletako kasua

2022. urtea hasi denetik, herri bakarrean pilatu dira edukiontzien suteak: Aretxabaletan. Urtarrilaren 23an eta otsailaren 13an sortu dira sugarrak, guz-



Aretxabaletako lralabarri plaza ondoko edukiontziak kiskalita, joan zen domekan. OIHANE AGIRRE

Zer egin suteak saihesteko?

Kezkatik haserrera pasa dira Debagoieneko Mankomunitateko eta udaletako ordezkariak, baita herritarrek ere, azkenaldian zabor edukiontzien jasandako erreketak nabarmen igo direlako. Joera horri amaiera ematea zaila da, baina

tira, zortzi kontainerretan. Hala, bi hilabete baino gutxiagoko epean 29 edukiontzi izan dira herri horretan guztiz kiskali edo kaltetutakoak.

Aretxabaletako alkatea, Unai Elkorok, "oso arduratuta eta haserre" azaldu da gaiarekin, eta "herritar asko modu berean" daudela gaineratu du. Konponbideren bat egotekotan, "gune guztiak kontrolatzea" izan daitekeela aipatu du. "Baina oso zaila da, bi arrazoiengatik: aukera bat gauez poliziaren presentzia handiagotzea da, baina, edukiontziak gune askotan dau-

denez, posible da kontrolpean ez dagoen gune horretan sortzea sutea; teknologia erabiltzea izan daiteke beste aukera bat, hau da, kamerak jartzea, baina, printzipioz, ezin dezakegu halakorik egin, eta prozesu luzea pasa beharko genuke hori baimentzeko", azaldu du Elkorok.

Errudun ziurrik ez

Egungo baliabideekin ez da atxiloturik egon orain arte, eta ez dago "zantzu segururik" piromanoak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko. Mankomunitateak jarri ditu zenbait salaketa, Ertzaintzak irekita dauzka ikerketak, baina, oraingoz, ez dute ondorio argirik atera. Izan ere, bizilagunen batek ekintza bete-betean grabatu ezean, agenteek sua pizten den momentu eta toki horretan egon beharko lukete su-eragileak atzemateko, "eta

hori oso zaila" da. Ondorioz, argi dagoen ondorio bakarra da suteak "modan jarritako ekintza bandalikoak" direla.

Kostu ekonomiko handiak

Hala ere, abendutik hona kalteak konpontzeko Mankomunitateak jarri duen diru-kopurua, behintzat, jakina da. 3.200 litroko edukiera duten errefus, plastiko eta papera botatzeko ontziak irteten dira garestien, ia 1.000 euroko kostuarekin. Organikoek, 2.200 litrokoak direnez, 795 euro balio dute. Kopuru horiei pedalen -150 euro- eta sarraila elek-

ABENDUTIK HONA, MANKOMUNITATEAK 41 EDUKIONTZI ALDATU DITU, 36.825 EUROREN TRUKE

tronikoen -284 euro- prezioak batuta, 36.825 euro gastatu ditu bailarako zaborra kudeatzeko arduratzen den entitate publikoak azken bi hilabeteetan, 41 edukiontzi aldatzearen ondorioz.

Esku-hartze bizkorak

Edukiontzi berriak Epeleko eta Meatzerrekako zabortegietatik eroaten dituzte, eta, oraingoz, "egun batetik bestera" aldatu dituzte kaltetutako kontainerrak: "Baina baliteke beste sute batzuk gertatu eta zabortegi horietan edukiontzirik ez gelditzea". Ondorioz, berezkoa baino denbora gehiago beharko lukete kalteak konpontzeko, eta orduan beste arazo bat sortuko litzateke zaborrarekin; are gehiago, kontuan hartuta "pertsona batzuek euren etxeko zaborra kiskalitako zaborrantzien alboan" uzten dutela, kontainer berriak instalatu artean.

Ze neurri har daitezke?

Joan den asteleheneko bilkuran "egoeraren larritasuna" agerian geratu zela adierazi du Garazi Larreak, Mankomunitateko presidenteak. Bilera hartan egon zen Elkorok bera ere, eta datorren asteko bilkuran gaia lantzen jarraitzeko asmoa erakutsi du. Martxan jarri duten neurrietako bat gune batzuetan polietilenoeko edukiontziak altzairuzkoekin ordezkatzeko izan da. "Suteen kalteak nabarmen jaisiten dituzte, baina hori ezin daiteke konponbidea izan; partxe bat, asko jota", dio Elkorok. Ertzaintzak adierazi duenez, ekintza-plan bat jarri du abian, tokiko agintariekin lankidetzan, eta prebentzioaren zein ikerketen lana areagotu egin duela gaineratu du.

Suhiltzaileak, fin

Su hartu duten edukiontzien inguruan kalte larriagoak egon ez badira, hori Zubillagako suhiltzaileek eta udaltzainek zein ertzainek bizkor eta modu eraginkorrean esku hartu dutelako izan da. Esanak esan, egon dira oso kaltetuak irten diren autoak, eta, jabeak kontratatuta duen aseguru-motaren arabera, aseguru etxeak bere gain hartu du konponketa oso-osorik, partzialki edo zuzenean ez du bere gain hartu. Badaezpada, eta giroa nola dagoen ikusita, hobe edukiontzietatik urrun aparkatzea.



Bailarako mahatsekin egindako hiru txakolin-marken botilak, taberna bateko barran. IBAI ZABALA

Tokiko txakolin freskoa, ahora eramateko prest

Getariako Txakolina izendapena daraman bailarako mahats-ekoizleen produktua merkatuan dago; Belaskuak, Murgialdai eta Kataidek kaleratu dute edaria, eta debagoiendarrei datozen hilabeteetan eztarria freskatzeko aukera eskainiko diete

Hasier Larrea DEBAGOIENA

San Anton egunean, urtarilaren 17an, aurkeztu ohi du 36 upategiz osatutako Getariako Txakolina jatorri izenak sasoi berriko ardoa. Aurten, iaz bezala, elkarreko arduradunek ez dute ekitaldi ofizialik egin nahi izan, pandemiak eragindako egoera hobetu arte itxarotea lehenetsi dutelako. Baina koronabirusak

ez zuenez iazko udazkeneko uztaz geldiarazi, dagoeneko eskura daiteke 2021ean egindako Gipuzkoako txakolina.

Kostaldekoko lursailetan produkzio osoaren %90 ekoizten den arren, barrualdean ere badaude mahastiak, baita Debagoienean ere. Aurten, Kataide, Belaskua eta Murgialdai markek komertzializatu dute bailarako

lurretan hazitako mahatsarekin eginiko edaria, bakoitzak bere baliabide eta ezaugarriekin.

Ohitura handia Oñatin

Oñati da Gipuzkoan mahasti gehien dituen laugarren herria, Getariaren, Zarautzen eta Aiaren atzetik. XIX. mendea ezkerro usiatzen da mahatsa bertan; gaur egun, urtero komertzializatzen

dute txakolina; normalean, Upaingoa, Murgialdai eta Belaskua etxeek. Aurten, Upaingoan ez dute edaririk egin, "proiektua berregituratzen" ari direlako, baina beste biek, bai.

Belaskuako Jon Urzelaik aipatu du iaz egindako izotzak bi hektarea pasatzeko mahastia "izorratu" zuela: "Normalean ateratzen dugunaren %15 ekoiztu dugu: 1.500 kilo mahats, gutxira. Belaskuako fruitua Getariako upategi batean bihurtzen dute txakolin, eta aurtengoak gustu "suabea" dauka, ez baita %13ko graduazio puntura iritsi, "uda laino askokoa eta eguzki gutxikoa" izan delako, bereziki. Murgialdai, berriz, 25 tona inguruko uztaz batu zuten udazkenean, nahiz eta bertan ere udaberriko izotzek eragina izan zuten. Aritz Galdos ekoizlearen arabera, iazko zikloa "luzea" izan zen: "Negu epelak udaberria aurreratu zuen, baina udako eguzkirik ezak mahatsaren helitze prozesua luzatu zuen". Hala ere, "txakolin freskoa" aterata da, "usain askokoa", eta "gustura" daude emaitzarekin.

Arrasaten, iaz baino hobeto

Bailarako ordezkariak daraman hirugarren markak, Kataidek, 1989an hasi zuen ibilbidea. Aitonak hasitako tradizioari eusten dio familiak, Julen Arregik, tartean. Azaldu du, Oñatin ez bezala, euren bi hektareako lursailean ez zuela izotzik egin neguan, eta horregatik mantendu dela mahatsa behar bezala: "Pozik gaude iaz baino uztaz hobe ateratzen dugulako; ardoak zapora ona dauka, gainera".

Esan behar da bailarako ekoizpenaren zati handiena geratzen dela bertan; jatetxe, taberna eta saltokietan, batik bat.

Osakidetzako "prekarizazioa" salatzen, grebara

Osakidetzako langileek elkarretaratzea egin zuten asteazkenean Debagoieneko Ospitalearen kanpoaldean, Osasun Sailaren "konponbiderik eza" salatzen. Era berean, otsailaren 25ean greba egingo dute lehen arretan, eta otsailaren 28an esparru guztietan, SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Gainera, otsailaren 26an, manifestazioak egingo dituzte EAEko hiru hiriburuetan. Aldarrikapenen artean daude Osakidetzaren aurrekontua handitzea, lanpostuak sortzea, behin-behinekotasuna amaitzea, murrizketak bertan behera lagatzea eta lana eta familia bateragarri egiteko neurriak hartzea.

Helduen egoitzetako lan baldintzak hobetu ez direla dio LABek

Zaintzaren eta gizarte zerbitzuen "egiturazko eredu aldaketa beharrezkoa" dela adierazi du LAB sindikatuak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Patronalari negoziazio kolektiboa berraktibatzea eskatu die. Gipuzkoako helduen egoitza gehienetan gehigizko lan-kargak eta egoiliarrei behar duten atentzioa eskaintzeko denbora falta dutela diote: "Gatazka konpontzeko baldintza nagusia hitzarmen kolektiboa eta ratioak zehazten dituen katalogoa eguneratzea da". Auziak jendarte osoari eragiten diola iritzita, Gipuzkoako egoitzetan greba deitu zuten otsailaren 16rako, eta martxoaren 24an beste horrenbeste egingo dute.

Upategi berria du Murgialdai

2008 eta 2010 artean landatutako lau hektareako mahastiaren alboan eraiki dute bodega berria, Oñatiko Murgialdai auzoan. 2016an hasi ziren Murgialdai etxeko ekoizleak upategiaren proiektua diseinatzen, eta dagoeneko erabilgarri dago. Orain, mahatsa ekoizteaz gain, elaborazioa ere bertan egiten hasi dira. "Lehen aldiz egin dugu bertan txakolina,

eta pozik gaude emaitzarekin", adierazi du Aritz Galdos. Upategia egiteak "proiektuaren ziklo osoa" ixten du, kalitatea eta trazabilitatea "hobeto kontrolatzea" ahalbidetzen die eta beste txakolin mota batzuk egiteko aukera zabaltzen, besteak beste. Bisitak hartu eta dastaketak egiteko txoko bat ere atontzen ari dira: "Ea udaberriko martxan dugun".



Aritz Galdos Murgialdaiko mahastietan, botila eskuan eta upategia atzean. H.L.

A-636 autobideko bidesariaren aurkako protesta gehiago

Bergara eta Beasain arteko autobideko bidesaria kentzea eskatzeko elkarretaratzea egin zuten atzo arratsaldean Antzuolako Herriko Plazan, Kontseilu Sozialistak deituta, *Peajerik ez! Bizitzaren garestitzea gelditu!* lelopean. Arrazoi beragatik, manifestazioa egingo dute bihar Beasainen, Bideluze plazan hasita, 18:00etan.

Aita Menni ospitaleko gerenteari

TXEMA KORTABARRIA
AITA MENNI OSPITALEKO ENPRESA
BATZORDEKO KIDEA, PSIKIATRIA LEGALEKO
UNITATEAN (UPL) DAUDENEN IZENEAN
ARRASATE

Txema Kortabarria naiz, Aita Menniko enpresa batzordeko kidea. Aita Menniko UPLko pazienteen gutun bat heldu zaigu batzordera, azalduz kezkatuta daudela grebak eurengan sortzen dituen ondorioak direla eta. Hona hemen gutuna:

"Idatzi hau egin dugu kezkatzen gaituzten gai batzuen berri emateko.

Hain zuzen ere, eskari batzuk egin nahi dizkizugu, eta, era berean, eragiten diguten greba eta ekintzei babesa ematen diegu; izan ere, egun horietan ezin izaten dugu jarduerarik egin.

Ez dugu ez bisitarik ez deirik izaten. Eta ezta minimoetan dauden erizainen asistentzia jaso ere; eta, horregatik, batzuetan, denbora luzea itxaron behar izaten dugu behar dugun laguntza jasotzeko.

Gauzak hobetzea nahi dugu, pazienteak hobeto artatuta egon gaitezen.

Horregatik, zentroko langileen eskaerei jaramon egitea eskatzen dugu, zentro honetako bizitzaren funtzionamendua hobetzen laguntzeko eta, era berean, guri ere laguntzeko: haien

eskaerak onar daitezen, gutxieneko esfortzu bat eskatzen dugu.

Hori dela-eta, zentroko langileen eskaerak babesten ditugu.

Adeitasunez, UPLko pazienteak".

Gobernuari mehatxuka

JOSU GARITAONANDIA
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Pentsa nolako indarra duten argindar-enpresek: Espainiako Gobernuak, elektrizitatearen prezioei eutsi nahian, argindar-enpresa handiak behartu

nahi ditu euren irabazien zati bat prezioak jaistera bideratzera. Horren harira, argindar-enpresek mehatxuka erreakzionatu dute.

Argindarraren merkatua berezia da. Nuklearrak, berriztagarriek, enpresa hidroelektrikoek eta abarrek euren prezioetan egiten dute eskaintza, baina jakinda ordainduko dieten prezioa merkatuan dagoen garestiena izango dela; hau da, gasaren prezioan. Adibidez, arrandegi batean erosten badituzu txitxarroa, legatza, muskuiluak eta angulak, denak batera

pisatuko dizkizute eta prezio garestiengan saldu. Hau da, angularen prezioan.

Gobernuaren arrazoiak zentzuzkoak dira; enpresa hidroelektrikoak, bere garaian, diru publikoarekin egin ziren, eta beste gobernu batzuek argindar-enpresa handien eskuetan laga zuten planteatu dietena: hemen sortutako elektrizitatea ez dezatela gasaren prezioan kobratu. Baina Europa mailan legeak behartzen du horrela kobratzera; puntu honetan, Gobernuak esan die hortik sortutako irabaziak bideratu ditzatela

elektrizitatearen prezioa jaistera. Beste borroka batzuk ere badituzte: Espainiako urtegi batzuen ur-maila larregi jaitsi da elektrizitatea sortzeko, eta horrek arazoak sortu dizkie inguruko biztanleei; kasualitatea ote? Edo argindar-enpresa handien beste trikimailuren bat da euren poltsikoak betetzeko?

Ez dakit Gobernuak ezer lortuko duen, baina zuk bai: ez erosi argindar-enpresa handiei, pasa zaitetz kooperatiba energetiko batera. Ez naiz hau esaten duen bakarra: Facua kontsumitzaileen elkarteak ere esaten du.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

MIREN JOSU ARRAZOLA

Meteorittoa dator zuzen

Jar gaitezen gora begira. Azken egunetako albistea da. Greenpeace erakundeak salatu du. European negu honetan 100.000 hegazkin ibiliko dira airean, bidaiaririk gabe, ibilbideen eta ordutegien gaineko eskubideak ez galtzeko. 2 milioi tona CO2 isuriko dituzte atmosferara, Europak ezarritako baldintzak betetzeko.

Beste bat: Txinako Neguko Olinpiar Jokoetan erabiltzen ari diren elur guztia, den-dena, artifiziala da. Antolatzaileek esan zuten 180 milioi litro ur erabiliko direla, baina, beste iturri batzuen arabera, 2.000 milioi litro ur beharko dira. Eta pentsa elur hori sortu eta mantentzeko behar den energia.

Orain, gasa eta energia nuklearra energia berde izendatu ditu Europak. Ez dira garbiak eta horrek, gainera, energia berriztagarrien garapena oztopatuko du, berriztagarrietara

ERAKUNDEEK ETA GOBERNUK HAZKUNDEA DUTE XEDE, KOSTA AHALA KOSTA

bideratu beharreko inbertsioak gas eta energia nuklearra ekoiztera bideratuko direlako. Nolanahi ere, energia garbien inguruan ere zalantza asko daude. Energia eoliko eta eguzki

energia instalazioek paisaia suntsitzen dute, eta ekosistemak larri kaltetzen dituzte. Ez hori bakarrik, mineral kritikoak behar dituzte eta, gainera, produzitzen duten energia jarria ez da etengabea eta egonkorra, erregai fosiletatik datorrena bezala.

Munduko erakundeek eta gobernuak goi bilerak eta adierazpen potoloak egiten dituzte klima aldaketa geldiarazteko, baina euren jardunean denek dute xede hazkundera, kosta ahala kosta. Eta ez da posible 7.800 milioi pertsona bizi diren planetan etengabeko hazkundera.

Klimaren aktibistak aspaldi ohartarazten ari dira: ezagutzen dugun bizimodua aldatu egingo da. Aldaketa hori era antolatuan egin beharko litzateke, desazkundearen bitartez. Aldiz, ez badugu ezer egiten, askoz larriagoak izango dira ondorioak eta, beti bezala, zaurgarrienen sufrutuko dute gehien. Ez dago irtenbide magikorik, eta zuzen dator meteorittoa.

MARRAZKIZ



HANDIK ETA HEMENDIK

'Do look up'

JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Deitu trantsizio ekologikoa edo esan trantsizio energetikoa. Aipatu larrialdi klimatikoa edo gogoratu aldaketa klimatikoa. Berdin dio. Guztia berriztagarri izango ei da, guztia elektriko. Kendu konbustio motorra, fuera diesela, jarri elektrikoa. Kendu karburadorea, ekarri litiozko bateria. Nik dakita. Planeta bizigarritasunaren mugara daroagun arren, ez dirudi trantsizioak estualdirik eragingo digula uste dugunik. Argindarra garesti dagoela? Protesta egingo dugu. Erregaia igo

dela? Protesta. Denok ados. *Ipertrola* errudun.

Oso berde edo ekologiko gara guztiok ere, oso bio, baina gure kontsumoa ukitzen badigute... kasu. Errota eolikorik ez dugu nahi edonon; are gutxiago, zentral nuklearrik.

Baina nonork mugikortasuna mugatzea, zerga berdeak ezarri eta handitzea edota, besterik gabe, kontsumo neurritsuagoa planteatzen badigu... onartzeko prest ote gaude?

Errua dirudunek dute, aberastasunaren portzentaje hagitz handi hori dutenek. Besteak dira aldaketa klimatikoa, txo.

Laga ni bakean neure autokarabanan edo bigarren etxebizitzan; eski denboraldia ere badator; Bershka eta Primarkeko neure erosketak ohikoan mantendu; urtean behingo Europarako asteburuko hegaldia edota ehunka edo milaka kilometrotara gozatutako oporrak. Utzi niri autoz nahi beste joan-etorri egiten, ez jarri abiadura mugarik hirietan. Telebistak, etxebizitzako bi, gutxienez. Segapotoak ere, hamar urtean hiru bai. Ur botilaratua noiznahi. Geure gurasoak baino okerrago bizitzeko asmorik ez dugu inork. Baina eramangarritasun handiagoz bizitzekorik bai?

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Kimioterapia izan zen, askogatik, gogorrena"

URTZI URIZAR GIRALDO MINBIZIA DIAGNOSTIKATU ZIOTEN HAMAR URTEREKin

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna izan zen martitzena. Minbiziak tabu izaten jarraitzen du, eta haur minbiziak, zer esanik ez. 11urte betetzear zela jaso zuen diagnostikoa Urtzi Urizarrek (Arrasate, 2000). Baikortasun mezua helarazi die gaixotasunari aurre egiteko prozesuan diren gaixoei eta senitartekoei.

Sarkoma sinobiala diagnostikatu zizuten 10 urterekin. Prozesu luze baten hasiera izan zen.

Urte dezente pasa dira ordutik. Txikia nintzen eta ez ditut gauza asko ongi gogoratzen, baina egia da niretzat esperientzia gogorra izan zela. Momentuan bertan ez nekien zer zen gertatzen ari zitzaidana edo ze gaixotasun neukan. Banekien, gutxi gorabehera, minbizi zer zen, baina ez oso argi. Une hartan gogorrena izan zen prozesua hastea; ospitalera joan beharra izatea, klaseak alde batera uztea, denbora



Urtzi Urizar Giraldo Arbolapetan. L.Z.L.

luze lagunak ikusteko aukerarik ez izatea... Ez zen erraza izan.

Bi ebakuntza, hilean behin hiru egunez ospitalean egon beharra, kimioterapia, erradioterapia... Eta 10 urte.

Hasieran pentsatuta zegoena zen bost urteko prozesua izango zela. Lehenengo, kimioterapia saioak; gero, erradioterapia; eta gero, aldizkako errebisioak ospitalean. Baina luzatu egin

zen eta hamar urteko prozesu bilakatu zen. Oraindik ere, urtean behin joaten naiz analisiak egitera, gaixotasunari aurre egiteko tratamenduek ondorioz eragin duten jarraipena egiteko.

Une hobeak eta txarragoak izango zenituen prozesuan zehar.

Hasierako zatia izan zen, batez ere, gogorrena. Kimioterapiak prozesuarekin ari nintzela ospitalera joaten nintzen tratamendua hartzera, eta haiek ziren, alde handiarekin, unerik gogorrenak. Han sartuta egotea, ia jendea ikusi ezinez, eta etortzen zirenak kontu handiarekin eta askorik hurbildu gabe... Gero, kimioterapiak sortzen dituen efektuak daude. Etxera bueltatzen nintzenean, eta egunak pasa ahala, hobetzen joaten nintzen, baina berriro beste kimioterapia saio bat heltzen zen... Erradioterapia eramangarriagoa izan zen. Amaitutakoan, aldizkako kontrolak etorri ziren: lehenengo, bi hiletik behin; gero, sei hiletik behin; gero, urtean behin...

Gertatzen zitzaizunari buruz hitz egiteko aukerarik izan zenuen? Nahi zenuen?

Oso txikia nintzen eta gertatzen ari zitzaidanari

buruz hitz egiteko jende askorik ez nuen nire inguruan. Eskolara itzuli nintzenean, banituen lagunak bazekitenak zer gertatzen zitzaidan, baina banituen ere ez zekitenak. Azken horiekin, hasiera batean, gaiari buruz hitz egitea kosta egin zitzaidan. Ez bakarrik ez nekielako zehazki zer zen gertatutakoa, baizik eta ez nekielako nola kontatu. Ez nuen nahi besteek ni arraro ikustea. Esaten zidaten urtebetean ez nintzela klasera joan, eta ez zekitela nola nengoan, baina... Hasieran, kosta egin zitzaidan. Ez zen gauzak azaltzeko gogo falta nuela, baizik eta ez nekiela nola azaldu.

Zein da zure mezua minbizi bati aurre egiteko prozesuan dagoen gaixo edo familia bati?

Lehenengo eta behin, baikorrak izateko esango nieke, eta lagunez inguratzeko. Gogorra da, baina egoerari baikortasunez aurre eginez gero beste modu batera bizitzen duzu prozesu osoa. Beti bazaude ezkor eta behin eta berriz galdetzen badiozu zeure buruari "zergatik gertatu zait hau niri?", azkenean, prozesua askoz luzeagoa egiten da. Gainditzea posible dela sinistu behar da.

ITURRI ONETIK

Korrika zuzenean Goiena telebistan

Goiena telebistak zuzenean emango du Korrikaren ibilbidea Debagoienean. Apirilaren 1ean, ostirala, helduko da eskualdera – bezperan hasiko da Korrika, Amurrión-, eta Bergara, Elorregi, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga zeharkatuko ditu, 11:30etik 15:00etara bitartean. Tarte horretan, zuzen-zuzenean egingo du saio berezia Goienak eta telebistaz zein *Goiena.eus* bidez emango du. Ibilbidearen gaineko irudiak, konexioak, elkarrizketak, erreportajeak... eskainiko ditu.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-02-20

Debagoienean, Europako Itunari bizkarra

Europako Itunaren gaineko erreferenduma egin zen. Debagoienean ezezkua gailendu zen –botoen %50,7– eta abstentzioa ere handia izan zen –%67–. Gipuzkoan, ordea, baiezkoa nagusitu zen –%56–; baita Espainian ere: %76,73. EAJk abstentzioaren alde egin zuen; ezker abertzaleak, Aralarrek eta EAK, ezezkoaren alde; eta PSE-EEk, baiezkoaren alde. Arrasaten eta Eskoriatzan baiezkoa nagusitu zen; beste herrietan, ezezkua.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Ukraina hizpide izan da sare sozialetan ere

Errusiaren eta AEBen arteko tentsioa eta Ukrainako egoera berbagai izan da Twitterren: *@reparazz*: "Luhansk eskualdeko buruzagiak dio mortero erasoak egin dituela Ukrainako armadak Donbasseko lau herritan". *@aneirazabal*: "Beste behin, testosterona gehiegi #Ukraina-n". *@aitoriradi*: "Argi utzi behar da Ukrainako gatazka mendebaldeak bultzatutakoa dela beraz, liskarrak jarraituko du". *@txifliti*: "Ukrainako krisiak dimentsio asko ditu eta ahaztuenetako bat humanitarioa da".



Celeste Agüero eta Garazi Basterretxea, *La encendida* emanaldian. ARRASATEKO EMAKUME TXOKOA

Bideo emanaldia, musika eta poesia, abian jartzeko

Gaur, egubakoitza, ekingo diote Emakume Txokoaren 2022ko egitarauari. Lehenik, 'Nik sinisten dizut' irakurketa kolektiboaren bideoa aurkeztuko dute, eta gero, 'La encendida' emanaldia egongo da. 19:00etan hasiko dute saioa, Emakume Txokoan

Eneko Azurmendi ARRASATE

2022ko lehen seihilekoari hasiera emateko irekiera ekitaldia egingo dute gaur Emakume Txokoan. Lehenik, abenduaren 2an egin zuten *Nik sinisten dizut* irakurketa kolektiboaren bideoa aurkeztuko dute. Egun hartan, Kultureteko klaustroan egindako ekitaldian, emakumeek jasaten dituzten biolentzia moten testigantzak lehen pertsonan eta herritarren ahotik jaso zituzten, "sinisten ez diren" bi- zipen horiei lekua eta aitortza egiteko, Amets Beltran de Guevara Emakume Txokoko dinamizatzailearen esanetan. "Izan ere, emakume izateagatik gertatzen zaigu gertatzen zaiguna, eta askotariko profil, jatorri eta adinetako emakumeek hartu zuten parte saio hartan. Erroa bera izan arren, askotarikoak dira emakumeok jasaten ditugun biolentziak".

Irakurketa bakarrik ez, askotariko diziplinak batu zituen saio hark, herriko musikari,

dantzari, margolari eta poetek hartu baitzuten parte. Gaur, beraz, egun hartan jasotakoa ikusi ahal izango da.

Musika eta poesia, batean

Bideo emanaldiaren ostean, *La encendida* emanaldiaz gozatzeko aukera izango da, Euskal Herriko eta Latinoamerikako erritmo, doinu eta hitzak biltzen dituen saio poetiko-musikalaz. "Proiektu honen helburua da batzen gaituen ozeanoaren alde bietako abesti eta poemen bidez leku horietako garai desberdinetako ahots, borroka zein ametsak partekatzea, gaur egungo errealitateetan oraindik ere bizirik dirautenak", diote Celeste Agüero eta Garazi Basterretxeak, emanaldiko protagonistek.

ABENDUAREN 2AN KULTURATEN EGIN ZUTEN SAIOA BATZEN DUEN BIDEOA IZANGO DA GAUR IKUSGAI

Lehenak, abesteaz gain, *cuatro* venezuelarra jotzen du. Garazi Basterretxea, berriz, perkusioaz arduratzen da, Argentinako bombo legüero instrumentuarekin, eta poemak ere berak irakurtzen ditu. "Hala, poesia xurlatuaren eta arpegioen bidez, erlaxatzeko zein cumbia eta txakarera erritmoak dantatzeko uneak tartekatzen ditu saioak".

Edukiera zaintzeko, izena eman behar da, 943 79 41 39 edo 618 20 62 33 telefonoen bitartez edota emakumetxokoa@arrasate.eus helbide elektronikora idatzita.

Aurrerago, beste ekintza batzuk Martxoaren 11n, esaterako, *Umore feminista oholtzara* saioa eskainiko dute Kaitin Allendek, Bea Egizabalek eta Belen Nevadok. Apirilaren 1ean, bestalde, *Tazolteotl, plazeraren eta pasioaren jainkosa; sexu topaketak tlalticpac lurtean* erakusketa zabalduko dute.



Musakolako igogailua, lehenengoa, irudikatzen duen infografia. ARRASATEKO UDALA

Hiru igogailuko sistema egiteko lanak apirilean hasiko dituzte

2.214.602,74 eurotan esleitu dio Udalak Altuna y Uria SArri Musakola eta Santa Teresa lotuko dituen obra

E.A. ARRASATE

Lehiaketa publikora bost enpresa aurkeztu dira eta Arrasateko Udalak Altuna y Uria SArri esleitu berri dio obra, 2.214.602,74 eurotan BEZa barne). Era berean, obra zuzendaritza 62.667,11 eurotan –BEZ barne– esleitu zaio Asmatu SL Ingeniaritzari. "Udalak 2022an egingo duen inbertsiorik garrantzitsuena da", azaldu du Udal Gobernuak.

Auzoaren mugikortasun bertikaleko proiektuaren definizioa modu parte-hartzailean egin zuten bizilagunekin iaz, ekainean. "Aurkeztutako hiru aukeren

artean, Elkano, Galizia eta Santa Teresa kaleetako hiru igogailu eta lau pasabide hartzen dituen proiektuaren alde egin zuten auzotarrek, eta hori da gauzatuko dena", dio Maria Ubarretxena alkateak.

Proiektuak igogailuen "irudi bateratua" proposatzen du, "hiri-mugarri horien artean harreman bisuala ezarri ahal izateko, oinezkoentzako ibilbideetan lortu nahi diren konexioak sorraraziz". Era berean, igogailuek mugikortasunerako erraztasunak eskainiko dituzte, "eta autoaren erabilera murriztu egingo da".



HASIER LARREA

TAO makinak, beltzez margotuta

Joan den zapatua eta domeka artean, gutxienez, hamar TAO makina margotu zituzten erdigunean, San Andresen eta Uribe auzoan, eta ordainleku batzuetan sistemaren aurkako pintaketak ere azaldu ziren –TAO ez, esaterako–. Domeka arratsalderako garbitu zituzten pantailak udal langileek, baina argi dago zeresan handia ematen ari dela sistema berria.

Karkabatik herrira ireki dadin pentsaera kritikoa

Arrasateko Sortuk 'Karkabatik Herria' solasaldi zikloa antolatu du datozen hilabeteetarako, Irati Topalekuarekin eta Iratzar Fundazioarekin elkarlanean, "ikuspegi ezkertiar, subiranista eta feministatik hausnartzuz, pentsamendu kritikoa elikatu eta garatzeko"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ikasturte honetan, kongresu prozesuan murgilduta egon da Sortu. "Urtarrilean, herri topaketa bat egin genuen, ikasturte amaierara arteko asmoak partekatze", azaldu du Amaia Etxabek, Arrasateko Sortuko kideak. Tartean, solasaldi ziklo bat egitea ere erabaki zuten, eta iritsi da emaitza. Hala, datorren astean hasi eta ekainera bitartean, hilabeteen solasaldi bat egingo dute Irati Topagunean.

Etxabek azaldu duenez, "esperimentu" bat da, irakurketa klubaren eta hitzaldiaren arteko nahasketa moduko bat. Izan ere, hilabete bakoitzean, landuko den gaiaren inguruko irakurgaiak mailegu moduan hartzeko aukera izango da Iratin, interesa dutenek gaia lantzeko aukera izan dezaten. "Hala, idazlearen eta parte-hartzaileen artean elkarriketak sortzea da asmoa, nahiz eta entzule soil gisa ere hartu daitekeen parte". Hilabeteen behin egitea erabaki dute, gai bakoitzari behar duen denbora eskaini eta modu egokian lantzeko. Beraz, tarte horretan, hurrengo irakurgaiak soilik hartu ahal izango da maileguan, eta ez besteak. "Liburu arinak dira, erraz irakurtzekoak", nabarmendu du Etxabek.

Zikloaren izenari dagokionez, Arrasateko alde zaharreko pasadizoak edo kale estuak dira karkabak. Iratik berak badu karkaba bat atzean. "Beraz, pentsamendu kritikoa karkabatik herrira zabaltzeko ideia horretatik dator zikloaren izena".

Lehen saioa, otsailaren 23an

Lehenengo hitzorduan, Andoni Olariaga Azkaratek landutako *Euskal matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak* liburua izango dute oinarri. "Autoreak burujabetza prozesu herritar historikoa aztertzen du, 1950eko



Irati Topagunean aurrez egin izan duten solasaldietako bat. ARRASATEKO SORTU

Hilabete bakoitzean solasaldi bat

Saio guztiak Irati Topagunean egingo dituzte, 19:00etan:

- **Otsailak 23:** *Euskal Matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak*, Andoni Olariagarekin.
- **Martxoak 23:** *Askatu edo moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak*, Nora Salbotxekin.
- **Apirilak 27:** *Arnasberritzen. Euskalduntze prozesua arnasberritzen, ezkerretik eta independentismotik*, Xabi Iraolarekin.
- **Maiatzak 18:** *Jan eta Jabe. Elikaduraren bidez, herria eraikitzen*, Tasio Erkiziarekin.
- **Ekainak 8:** *Mamuariso. Neoliberalismoa versus burujabetza*, Floren Aioizekin.

hamarkadan sorturikoa. Hamarkadetan zehar iraun edo errepikatu diren eta gaurkotatzen diren handia daukaten hainbat eztabaida aztertuz: txanponaren bi aldeak, negoziazioaren mitoa, independentzia, langile klasearen atomizazioa, zerumuga iraultzaileak eta abar. Atzera begirada bat, aurrera egiteko, eta hainbat galdera; besteak beste, honako hau: nola egokituko ditugu orduko intuizio, hipotesi eta balioak taupada askatzaile eta iraultzailea mantentzeko?"



NIRE USTEZ

OLIANA SANCHEZ

Kareta kentzeko garaia, edo jartzekoa?

Egun gutxi barru, Aratusteak ospatuko ditugu. Antzinakoa da benetan ospakizun hau, duela 5.000 urte ere erromatarrek, maskarak jantzita, Saturno Jainkoa laudatzen zuten eta.

Erdi Aroan, ordea, garizuma hasi aurretiko bakanalaren jaia egin eta identitatea ezkutatzeko intentzioarekin, aurpegia estaltzen zuten. Haragikeria eta eromena baimenduta, pasioa denboraldi baterako lotu aurretik onartutako leherketa, alegia.

Agian, jai hau beti otsoaren hilabeteen ospatzea ez da kasualitate hutsa. Astebete barru, otsoak ainuriz izango dira. Murritzketak ia guztiz bukatutzat eman diren egun hauetan, orain arte gordeta genituen gogoen leherketa itzela izan daiteke. Mozorroei hautsa kendu eta errauts eguna heldu arte, gogoz bizitzea gomendatuko nuke. Ileorde eta mozturroak bai, baina, beharrezkoa denean, musukoa ere gainetik jantzi ezazue.

Aratusteetan edonork nahi duena izan ahal du; beraz, pertsonaiarik eroena aukeratu eta... izan zaitezte gaizto, leheritu behingoz!

Sakelakoak, bideo-jokoak eta sare sozialak hizpide Kulturaten

Otsailaren 23an, eguaztena, Jone Zalduegik gidatutako saioa egingo dute; gaur da izena emateko azken eguna

E.A. ARRASATE

Mugikorren, sare-sozialen eta bideo-jokoaren erabilera: non jarri behar dugu arreta? hitzaldia antolatu du Arrasateko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak otsailaren 23rako, eguaztena. Kulturaten izango da saioa, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean, Jone Zalduegi adituak gidatuta. 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta egongo da. "Besteak beste, aztertuko da zein den nerabezaroan mugikorraren erabilera eta bideo-jokoek duten eragina jarrera eta harremanen

tan". Horrez gain, sare sozialak eta espazio digitala ere landuko dituzte: "Nola, zertarako erabiltzen diren, eta jokabide emozionalen jatorriak, nerabeen erreferenteak identifikatzeko irizpideak, edota pornografia, afektibitatea eta komunikazioa espazio digitaletan", azaldu dute Udaleko Prebentzio Zerbitzuak.

Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea, eta bi bide daude horretarako: 943 25 20 07 telefonora deituta edota *Arrasate.eus* webgunean. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna.



"Neandertala errukitsua eta inteligentea zen"

MARIA MARTINON-TORRES PALEOANTROPOLOGOA

Giza Eboluzioaren Ikerkuntzarako Zentro Nazionaleko (CENIEH) zuzendariak hitzaldia egingo du astelehenean, otsailak 21, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita

Eneko Azurmendi ARRASATE

Doktorea eta paleoantropologoa da Maria Martinon-Torres (Ourense, 1974), eta, besteak beste, Giza Eboluzioaren Ikerkuntzarako Europako Elkartea sortu zuen 2011n. Egun, CENIEH zentroko zuzendaria ere bada.

Nola jaso zenuen Arrasaten hitzaldia egiteko proposamena?


Oso pozik nago. Oraindik ikusi ez dudan arren, oso erakusketa interesgarria iruditzen zait eta gogotsu nago ikusteko. Erregistro fosil garrantzitsua dago Lezetxikin, historiaurreko ikerketa zoragarria dago han. Alvaro Arrizabalaga ere ezagutzen dut, eta oso gustura nago aukera hau izateagatik.

Zertan zentratuko zara hitzaldian?

Nik ebidentzia fosilak ikertzen ditut, eta neandertalen perspektiba biologikoan zentratuko naiz, gehienbat, nolakoak ziren erakutsi gura dut. Gizakia espezie inteligentea bakarra da egun, baina garai batean neandertalak ere egon ziren, haiek ere inteligenteak, eta gizakiekin hartu-eman kultural eta genetiko garrantzitsua eduki zuten, bi espezien arteko haurrak ere izan zirelako. Beraz, neandertalen ezaugarri nagusiak erakutsi gurako nituzke, eta, horretarako, munduan dagoen aurre-neandertalen lagin handienetako batean zentratuko naiz, Atapuerca aztarnategian aurkitu genuena, hain zuzen.

Nolakoak zen neandertala?

Atapuercan askotariko adinetako 30 norbanako baino gehiagoren arrastoak aurkitu ditugu. Horrek ahalbidetzen digu neandertalen gutxi gorabeherako erretratu bat egitea eta ze erronka zituzten jakitea. Gizakia eta neandertala alderatu gurako nituzke saioan, jendeak ikusi dezan gizakien antzeko jokaerak zituztela, hildakoak lurperatzen zituztela, ornamentazio gaitasuna zutela eta abar. Horrez



Maria Martinon-Torres, aztarna fosil batekin, laborategian. CENIEH

"GIZAKIAREKIN HARREMAN GENETIKO ETA KULTURAL INPORTANTEA EDUKI ZUEN NEANDERTALAK"

gain, pairatu zituzten gaitz eta patologiak ere erakutsiko ditut, izan ere, horiek ematen digute aditzera espezieek nola egiten zieten aurre garai hartako egunerokoan zituzten zailtasunei. Espezie sentibera, inteligentea eta errukitsua zen.

Lezetxiki aztarnategi inportantea da nazioarteko ikuspegitik ere.

Bai, noski. Neandertalen portaerari buruzko informazio oso baliagarria jaso dugu hortik, eta nazioarteko aldizkari askotan eman izan dute horren berri. **Gizarte gisa, behar duten garrantzia ematen diegu halako aztarnategiei eta, oro har, arkeologiari?**

Baietz esango nuke. Gure gizarteak, oro gar, giza eboluzioari buruzko jakintza maila handia dauka. Maila handiko galderak egin izan dizkidate hitzaldietan, eta ezagutza handiko jendea dago; ez bakarrik adituak, bes-

telako herritarrak ere bai. Horrez gain, Atapuerca etengabe jasotzen ditu bisitariak eta horrek esan gura du jendeak baduela interesa eta jakin-mina. Arkeologia eta giza eboluzioaren inguruko oinarritzko ezagutza handia dela Espainian eta Euskal Herrian, eta hori harrotasunez esan behar dugu.

Mota honetako hitzaldi, tailer edo erakusketa nahikoa daude?

Ekintza asko egiten dira, batez ere, ikertzaileen inplikazio handia delako. Ezagutza ez da erabatekoa ez badugu transmititzen, ondarea guztiona baita, ez ikertzaileona bakarrik. Hau da, asteleheneko saioan kontatu behar dudana ez da nire kontu bat, guztiona baizik. Orain lehen baino indartsuagoak gara? Noiz piztu zitzaigun gure hildakoak lurperatzeko kezka? Galdera horiek espezie gisa definitzen gaituzte, guztiok.

Gehiago egin beharko lirateke?

Ekintza asko egiten dira, baina gehiago egin daitezke, instituzioen babes ekonomikoa handiagoa bada. Zientzia babesten jarraitu behar dugu, ikerketak behar moduan egin ditzagun, eta gizarteari komunikatu.

"Arreta handiagoa" eskatu dio Avesantesek Udal Gobernuari

Santa Teresa eta Doneztebe Portukoko bizilagunek diote Gobernuak ez dituela aintzat hartzen euren beharrak

E.A. ARRASATE

"Komunikabideetan gure oharra azaldu ostean, jarri dizkigute eskatutako bi ispiluak". Astelehenean adierazi zuen hori Avesantes elkarteak. Izan ere, joan den egubakoitzean, ohar bat kaleratu zuten: Udal Gobernuarengandik "abandonatuta" sentitzen direla nabarmendu zuten, eta 2020ko urrian eskatu zituzten "bi ispilu soil" oraindik jarri barik zeudela salatu.

Santa Teresa ikastolaren ondoan dagoen aparkalekuan jarri dituzte ispiluak; izan ere, bizilagunen esanetan, "kolpe eta susto txikiak" egon izan baitira.

"Erabat ahaztuta gaude"

Horrez gain, "erabat ahaztuta" sentitzen direla azpimarratu dute. "Erdigunean ikusgarritasun handiko zebra-bideak iragarri eta berehala jartzen diren bitar-

tean, Santa Teresan eta Doneztebe Portukon bi ispilu jartzeko urtebete baino gehiago daramagu itxaroten".

Udal Gobernuak ematen dizkien erantzunak, salatu dutenez, "aitzakiak" dira. "Pentsan azaldu behar dugu hobekuntzak eskatzen ditugun bakoitzean?".

Malda eta hezetasuna

Santa Teresa 5 atariko eta Doneztebe Portuko 1, 3 eta 5 atarietako atzealdean dagoen maldak, orain urte batzuk Masua iturriko urak jasotzen zituenak, urarekin "arazoak" izan ditu, eta lurra hondoratu egin da, bizilagunen esanetan. Ur horiek orain edozein tokitatik irteten dira, eta atari horiek kaltetu nagusiak dira, hezetasunak eta ur-filtrazioak baitituzte. Noiz hartuko dira neurriak? Noiz hartuko da seriotasunez arazo hau?".

Beherapenak eta musika ona izango dira Merkemerkaian

Atzo hasi zuten Merkemerkaia eta gaur eta bihar ere jarraituko du. Gaur, 16:30etik 20:00etara eta bihar, berriz, 10:00etatik 20:00etara, etenik gabe. Honako saltoki hauek hartuko dute parte: BC, Bea Lentzeria, Beinke, Ennea, Errekamendi, Garraxi, Gili-Gili, Intersport Loramendi, Itxaso, Josle, Kapikua, Kili-Kolo, Luko, Maitia, Markiegi, Pro-

mise, Resusta Karrikiri, Sikol, Tamayo, Troko, Txuri-Beltz, Ume eta Zubia.

Beherapenez gain, musika onaz gozatzeko aukera ere egongo da asteburuan. Izan ere, gaur, egubakoitza, Iker Piris Triok emaldia egungo du Herriko Plazan, 19:00etan hasita, Kajoi tabernarekin elkarlanean antolatuta. Bihar, zapatua, berriz, Elen's River Dixieland Band taldeak girotuko ditu Arrasateko kaleak, 18:30ean plazaatik abiatuko den kalejirarekin.

Nutrizioari eta adinekoen osasunari buruzko saioa, 24an

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, Arrasateko Udalaren eta La Caixaren laguntzarekin, *Nutrizioa eta osasuna adinekoen* hitzaldia egingo du Amaia Diaz de Monasterioren nutrizionista, dietista eta *coach* oñatiarrak otsailaren 24an, eguna, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean hasita. "Herritar guztiak gonbidatzen ditugu saiora".

Xarabeak izango dira protagonista bertako produktuen azokan

Bihar, zapatua, egingo dute azoka, 09:00etatik 14:00etara, Seber Altuben. Bertako produktuez gain, xarabeak egiteko ikastaroa egingo dute, produktu naturalak etxean egin eta osasuna era naturalean zaintzen ikasi nahi duen edonorentzat, 11:00etatik 12:00etara. Parte hartzeko, aurrez eman behar da izena, udal webgunean edo BAZen.

Kirola maitatzen jarraitu dezala, dagoen tokitik

Joxean Aranburuzabala Etxagibel, Arrasate Eskubaloia klubeko lehen presidentea, joan den astean hil zen, 67 urterekin. 'Makilak' izeneko gaztetako lagun taldearekin hauspotu zuen eskubaloia herrian, baina futbolekin eta pilotan ere arrastoa utzi zuen

Hasier Larrea ARRASATE

Fundamentuzko kirol talde orok behar du ezkutuko lana egiteko arduradunen bat, kantzatik kanpoko kontuak kudeatzeko. 1978an Arrasate Esku Baloia klub sortu berriak Joxean Aranburuzabalaren figuran ikusi zuen eginkizun hori betetzeko pertsona aproposa zela.

Izan ere, 1974ra arte, JDM kirol-erakundearen baitan zegoen egituratuta eskubaloia herri mailan, baina urte hartan desagertu egin zen eskubaloia taldea. Errautes haieetatik piztu zuten klub berriaren sugarra, kirol arloan zein arlo ekonomikoan aurrera egingo zutela sinistuta.



Joxean Aranburuzabala, 2016an, Monterron jauregiaren alboan. EDU MENDIBIL

Kluba hauspotzen

Aranburuzabalak 15 urte egin zituen klubeko presidente. Lagunartean bete zuen kargua, bere alboan izan zituelako koordinatzaile lanetan Jesus Mari Pitxi Herrero eta laguntzaile Mariano Arrieta; lehen urte haietako senior mailako jokalariek ere gertukoak zituen, *Makilak* lagunartea osatzen baitzuten askok. Denen artean eman zuten ezagutzera eskubaloia Arrasaten.

Ramon Azkarate talde horretan jokalaria ibilitakoa da, eta gogoan du Aranburuzabalak betetzen zuen rola: "Seniorretan bagenuen taldea, baina berak kadete eta gazte mailatako taldeak ere sortu nahi zituen; harrobia landu, alegia. Hor bultzada handia eman zion klubari, baina baita administrazio zein zuzendaritza lanak egiten edota Federazioarekin eta bazkideekin harremanak uztartzen", adierazi du.

Haren hasierako ekarpenek fruituak eman dituzte gerora. Aranburuzabalaren lekukoa Mariano Arrietak hartu zuen, eta 1994/95 denboraldian Lehen

maila Nazionalean jokatzera lortu zuten, besteak beste.

Kirolari lotuta beti

Kargua utzi arren, Iturripeko kantxa ez zuen abandonatu, zale amorratua zen eta. Bien bitartean, Atxabalpe futbol zelaian eta Uarkape udal pilotalekuan lan egin zuen; herri mailako futbol eta pilota munduan ere ezaguna zen, beraz. Baina kirol kazetari ere jardun zuen, *Egin* egunkarian, eta, Goienari 2016ko elkarrizketa batean adierazi zionez, Julian Retegi pilotaria eta Frantziako Tourrera joan zen lehen arrasatearra, Enrique Alonso txirrindularia, elkarrizketatu zituen, besteak beste.

Isiluneak eta berrelkartzeak

Aranburuzabalari omenaldi xumea egin zioten klubeko talde guztiek joan den asteburuan, partiduko guztiak hasi aurretik minutuko isilunea eginda. Hileta elizkizunean, bestalde, lehen urte haietako hainbat jokalaria batu ziren, eta atzo bertan afaria egin zuten denek batera, Txalaparta elkartearen, klubeko lehen presidentea gogoan izan zutela.

DEBAGOIENeko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxe: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba Ibilbidea 20, behea
Tel./Faxe: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRATIOAK

URIBESALGO ADMINISTRATIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

"Ikuskizunak egitea da gure hurrengo erronka"

ALBERTO MARTIARENA ARRASATE MAGIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Bost mago afizionatuk osatu berri duten elkarteak kide berriak erakartzea eta magiaren xarma lau haizetara zabaltzea du helburu, baita lehiaketetan aritzea ere

Hasier Larrea ARRASATE

Abenduan bataiatu zuten erakunde berria Mikel Oteiza, Jose Elorza, Remi Diosdado, Iñigo Almandoz eta Alberto Martiarenak. Elkarteko lehendakari izendatu zuten azken hori, eta egitasmoaren nondik norakoak gerturatu ditu.

Nolatan sortu zenuten elkarteak?

Orain dela bizpahiru urte batu ginen lehenengoz, elkar ezagutu gabe. Noizean behin hitzorduak antolatzen hasi ginen, afari batzuen bueltan gure arteko saio- txoak egiteko. Modu horretan hasi zen dena. Hain zuzen ere, *gauzatxoak* egitea gustuko genuen denok.

Zer dira gauzatxoak?

Joxe Elorzak, esate baterako, harategi bat zeukan, eta bezeroei trukoak egiten zizkien mostradorean. Mikelek tabernan lan egiten duenean ere berdin aritzen da. Badakizu, kartekin zein txanponekin, parean daukazuna txunditzean datza jolasa.

Eta zure kasuan, nondik datorkizu afizioa?

Nire aitag ere egiten zuen magia apur bat, bizpahiru truko, baina, egia esan, ez dakit beregandik etortzen zaidan. Nire anaiari ere gustatzen zitzaion, eta beti ibili izan gara gaztetan karta-sortarekin jolasean.



Oteiza, Martiarena eta Diosdado, martitzenean eginiko saioan. ARRASATE MAGIA ELKARTEA

Garai hartan zailagoa izango zen ikastea, ezta?

Bai, baina berezko irteten zitzagun. 15 urterekin hasiko nintzen eta orain 60 urte dauzkut. Halaxe jarraitzen dugu. Ez nuke esango autodidakta naizenik. Orain, Internetekin errazagoa da ikastea, baina lehen, liburuak zeuden. Garai hartan, Tamariz magoaren aleak astero irteten ziren, eta bertan agertzen zen liburuak non erosi eta antzeko informazioa. Ikasteko modurik onena, baina, afizio bera dutenekin batzea da.

Magoa jaiotzen den momentutik al da mago?

Esango nuke baietz. Zerbait eduki behar duzu barruan gustatzeko, eta, gero, ikasten joaten zara.

Trukoak lehenengo saiakean irten al daitezke?

Asko praktikatu behar da egiteko unean ondo irten dadin. Izan ere, gaizki irteten bada ez da helburua betetzen; hau da, jendea ez da liluritzen. Ordu asko sartu behar dira, beraz. Afarietarako beti dauzkate truko batzuk dominatzen ditudanak,

baina, gero, mugimendu berriak ere sartzea komeni da.

Zuen artean informazioa trukatzeko lagundu egingo du horretan.

Dudarik gabe. Guk gure artean ez dugu informaziorik gordetzen; nork bere espezialitatea dauka, eta denok denongandik ikasten dugu.

Ze aspirazio daukazue esku artean elkarte bezala?

Espainiako Magia Federazioko kide izateko eskaera egin dugu. Modu horretan, Europako herrialdeetan antolatzen diren lehiaketetan parte har dezakegu.

Nola izan zenuten horren berri?

Urtero Gasteizen egiten den kongresu magiko batean du oinarria: Magialdian, hain zuzen. Bertan ikuskizunak egiten dira publiko zabalarendako, eta, gero, magoei zuzendutako konferentziak daude. Mundo osoko magoek parte hartzen dute, teknika eta joera berriak erakusteko. Ahal izanez gero, urtero joaten gara, gauza asko ikasten baitira Magialdian. Iaz pertsona batekin elkartu ginen, Espainiako Magia Elkartearen presidentearekin. Berak galde-tu zigun ea nola jarduten genuen, eta guk gure kabuz aritzen girela erantzun genion. Orduan, gomendatu zigun elkarte bat osatu eta Federazioan sartzeko. Izan ere, modu horretan baino ez dago aukera lehiaketetan parte hartzeko; beraz, magoren batek halakoetara aurkeztu nahi badu, elkarteren batean egon behar du izena emanda. Kasu egin genion, eta halaxe sortu genuen elkarteak.

Egin al duzue publiko aurreko ikuskizunen bat?

Koronabirusaren aurretik, Musakolako Ogiberri kafetegian pare bat saio egin genituen, bi urtez jarraian. Han aritu ginen

lauzpabost mago mahaian eserita zeudenekin trukoak egiten.

Eta hemendik aurrera, egingo al dituzue gehiago?

Hori da asmoa. Ezaugarri haue-tako elkarte bat eratzeak halako kontuak antolatu nahi izatea dakar; orain, jendearengana nola hurbildu pentsatzea tokatzen zaigu. Egoera epidemiologikoa hobetzen den heinean, jarriko gara ekitaldi konkretuak programatzen.

Bost mago zarete, momentuz. Familia handitzeko asmorik bai?

Bai, noski. Zaletasun hau zabaldu nahi dugu, bai Arrasaten eta baita inguruko herrietan. Ea gure egoera berean dauden beste batzuk erakartzen ditugun, orain bost baikara, baina, kontuan hartuta gutako bat Gasteizen bizi dela, elkarteak ez zaigu hain erraza egiten. Zortzi edo hamar partaide izatea lortzen badugu, albiste pozgarria izango da, denok edukiko genuke-lako ikasteko aukera gehiago.

Arrasate Magia Elkartearen sartu nahi duenak, beraz, zer egin behar du?

Helbide elektroniko honetara idatzi: mondramagic@gmail.com. Interesa erakusten duen ororekin jarriko gara harremanetan. Geure burua ezagutzera eman genuenetik, jaso ditugu lauzpabost mezu inguru. Magoon artean komunikazioa sustatzeko beharra dago, askotan familia giroan garatzen delako jarduera hau; ondorioz, zaila da magia praktikatzeko duen jendea ezagutzea. Baina egon badago.

"MAGOA IZATEN IKASI EGITEN DA, BAINA JAIOTZETIK EDUKI BEHAR DUZU BARRUAN ZERBAIT"

Oi! kontzertu indartsua egingo dute gaztetxean bihar gauean

Kaleko Urdangak, Oldarkor eta Harry May musika taldeak igoko dira zapatuan oholtzara, 22:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Jarrera eta jardun handia erakutsi izan duten hiru oi! taldek bat egingo dute zapatuan, hilak 19. Talde bakoitza bere etxekoa da, Oldarkor Debatik, Kaleko Urdangak Bergaratik eta Harry

May Galiziatik datoz-eta, baina, egunerokoan bizi dutena kontatzen dutenez, antzekotasunak sumatu daitezke euren musikan. Argitaratu dituzten azken lanei erreparatu besterik ez dago: Oldarkorren *Ezpata hotsak*, Ka-

leko Urdangen *Bizirik* eta Harry Mayren lehen EPko kantuek kaleko doinuak islatzen dituzte bete-betean.

Oldarkorren agurra

Debarrek asteon jakinarazi dute Arrasatekoa euren bederatzi urteko ibilbideko azken kontzertua izango dela; emanaldiak agur kutsua ere izango du, beraz. Antolatzaileek ate-irekiera ordubete lehenago, 21:00etan, egingo dute, eta sarrerak 5 euro balioko du.

Otsaileko ostegunak amaitzeko, Small Jackets italiarrak

70eko hamarkadatik aurrera sortutako rock talde mitikoak –Led Zeppelin, Deep Purple, The Rolling Stones, AC/DC, Thin Lizzy...– gogora ekartzen dituen Small Jackets taldeak borobilduko du Koolturren otsaileko egitaraua. Italiarrek, beraz, atzo Dupla bikoteak gaztetxean utzitako lekukoa hartuko dute datorren egunean, hilak 24,

22:00etan hasita. 2004an hasi ziren ezagun egiten *Play at high level* izeneko lehen diskoarekin, eta, formazioak aldaketak jasan baditu ere, berezko nortasun eta soinu landuari eutsi diote orain arte. Horren erakusle dira 2006ko *Walking the Boogie*, 2009ko *Cheap Tequila*, 2013ko *IV* eta iaz bertan kaleratutako *Just Like This* diskoak. Rock-and-rolla maite duenak gustura entzungo ditu lanok, baina taldearen indargunea, ezbairik gabe, zuze-nekoetan dago.

goiena telebistak 10.000 ikusle egunero. eskerrik asko!

GOIENA TELEBISTAK 10.000 IKUSLE EGUNERO. ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2021 (Gigadokor diagnostiko datuak)

goiena
Zu hemen zaude.

"Txartela ia denerako izango da ezinbestekoa"

IRATI MUJIKA ARBELEKO LANGILEA

Amezketarra Arbel kooperatibako biltegiaz eta dendaz arduratzen da azkeneko urteetan. Ortuko produktu fitosanitarioen txartela ateratzeko ikastaroa antolatu dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

25 orduko ikastaroa eskainiko dute martxo hasieran. Arbeleko bazkideek prezio berezia izango dute. Informazio gehiagorako, 945 44 51 19 zenbakira deitu behar da.

Fitosanitarioak erabiltzeko txartela eskuratzeko aukera egongo da Arbelen.

Oinarritzko ikastaroa egiteko aukera egongo da, ondoren fitosanitarioak erosi eta erabili ahal izateko. Izan ere, gaur egun, ia produktu gehienetan ezinbestekoa da txartela izatea. Formakuntza saioaren amaieran txartel fisikoa eskuratu da, beharrezkoa denean aurkeztu eta produktuak eskuratu ahal izateko.

Legearen arabera, beharrezkoa da produktu horiek erosteko txartela izatea?

Bai; legea aspaldikoa da, baina kontua da azkenaldian asko zorroztu dela, eta, ondorioz, nahiz eta lau gauza bakarrik gura izan, ziurrenik, lau gauza horietarako txartela edukitzea ezinbesteko izango da. Batzuetan, pentsatzen dugu profesionali lotutako zerbitzu dela, baina geroz eta estuago dago: patenteak direla, erregistroak direla... ezinbestekoa izango da txartela, etxeko ortutxorako izan arren.

Nolako produktu etarako eskatuko dute txartela?

Esaterako, oso ezaguna den *Bacillus thuringiensis* intsektizida biologikorako, nekazaritza ekologikoak onartutakoa dena; askotan, pentsatzen dugu ez dela hain kaltegarria, baina hau erosteko ezinbestekoa da txartela izatea. Horrez gain, beste-lako herbizida edo belar-pozoi eta produktu indartsu edo arriskutsuagoak direnak erosteko, zalan-tza gabe.

Noiz izango da ikastaroa?

Martxoaren 1ean, 2an, 3an, 8an eta 9an izango da, bost egunez, eta egun bakoitzean bost ordu,



Irati Mujika, eskuetan produktu fitosanitarioak dituela. A.E.G.

"PENTSATZEN DUGU PROFESIONALENTZAT DELA, BAINA ETXETIKO ORTUTXORAKO ERE BEHAR DA"

15:00etatik 20:00etara. 25 orduko oinarritzko ikastaroa izango da. Orain dela urte batzuk ere etorri ziren eta oraingoan ere homologatuta dauden edukiak eta formakuntza eskaintzera etorriko dira. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango dira saioak. Aramaiokoei zuzenduta dago, baina bailarako jendeari ere zabalik dago. Aukera ona da udaberria ate joka dugun honetan: ortuak, patata eta bestelakoak prestatzen ari garen honetan, txartela eskuratzeko, ondorengoak ondo egiteko.

Arbel kooperatibarendako garrantzitsua da baserritarren beharrei erantzutea?

Bere garaian, Arbel baserritarrek sortu zuten euren beharrei erantzuteko; eta orain ere, bide horretan jarraitzeko, biltegia edukitzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu baserritarrek eta

herritarrek dituzten beharrei erantzutea eta zerbitzu hau eskaintzea. Ikuspegi horretatik dator. Duela lau urte inguru, formakuntza bera eskaini genuen, eta, orain, gauzak estutzen ari direnez, uste dugu garrantzitsua dela berriro ere eskaintzea.

Nolako produktuak daude Arbelen?

Orain dela 40 urte, behar nagusia zen pentsua egitea; orain dela bost urte, eskaintza zabalteko apustua egin zen; eta orain, hemen ikusten dugun denda hau dugu. Jarraitzen dugu pentsua saltzen, eta etxetara eta baserrietara banatzen; horrez gain, burdindegia, itxiturak egiteko tresnak eta beste hainbat gauza ditugu. Garaian garaiko gauza bereziak baita ere: fruta-arbolak, txorizoak egiteko behar den guztia, orain patata kontuak... Sasoi bakoitzean lan ezberdinak egoten direnez, produktu ezberdinak eskaintzen ditugu.

Fruta-arboletan, zein da gehien saltzen dena?

Hurritzak, kiwiak, sagarrak gaztainak... eta baita fruta txikien zuhaixkak ere. Horiek, adibidez, begietatik ondo sartzen dira, eta jateko gogoa sortzen dutenez ondo saltzen dira.



Elizburu, Altuna, Amezkoa, Agirre, Mondragon eta Uriarte. A.E.G.

Gipuzkoako azkena eta Arabako lehena korrika egiteko eskaera

Aramaiok bi kilometro ofizial izatea da batzordearen proposamena; martxoaren 2an elkartuko dira berriro

A.E.G. ARAMAIO

Korrika batzordea osatzeko lehenengo bilera irekia egin zuten eguaztenean, udaletxean. Debagoieneko AEK-ko arduradun Oskar Elizburu izan zen batzarraren; baita udal ordezkariak eta eskolako zuzendaria ere.

Aurten, Korrika ez da Aramaiotik pasako. Hala ere, Korrikari laguntzeko zenbait bide azaldu zituen Elizburuk: Korrika laguntzaile egitea -Interneten dagoen dokumentua beteta- eta taberna eta komertzioei bideratutako Korrikalagun figura ere azaldu zuen.

Kilometro ofiziala

Apirilaren 1ean pasako da Korrika Debagoienean: Bergaratik Gatzagarako bidea egingo du. Hala, proposamena izan zen Aramaiok Gipuzkoako azkeneko kilometroa eta Arabako lehenengo kilometroa egitea.

Korrika Txikiak eta Korrika Kulturalaz ere aritu ziren. Hainbat proposamen irten ziren, eta horiek aztertuko dituzte. Hain zuzen, hurrengo bilera irekia martxoaren 2an egingo dute. Martxoaren 4an, barikua, Korrikako arropa-postua jarriko dute Aramaion.

GORA ETA BEHERA



Tirolina berriarekin gustura daude

Irakurle batek "poza" adierazi du parkean jarri duten tirolinaren harira. Umeek eta gazteek "ondo pasatzeko" eta jolaserako modu bat gehiago izango dutela dio. Tirolina jartzeko eskaera eskolatik bideratu zuten. 7.405,20 euroko kostua izan du hura jartzeak, BEZa barne.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.





Trikiti ikasleak Musika Etxeko entsegu gelan. A.E.G.

'Mamma mia' jaialdia prestatzen dihardute

Otsailaren 25ean, 18:00etan, triki-panderoko Inauterietako ikuskizuna egingo dute kultura etxean. Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte, Musika Etxean, eta martxa onean ari dira saltzen; gaur ere sarrerak erosteko aukera egongo da, 3 eurotan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Trikikalejira trikiti elkarteak aratusteetako jaialdia egingo du otsailaren 25ean. Urteroko hitzordua izan ohi da trikitizaleena; oraingoan, baina, Gabon ingurutik atera eta Aratustee-tara pasatzea erabaki dute. *Mamma mia!* izango da jaialdiaren izena eta gaia.

Musikariak moztortuko dira Suediako Abba musika talde entzutetsuko kidez; hau da, 70eko hamarkadako garaia eramango dute Aramaio kultura etxeko oholtzara. Abba taldeak 1972an hasi zuen ibilbidea, eta 1982ko abenduan amaitu. Ibilbidean zehar izandako arrakasta nabarmenena 1974an Eurovision irabazi izana da, *Waterloo* abestiarekin.

Trikiti doinuak

"Trikiti jaialdia izango da, eta, ondorioz, trikiti abestiak entzungo dira egubakoitzeko jaialdian; hala ere, azken abestia Abbaren *Mamma mia* izango

da", azaldu du Aramaio kultura etxeko Aritz Alustizak. Garai bateko trikiti doinuetatik hasi eta gaur egungo talde ezagunen abestiak joko dituzte musikariak. "Tapia eta Leturia, Huntza... Halako taldeen abestiak joko ditugu", dio Alustizak. Azaldu du oholtza gainean 40 bat musikari ibiliko direla, adin guztietakoak: "Trikitia ikasten umeak dabilta, eta baita erretiratuak ere". Taldeetan banatuta igoko dira musikariak oholtzara.

Eskolak, barikuetan

Aritz Alustiza -trikitia- eta Ainhoa Ullibarriarana -panderoa- dira irakasleak. Barikuetan ematen dituzte eskolak Aramaio kultura etxean. "Ostiralero-ostiraleko eskolak ematen gabiltza, eta horrelako plaza bat eta, gainera, aretoa beteta baldin badago, ba, astero egiten duguna erakusteko modua da", dio Alustizak. Gaineratu du ikasleak oso onak direla eta egiten dizkieten proposamen guztiei baiezkoarekin erantzuten dietela. "Aramaio herri oso parte-hartzailea da", nabarmendu du.

**TRIKITI ABESTIAK
JOKO DITUZTE, BAINA
AZKEN ABESTIA
ABBAREN 'MAMMA
MIA' IZANGO DA**

dituzte eskolak Aramaio kultura etxean. "Ostiralero-ostiraleko eskolak ematen gabiltza, eta horrelako plaza bat eta, gainera, aretoa beteta baldin badago, ba, astero egiten duguna erakusteko modua da", dio Alustizak. Gaineratu du ikasleak oso onak direla eta egiten dizkieten proposamen guztiei baiezkoarekin erantzuten dietela. "Aramaio herri oso parte-hartzailea da", nabarmendu du.

Sarrerak salgai dituzte

Elkarteko zuzendaritzan dauden gurasoak dabilta barikuko jaialdiko atrezzoak sortzen. Otsailaren 25eko jaialdirako sarrerak dagoeneko salgai daude: "Joan den asteko barikuan jarri genituen salgai eta oso ondo saldu ziren". Gaur, otsailak 18, sarrerak erosteko beste aukera bat egongo da Musika Etxean, 3 euroren truke. Gainera, sarre-rik geratuko balitz, egunean bertan kultura etxean erosteko aukera egongo litzateke.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Etiketak

Etiketak. Kamiseta batek sei-zazpi dauzka, galleta paketeak bat edo bi, gutxienez... Pertsonak ere dauzkagu: itxurak, gorputzak, jatorriak edo pentsamoldearen arabera ezartzen dizkiegunak elkarri. Belaunaldiek ere bai: *boomer*, *millenial*, *z* belaunaldia....

Etiketek kaxoi desberdinetan sartzen gaituzte, eta, askotan, kaxoi horietan ezaugarri negatiboak soilik daude, gure "osotasuna" horrela definituz.

Azken boladan, etiketa berri bat dabil dantzan: kristalezko belaunaldia. Hauskorak omen gara. Ez dakit zerk ematen didan amorru gehiago, etiketak edo kristalari ematen zaion konnotazioak. Hauskorra? Igual, baina baita gardeneta eta zorrotza ere.

Hauskorra izateak ez du esan nahi materiala ahula denik, arrakalak ikusi eta onartzeko intentzioa dagoela baizik. Eta, hala ere, hauskortasunera murrizten gara.

Konturatu gabe hauskortasunak berak inguratzen gaituela eta zeharka begiratzeko gai garela. En fin, etiketak.

Zabalik dago moztortxo lehiaketan izena emateko epea

Otsailaren 26an, zapatua, ospatuko dituzte Inauteriak Aramaion. Hala, dagoeneko zabalik dago moztortxo lehiaketan izena emateko epea. Otsailaren 25era arte egongo da horretarako. Online dagoen eskuorria bete eta kultura etxean entregatu behar da; eta egunean bertan entregatzeko aukera ere egongo da. Zapatuan 17:30ean hasiko dute kalejira, frontoitik, eta 18:00etan moztortxo lehiaketa egingo dute plazan. Moztortxo lehiaketaren gaia librea izango da eta bakarka edo taldeka -lau lagun, gutxienez- parte hartzeko aukera egongo da. Haurren saria, 14 urtetik gorakoena eta originalena sarituko dituzte.

Airearen CO2 kopurua neurtzeko gailua jarri dute kiroldegian

Gimnasioko horman, airearen CO2 kopurua neurtzeko gailu bat jarri dute. COVIDaren eraginez hartutako neurria da; baina, horrez gain, gimnasioko erabiltzaileen erosotasuna ziurtatu nahi dutela nabarmendu dute udal arduradunek.

Neurgailu horrekin, gimnasioko airearen kalitatea ona dela bermatu nahi da. Hain zuzen, 1.000tik gorako ppm datua markatzen duenean, erabiltzaileendako giro desegokia dagoela zehazten du; hortaz, gela aireztatu beharra dagoela adierazten du. Gimnasiokoaz gain, kultura etxean, liburutegian eta ludotekan ere erabiltzen dira antzerako aparatuak.

Gurasolagun taldea Santikurtzera joango da domekan

Etzi, domeka, egingo du Gorbeialdeko Gurasolagun taldeak hileko irteera. Oraingo honetan, Aramaion izango da ibilaldia. Hain zuzen, Santikurtzera ibilaldia egingo dute. 10:30ean elkartuko dira, San Kristobalگو aparkalekuan -Kruzetatik Oletarako bidean-. Aparkalekutik irtenda Santikurtzera igoko dira familiak.

Gorbeialdeko Gurasolagun taldea Mintzalagun ekimenaren barruan sortutako taldea da. Euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzea da asmoa, baina bereizgarri batekin: familian egiten diren saioak dira; hau da, gurasoak eta umeak elkartzen dira mendi ibilaldi bat egin eta familian euskaraz egun bat pasatzeko asmoarekin. Hilean behin egiten dituzte mendi ibilaldiak. Informazio gehiago: 650 26 67 44 zenbakian eta gorbeialdea@mintzalaguna.org helbidean.



Gurasoek eta umeek osatutako kuadrilla handia mozorrotuta. IBAI ZANGITU



Txino dantza 1998an jaiotako kintoen eskutik. IMANOL SORIANO



Aurtengo Aratuste egitarauaren aurkezpena. MIRARI ALTUBE



23F+3 ekimenekoak estatu kolpea ematen. IBAI ZANGITU

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko jairik gustukoena zeintzuk diren galdetuta, aretxabaletar askoren erantzuna hau da: Aratusteak. Egun bakarreko ospakizuna da, baina "sekulako" ospakizuna. Horregatik, ia ezin ospatu izanak tristura eragin zien askori. Aurtengo, baina, bai, Udalak antolatzearen aldeko apustua egin du, Unai Elkoro alkateak adierazitako legez: "Azken bi urte gogorren ondoren, emozioak sortzen uzteko eta hainbeste behar ditugun Aratusteak bizitzeko unea da". Eta gaineratu du, betiere, "zuhurtziaz jokatuta".

Oier Zuñiga artistak egindako irudiak –kartel lehiaketaren irabazlea– emango du egitarauaren berri. Pandemia egoerara moldatu dute hori, eta, horregatik, herri bazkaririk ez da izango. Baina gainerako ekitaldi gehienei eutsi diete; bereziki, egunaren ardatz den kuadrillen desfileari.

Txino dantzari eusten

Txino dantzarekin harreman estua dute Aretxabaletake Aratusteak. Dantzaren jatorria ez da ezagutzen, ezta esanahia ere, baina jakinekoea da XX. mendearen hasieran egiten zela. Gerra zibilak bertan behera uztera behartu zituen dantzariak; handik urte batzuetara, 1967an, hasi ziren herriar batzuk ohitura berreskuratzeko lanean. Juan Jose Gartziaetxabek pausoak eta janzkera moldatu zituen; Demetrio

Mozorrotzeko grina: familian jasotako harra, kuadrilletan borobilduta

Pandemia sasoiara egokitutako Aratuste egitaraua gertatu dute Udalak eta Atxabaltako Karnabalen Lagunak taldeak, beste hainbat eragilarekin batera; horren berri ematera etorriko da bihar Txapel Txin baita herritarrei mozorrotzeko dei berezia egitera ere

Iriarte txistulariak, musika; eta Ramon Erañak, hitzak itzuli. Izan ere, gerra aurreko koplak gazte-leraz abesten zituzten. 1934. urtera arte, kintoek dantzatzeko zuten, baina, berreskuratu ondoren, dantza taldearen esku geratu zen hainbat urtez. 1998an sartu ziren lehenengoz neskak talde horretan, eta orduetik dantzatzeko dute neska-mutilek elkarrekin. Ohitura ez zedin galdu, kintoei eman zitzaizkien horren ardura, eta aurtengo, 2003an jaiotako hamabi lagunak girotuko dituzte kaleak.

Kukumarroetatik karrozetara

Francoren diktaduraren ostean berreskuratu ziren Aratusteak. Hasierako urteetan, edozein trupu zaharrekin jantzen ziren herriarrek, kukumarro jantzi ere. Eta ondoren, poliki-poliki, mozorrotzen hasi ziren. Inma Miguel Kultura teknikariak go-

goan du 1986an herriar gutxi batzuk mozorrotu zirela; fundamente gutxiarekin, gainera: "Hurrengo urtean askoz gehiago animatu ziren, eta handik aurrera gora eta gora egin zuen kopuruak".

Mozorrotzeko ohitura etxean jaso dute aretxabaletar gehienek. Izan ere, familian jantzi izan dira umetan. Hori berretsi du Ibai Zangituk, Aretxabaletake jaiaren arima denak: "Gurasoekin hasi ginen gu, nik 7 bat urte nituela, 1994 inguruan", eta gaineratu du: "Umeon bueltan gurasoak ere elkartu ziren gero, eta haiek ere kuadrillan mozorrotzen hasi".

Urtetik urtera mozorro ikusgarriagoak sortzen joan ziren kuadrillak, eta motor hotsez eta gasolina usainez kaleak betetzen zituzten ibilgailuak gero eta gehiago ziren. Horrek desfile

baten beharra utzi zuen agerian: "Hasieran era kaotikoan irteten ziren kuadrillak; alde batetik ibilgailu batek, beste batetik kamioi batek, eta sarritan ezin pasatu ere geratzen ziren kaleetan. Horregatik, hori arautzea erabaki zen".

2006ko Aratusteak mugarri izan ziren. Mozorro festan zeresan handia zuten hainbat kuadrillak beste bueltatxo bat eman nahi izan zioten jaiari, eta, hila-beteetan lanean jardun ondoren, proposamen batzuk aurkeztu zituzten udal ordezkariak. Haiengandik, baina, ez zuten

2006KO ARATUSTEAK MUGARRI IZAN ZIREN, ETA ORDUAN SORTU ZEN KARNABALEN LAGUNAK TALDEA


oniritzirik jaso, eta hori agerian uzteko, aldarrikapen ekitaldia egin zuten Aratuste-domekan: "23F+3 ekimena izenpean estatu kolpea egin genuen, besteak beste, Udalak ez zigulako lokalik eman mozorroak gertatzeko. Herri bazkaria, oster, bai, hori egin zen eta 600 bat lagunek bazkaldu genuen kiroldegian, lehenengoz". Kuadrillen arteko elkarlan hori izan zen Atxabaltako Karnabalen Lagunak taldearen lehen zimentarria, eta, geroztik, Udalarekin elkarlanean jarduten du. Talde horrek hurrengo urtean lortu zuen karrozak gertatzeko lokala, eta, orduetik, urtero jartzen du herritarren eskura Udalak. Eta kuadrillak saiatzen dira buruari eragin, irudimena martxan jarri eta mozorro ikusgarriak gertatzen; horren adibide dira, besteak beste, Lehoi Erregea, UDAkoen Vietnamgo gerra, *Corriendo* eta eski gunea.

Txapel Txin, giroa piztera

Atxabaltako Karnabalen Lagunak izenpean elkartutako Azpigarri, Zelabaixota, Moñordak eta K23 kuadrillen ekimenez Txapel Txin eguna sortu zen 2008an. "Joselu Gonzalezi sartu zitzaion buruan Aratuste aurreko asteburuan zerbait egin beharra zegoela giroa pizteko", dio Zangituk. Txino dantzari erreferentzia eginez hautatu zuten izena, eta, dantzariak legez, txapelen bat jantzita irteteko dei egin zieten herritarrei. Lehenengo urtean, baina, ez zen pertsonaiarik izan: "Neu irten nintzen txaketa arrosa bat eta betaurreko batzuk jantzita, eta pregoia eman nuen". Hurrengo urtean, Zelabaixota kuadrillakoek Txapel Txin sortu zuten: goma-aparrarekin egindako buru berde-berdea. Eta handik hiru bat urtera, gaur egungoa ekarri zuten. Ondoren, Txin-txin umea ere etorri da, baina aurtengo "konfinatuta" utziko dutela jakinarazi du Zangituk.


Bihar, hain zuzen ere, ospatuko da Txapel Txin eguna: "Egitarau xumea da, baina ilusio handiarekin gertatutakoa". Has-teko, kalejira egingo dute hurrek

'AZPIGARRI' KUADRILLAKOEK SUSTATUTA SORTU ZUTEN TXAPEL TXIN EGUNA, 2008AN



MARI KARMEN ETXEANDIA

"Kuadrillako gutxi batzuk mozorrotuko gara eta desfilean ez dugu hartuko parte; izan ere, ez dugu astirik izan behar den moduan prestatzeko mozorroa. Dena den, saiatuko gara kaleak girotzen. Ia 40 urte daramatzagu Aratusteetan parte hartzen, hasieratik, eta ezer ez egiteak pena handia emango liguke.



LOURDES QUINTANILLA

"Senarra eta biok bakarrik mozorrotuko gara, gurekin irten izan den bikotea ez da animatu eta. Familian hasi ginen mozorrotzen orain dela urte mordoa; gure amak ere gustuko zuen eta seme-alabak ume zirenetik jantzi gara. Desfilean irteten, oster, 2010ean hasi ginen; aurten, ikusi egin behar".



JOSELU GONZALEZ

"Ez dakigu mozorrotuko garen; Txapel Txin egunean afaria dugu eta orduan erabakiko dugu. Hain zuzen ere, 2008an jardun genuen Txapel Txin eguna sortzeko lanetan, eta ni neu ere orduan hasi nintzen desfilean parte hartzen; gogoan dut marinela jantzi ginela, itsasontzi eta guzti".



MIKEL ALBERDI

"Galdetzea ere mozorrotuko garen! 14 bat urterekin hasi ginen lagunok, baina karrozarekin, serio, kinto izan ostean. Arlutz taberna inguruko hiru kuadrilla elkartzen gara, eta horrela, zerbait handiagoa egiteko aukera daukagu. Aurten, benetan gogotsu gaude ospakizunari ekiteko".

eta familiekin erraldoi eta gaite-roekin (12:00), eta ondoren irtengo da Txapel Txin, *Mangera party* eskaintzeko. Iluntzean, Orkresta elektrotarangak girotuko ditu kaleak eta mozorrotu-jaien pertsonaiak pregoia egingo du herriko hainbat gunetan (18:30). Bukatzeko, Arrasateko Banana Shake taldearen kontzertua izango da Mitarte kalean (20:30).

Atzetik datorren harrobia

Urtebeteko loaldiaren ondoren zelako jaia ote dator? Udalak eskaintako lokala erabiltzeko giltza sei bat kuadrillak hartu dute; ez dira asko, baina herri-tarrak azken orduan animatzen direla beti dio Miguel Kultura teknikariak. Desfilean ohiko izan diren zenbaitek oraindik ez dute erabaki zer egin. Baina, era berean, kuadrilla gazteak gogotsu datoz atzetik leku eske. Horre-

gatik, harrobia badagoela uste du Zangituk: "2020an bultzadako bat izan zuen jaiak. Bazkari *gol-foa* antolatu genuen, eta horren eraginez gazteak gehiago inplikatu ziren". Orain, urtebeteko geldialdiaren ostean, berriz hasi beharra dagoela dio: "Martxan jartze hori ez dakit zelakoa izango den. Izan ditugun bileretan sumatu dut jendea gogotsu dagoela; hainbat kuadrillatako hamar bat lagun elkartu gara eta antolatze lanetarako ere erreleboa badagoela esango nuke".

Dena den, Aratusteak are gehiago indartu daitezkeela uste du: "Tarteka astindutxo bat ematea ondo dator, indarra ez galtzeko". 2022koa, osasun egoerak baldintzatu du, baina hurrengorako proposamenak jasota dituzte: "Kuadrillei sariak eman beharrean karrozak gertatzeko dirulaguntzak ematea, adibidez,

Tolosan bezala". Horregatik guztiagatik datorren urtea erabakigarria izango dela dio.

Agurra, martitzenean

Aratuste-martitzena ikastetxeetako neska-mutikoen eguna izaten da, baita merkatariena ere. Eguerdian saltokiak itxi, mozorrotu eta bazkaltzera joaten dira horiek. Azken urteotan, baina, behera egin du ohitura horrek eta gutxi batzuk elkartu izan dira. Iluntzean, Txinen hiletarekin, esaten diote agur jaiari herriarrek. Hain zuzen ere, 1987an egin zen lehenengoz Txinen hileta: "Aratuste jaiei bukaera emateko zerbait falta zela uste zen. Eta txino dantzarekin lotura eginez asmatu zen", azaldu du Miguel teknikariak. Horren ardura kintoek dute, eta horrekin, Santa Agedaren bueltako jaia ere agurtzen dute.

Egitaraua

Otsailak 25

- **18:00** Egubakoitz Argal jaia musika eskolako eskutik, kiroldegian.

Otsailak 26

- **12:30** Bola-txapelketa; bolatokiaren berrinaugurazioa.

Otsailak 27

- **10:00** Diana txistulariekin.
- **11:45** Txino dantza.
- **12:00** Kuadrillen desfilea.
- **13:00** Kalejira Gesaltza txarangarekin.
- **17:00** Bixi gunea nerabeendako: zezen mekanikoa, quad zirkuitua eta *bubble balls* lehiaketa. Kurtzebarri eskolako kantxan.
- **17:30** Kalejira txarangarekin.
- **18:00** DJa plazan.
- **18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa.
- **19:00** Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.

Martxoak 1

- **10:30** Txino dantza 5 urteko neska-mutikoen eskutik, plazan.
- **20:00** Txinen hileta.

Zuhaitzak landatzera gonbidatu dituzte herritarrek domekan

Udalak eta UDAk elkarrekin antolatu dute Zuhaitz Eguna eta Ojala Zelain eta Ibarra inguruan landatuko dituzte

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkartearen 75. urteurrenaren Zuhaitz Eguna erekin egin du bat, eta, Udalarekin eskutik, hamabost zuhaitz landatuko dituzte domekan. Herriko bi gunetan izango da landaketa, Ojala Zelain eta Ibarra futbol zelai inguruan; jardun horretara, futbol eskolako neska-mutikoez gain, herritar guztiak gonbidatu dituzte. 10:00etan abiatuko dira futbol zelaitik Ojala Zelaira, eta, hango lanak bukatutakoan, Ibarrara itzuli eta gainerakoei ekingo diete.

Hamabi landatuko dituzte futbol zelai inguruan: likidanbar espezieko bederatzi kimu, urki bat eta aligustre bat. Baita haritz bat ere sarreran, 16-18 zentimetro inguruko zirkunferentzia-duna; berezia izango da hori, urteurrenari egingo diolako keinu.

Aozaratzako zelai ezagunean, oster, beste hiru haritz egingo diete lekua. Horrela, usteldutako batzuk ordezkatzeko dituzte, bertako basoak iraun dezan. Lanak bukatutakoan, mokadutxo eskainiko diete elkartutakoei.

Martxoaren 8a gertatzen hasi da emakume taldetxo bat

Emakumeen Nazioarteko Eguna begira jarri da Aretxabaletako Mugimendu Feminista, eta hori antolatzeko lehen bileran astean egin du. Hamabi bat emakume elkartu ziren eta erabaki zuten zaintza jarriko dutela aldarrikapen erdigunean. Martxoaren 8an hainbat galdi-gune izango dituen manifestazioa egitea ere erabaki dute, baina oraindik zehazteko dituzte beste hainbat kontu.

Hurrengo bilera martitzenean izango da, hilaren 22an, Arkupen (18:30). Eta ateak zabalik dauzkate herriko edozein emakumerendako: "Etorri lasai, guztion artean M8 errazago egingo dugu eta!".

Kortaburu eta Gorordo inguruak ezagutzeko ibilaldia

Loramendi elkarteak Toponimia taldeko kideek hamabigarren eta azken ibilaldia egingo dute bihar, zapatua. Urkulu urtegitik abiatu eta Oñati aldera inguratuko dira, hain zuzen ere, Kortaburu, Arriurdiñeta, Txurleku, Gorordo eta Urrexolagaraitik pasatutako zirkuitua osatuz. Kontu-kontari joango dira, gainera, erlezainen, mairuen eta leinuen arteko borroken istorioen berri emanaz.

Zortzi kilometro eta erdiko ibilbidea da eta lau bat orduko goiz-pasa izango dela aurreratu dute antolatzaileek. 09:00etan abiatuko dira, Urkulu urtegiko hormatik –autoz doana, 08:45ean, Otalako aparkalekuan–.

Jou Díaz

Karakina

Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Abian da HAP0 prozesua zehazteko bigarren fasea

Aretxabaletako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren lanketa aurrera doa, eta bi aste iraungo duen bigarren faseari ekin diote asteon. Inkesta bat betetzeko eskatuko diete herritarrei —online—, eta, horretaz gain, aurrez aurreko bi saio ere egingo dituzte

Jone Olabarria ARETXABALETA

Iazko azaroaren 15etik abenduaren 3ra bitartean egindako saioetan diagnostikoa zehaztu zen, eta handik ateratako alternatibak, irizpideak eta helburuak landuko dituzte orain, HAP0ren bigarren fasean, herritarrekin batera. Bi aste iraungo du fase horrek, eta parte hartzeko hainbat bide jarriko dituzte herritarren eskura. Gaurtik otsailaren 27ra bitartean inkesta bat bete ahal izango da, online, www.hapo-aretxabaleta.eus webgunean.

Bi saio, Arkupen

Aurrez aurreko bi saio ere egingo dituzte datozen asteetan. Lehenengo bilera otsailaren 22an izango da eta hainbat gai jorratuko dituzte; besteak beste, natura-ingurunea, mugikortasuna eta etxebizitza. Bigarrenengan, hilaren 24an, ekipamenduak eta espazio publikoak izango dira ardatz nagusi. Bi bilerak Arkupen egingo dira, 18:00etatik 19:30era.

Herritarren inplikazioarekin

Horiez gain, saio espezifikoak ere egingo dituzte hainbat talderekin: ikastetxeekin, haurrekin, gazteekin, Udaleko teknikariek... Gainera, landa auzotako alkateei eta herrian kokatutako zenbait sektoretako jarduera ekonomikoari galdetegi bat bidaliko diete.

Nahi dugun Atxabalta da HAP0 idazteko prozesuaren leloa eta Aretxabaletako etorkizun urbanistikokoaren diseinua herritarren inplikazioarekin egin nahi du Udalak.

450 herritarren parte-hartzea

Egindako lehenengo fasean, diagnostiko-fasean, 450 herritarrek parte hartu zuten: 287k online galdetegi bat bete eta 163k antolatutako saioetan. Parte-hartzaile horietatik, %54 emakumeak izan ziren. Udalak eta prozesua



Lehen fasean, guztira, 450 herritarrek hartu zuten parte; horietatik 278k, online. A.U.

OTSAILAREN 22AN ETA 24AN EGINGO DITUZTE AURREZ AURREKO BI BILERAK ARKUPEN

dinamizatzen ari den den Lur Studio enpresak "oso positibotzat" jo dute parte-hartze maila hori.

Interes handiena dutenak

Mahai gainean jarritako bederatzi gaietatik interes handiena zeintzuek piztu duten jakinarazi dute: espazio publikoak eta ekipamenduak, eta, ondoren, mugikortasunak eta ingurune naturalak.

Era berean, adostasun maila handiena mugikortasunarekin, espazio publikoarekin eta natura-ingurunearekin lotutako gaietan izan dela zehaztu dute. Desadostasun handienak, berriz, ekipamenduen, jarduera ekonomikoaren eta etxebizitzaren esparruetan sortu dira.

Hainbat urtetako prozesua

Plan orokorra idaztea "prozesu luzea" da, eta bost edo sei urte iraun dezakeela gogorarazi dute Udaleko ordezkariak.

Horretaz gain, prozesuak zein fase dituen ere jakinarazi dute: diagnostikoa, HAP0ren aurre-rakina, Plan Orokorren hasierako onarpena, behin-behineko onarpena eta behin betiko onarpena.

Egindako proposamenak

- **Espazio publikoa** Haur eta gazteentzako gune estalien beharra.
- **Ekipamendua** Azpiegitura soziokultural nahikorik ez.
- **Ingurune naturala** Urkulu nabarmentzea.
- **Oinezkoen mugikortasuna** Segurua eta irisgarria.
- **Etxebizitza** Hutsik daudenak murriztu eta babestuek izatea.
- **Merkataritza** Hurbileko zerbitzuak bultzatzea.
- **Jasangarritasuna**
- **Inklusibotasuna**
- **Ondarea babestea**



Haizea eta Oihana Aranak, Leire Vargasek eta Aner Peritzek osatzen dute. 'ERRE'

Gertuko babesarekin, 'eRRe' ikuskizunaren saio berezia gaur

Sarrerak agortuta, bertsoak eta askotariko arte-diziplinak batzen dituen saioa egingo dute Arkupen

J.O. ARETXABALETA

Haizea eta Oihana Arana ahizpa eskoriatzarrek, Leire Vargasek eta Aner Peritzek osatutako ikuskizuna estreinatu zenetik hirugarren emanaldia izango da Aretxabaletakoa. Orain arteko saioek harrera "oso ona" izan dutela azaldu du Oihana Aranak, eta gaur ere hala izatea espero dute: "Aspaldi saldu ziren sarrera guztiak, eta horrek tentsio puntu bat ere ematen du. Aste honetan Iruñean izan gara, eta ederto joan zen; espero dugu hemen ere horrela izatea".

Etzekoak eta lagunak

Otsailaren 5ean estreinatu zuten lana, Durangon, eta azaldu dute lagun eta gertuko asko bertan egon zirela, babesa ematen. Aretxabaletako saioa, baina, etzeko ere sentitzen dute moduren batean: "Lagun eta gertuko askok ikusi dute dagoeneko, baina Haizearen eta nire kasuan, esaterako, senideek gaur ikusiko dute lehenengoz".

Ikuskizuna bera "nobedadea" dela aitortu dute, eta datozen asteetarako aurreikusitako saioetan ere ikusmina eragiten jarraitzea espero dute.

OHARRAK

Bandaren kontzertua

Leizarra musika eskolako bandak kontzertua eskainiko du gaur, 19:00tan hasita, Ibarra kiroldegian.

Haurrentzako zinema

Cliford, el gran perro rojo filma egongo da ikusgai umeentzako zinemaren eskaintzaren baitan, zapatuan eta domekan, Arkupen, 17:00etan. Sarrera: 3 euro.

'Belfast' filma

Zinema komertzialaren eskaintzaren baitan, gaur 22:00etan egongo da ikusgai Zairaia aretoan, zapatuan eta domekan 19:30ean eta astelehenean 20:00etan. Sarrera: 5 euro.

Batzordea eratuta, Korrikako materiala salgai Durana kalean

22. Korrikaren etorrera girotzeko ekintzak zehazteko lanetan ari da Aretxabaletako Korrika batzordea. Batetik, Korrika Kulturak eskaintzen dituen ekitaldiak daude; eta, bestetik, batzordeak berak antolatutako dituenak. Horiek lotzen eta zehazten joango dira datozen asteetan. Bien bitartean, materiala salduko dute. 2022ko Korrikarako prestatutako arropak eta osaguriak jarriko dituzte salgai Durana kalean gaur arratsaldean (18:00-20:00) eta 19an eguerdi partean (12:00-14:00). Hurrengo bilera otsailaren 23an izango da (18:30), udaletxe zaharrean. Interesa duen edonorendako izango dituzte ateak zabalik.



Iaz, Urdelardero egunean, herriko ikastetxe bateko haur talde bat Fernando Eskoriatza plazan. IMANOL BELOKI

'Urdelardero, urdeixa jan ta...', ikasgeletara gero

Berezitasunekin eta egitarauan ohi baino ekintza gutxiagorekin, baina izango da zer ikusi Eskoriatzako Aratusteetan, eta seguru mozzorro original eta landuak ez direla faltako. Hasteko, Urdelardero eguna ospatuko dute otsailaren 24an, eguen gizenean

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Urdelardero egunean, Eskoriatzan ezaguna den kantuak honela dio: *Urdelardero, urdeixa jan ta bazkaixa gero...* Eta urtero, egun horretan, Fernando Eskoriatza plazan txistor-pintxoak jaten amaitzen dute eguna ospatzen duten herriko ikastetxeetako haurrek, baina aurrean, haur guztiak plazan batu beharrean, bakoitza bere ikasgeletara bueltatuko da, herrian zehar kantuan egindako ibilbidea amaitzean.

Eskoriatzako Aratusteak horrela hasten dira, eguen gizenean Urdelarderoekin. Ziria eskuan kalez kale kantuan arituko dira, beste behin, herriko ikastetxeetako haurrak, 10:30ean hasita. Aurrean, baina, taldeetan banatuta bakoitzak bere ibilbidea egin, eta nor bere ikastetxera joango da ibilbidea bukatzean, Fernando Eskoriatza plazan amaitu beharrean. Arratsaldean, berriz, Patxin eta Potxin izango dira *Ingurumena* zaindu ikus-

kizuna eskaintzen, 17:00etan, Gorosarri plazan.

Musika bandaren kontzertua

Otsailaren 25ean, berriz, herriko nerabeek makillaje ikastaroa izango dute. Gaztelekuan eskainiko dute saioa, eta ordubete iraungo du, 18:00etan hasita. Hala, interesa dutenek 17:00etan eman beharko dute izena, tailerrean parte hartu nahi badute. Iluntzean, berriz, Beheko Errota musika eskolako banda-kideek Aratusteetako kontzertua eskainiko dute, 20:00etan, Zaldibar antzokian. Azken urteotan moduan, mozzorrotuta irtengo dira musikariak oholtza gainera askotariko piezak eskaintzera.

URDELARDERO EGUNeko IBILBIDEA EZ DA FERNANDO ESKORIATZA PLAZAN AMAITUKO

Euskal dantzak eta musika

Aratuste-zapatua, aldiz, egun handia izaten da Eskoriatzan, baina aurrean egitaraua murriztu egin dute antolatzaileek. Izan ere, ez da mozzorro desfile lehiaketarik izango eta herri bazkaririk ere ez dute egingo. Hala ere, 12:00etan, musika eskolako dantza taldearen euskal dantzak ikusteko aukera izango da, Fernando Eskoriatza plazan, eta jarraian, 13:00etan, DJ Motok musikarekin girotuko du plaza. 18:00etan, berriz igoko da agertokira Andoni Moto DJ eskoriatzarra.

Kukumarroak arituko dira

Martxoaren leian, 17:00etan, kukumarroak arituko dira; eta 17:45ean, Nemux diskoteka ibiliko da Fernando Eskoriatza plaza musikaz girotzen. Aratuste-martitzenean ohikoak izaten dira ikastetxeetako haurren dantzak pilotalekuan, baina, jende pilaketak saihesteko, ez dituzte egongo.

Errepidearen eta espaloiaaren arteko koska berritzeko lanetan

Aurreikuspenen arabera, astebetean eginda izango dute 8.000 euro inguruko kostua izango duen obra

I.B. ESKORIATZA

Eraikuntzez eta indusketa lanez arduratzen den Ferreira enpresako langileak Fernando Eskoriatza plaza parean, Jose Arana kalean, errepidearen eta espaloiaaren arteko zintarria aldatzen ari dira egunotan.

Eskoriatzako Hirigintza Sailko ordezkariak adierazi duteenez, lanen funtsa errepidearen eta espaloiaaren arteko tartea txukuntzea da, txarto baitago. "Espaloiaaren eta errepidearen arteko koskak egoera eskasean zeudela ikusita, erabaki genuen egindakoa kendu eta lehen zeuden antzekoak jartzea berriro. Jarriko ditugunak aurrefabrikatuak dira, eta porlanarekin jarritakoak baino txukunago geratzen dira", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.



Jose Arana kalean obretan. I.B.

Astebetean amaituta

Jose Arana kaleko lan horien aurrekontua 8.000 euro ingurukoa dela gaineratu du Ezkurdiak, eta, aurreikuspenen arabera, egin beharreko obrak astebetean amaituko dituztela zehaztu du.

Batzorde berria eratzeko arazoa konpondu dute

Olazar Erretiratuen Elkartekoek batzarra egin dute asteon, Ibarraundi museoan, dituzten hainbat arazoren bueltan hitz egin eta konponbidea emateko. Bertaratu zirenen erantzunarekin "oso pozik" daude batzordekideak, eta batzorde berria sortzeko arazoa konponduta beste hainbat kontu ere izan zituztela hizpide adierazi du

Jasone Orbegozok: "Aurreikusi baino kide gehiago batu ginen bileran. Batzorde berria osatu behar dugu laster, eta erreleborako kideak falta dira; beraz, aurtengo ikasturterako konponbidea eman diogu arazoari, baina etorkizunean berdina gertatu ez dadin solasaldia izan genuen. Azpimarratu genuen kargu bat hartu arren talde-lanean egiten dugula lan, eta, adibidez, norbaitek zerbait ezin badu egin beti izaten dela laguntza".





Iker Eskibel, Mikel Altuna, Lander Mediavilla, Ander Zubia eta Iñigo Viteri, Altea atzean dutela. IKER ESKIBEL

Oporretan ere pedalei emateari ezin utzi

Altean izan dira oporretan bost lagun: Eskoriatzako lau eta Aretxabaletako bat. Txirrindulari afizionatuak dira, eta bertako portuak igotzeko aprobetxatu dute egonaldia. Gainera, txirrindulari profesionalen artean aritzeko aukera ere izan dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Iñigo Viteri, Ander Zubia, Iker Eskibel eta Lander Mediavilla eskoriatzarrak eta Mikel Altuna aretxabaletarra txirrindulari afizionatuak dira, baina pasioz bizi dute kirola. Horren erakusle da Altea (Valentzia) oporretara joan zirela otsailaren 12an, astebeterako, eta, eguzkipean atseden hartzen aritu barik, bizikleta gainean kilometroak egin eta egin aritu direla, malda gogorreko portuak igotzeari utzi barik.

Entrenatzeko leku aproposa

"Eguraldi ederra egiten duenez, txirrindulari asko joaten da Altea, leku aproposa baita entrenatzeko. Ez soilik gu bezalako afizionatuentzat, txirrindulari profesionalak aritzen da bertan. Hotel batean egon gara, zaletasun honen baitan prestatuta dagoena, eta, egonaldiaz gozatzeaz gain, munduko txirrindulari onenen artean dauden Remco Evenepoel eta Mathieu

van der Poel ikusi genituen, eta baita 18 urteko Juan Ayuso txirrindularia ere", adierazi du Ander Zubia eskoriatzarrak.

Profesional artean

Coll de Rates, Vall d'Ebo, Puerto de Tudons, Sierra Helada, Bernia, Confrides, Benissa eta Carrasqueta portuak igo dituzte, eta horietako batean txirrindularitza talde profesional bat ezagutzeko tarte ere izan dute. "Portu bat igotzen geundela geldialdia egin genuen, eta entrenatzen ari ziren Herbehereetako Jumbo-Visma txirrindulari taldekoak gure alboan geratu ziren. Haiek ingelesez ari ziren; beraz, ez genuen berbarik egin, baina alboan genituela argazki batzuk

EGONALDIAN, JUMBO-VISMA TALDEKO TXIRRINDULARIEKIN EGOTEKO AUKERA IZAN ZUTEN

atera eta bideo bat grabatzeko aprobetxatu genuen", adierazi du Zubiak.

Erronka-zaleak

Astebeteko abentura honez gain, ez dira geldi egotekoak txirrindulari hauek. Erronkak gainditzea eta beraien arteko apustu sanoak egitea gustuko dute. Hain zuzen ere, boskote honetako zenbaitek Eskoriatzatik Covadonga aintziretara bizikletan egindako erronka gainditu zuten, 2020an. Horietako batek, Iker Eskibelek, zehazki, lagun duen Ekaitz Oñateren aurka ere Arlabango mendatean apustua egin zuen duela hiru urte. Aingeru Guardako biribilgunean hasita, Dorletako ama birjina dagoen lekuraino Eskibel hanka batekin pedalei ematen iritsi zen; Oñate aurkaria, berriz, bi hankekin pedalei ematen aritu zen. Ikusizun aparta eskaini zuten, eta, Eskibelek apustua galdu arren, erronka berriak ezartzeko gogoz dagoela adierazi du.



Aresko saskibaloia eskolakoek jantzi berrien aurkezpenean batutakoak. I.B

Aresko saskibaloia eskolakoek jantzi berriak aurkeztu dituzte

Avanza izango da babesle berria, eta martitzenean egin zuten ekitaldia, Manuel Muñoz kiroldegian

I.B. ESKORIATZA

Areskoren babesle berria Avanza da, eta, martitzenean egin zuten aurkezpenean, kontratua sinatu eta denboraldi honetan jokalariek erabiliko dituzten jantzi berriak aurkezteko aprobetxatu zuten.

Manuel Muñozen egin zuten aurkezpena, eta bertan batu ziren Avanzako Euskadiko zuzendaria Borja Berroya, Jose Alvarez Avanzako eragiketen kudeatzailea, Jabi Corbal Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea, Fernando Raso Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia ar-

loko presidentea, Leire Alvarez Aresko eskolako koordinatzailea eta Aresko eskolako kimu mailako hiru taldetako jokalariek.

Elastikoa, ildo beretik

Eskoriatza Kirol Elkartearen kolore gorria, zuria eta berdea oinarri, *Avanza Mobility* Ado izenpean jokatu dute Aresko jokalariek denboraldi honetan, eta, partiduetarako kamiseta berriak aurkezteaz batera, jertseak ere nolakoak diren erakusteko aprobetxatu zuten hitzordua.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRARTE

'Katakrak', 'kin-kan'

Badakigu gustura eta pozik bizitzea pertsona ororen eskubide dugula. Alabaina, gutxiagotasun konplexuak, lotsak, beldurrak... garena ezkutatzen kondentzen gaitu. Orduan, bizi-iraun. Beste barik. Zoriontsu zerk egiten gaituen ahaztuaz, betidanik gogoko izan ditugun gauzak egiteari utziaz... Eskerrak, halere, beti suertatzen den gertakizun, begirada, abesti politen bat, iluntasun beltz horretan argi izpitxo bat dirdirka.

Orduan, *katakrak* egiten du gure barrenak. Martxan jartzen da herdoildua zirudien gorpila: *kinki, kanka*.

Urak *gulu-gulu, gur-gur*. Eguzki izpiek udaberri aldera ohi dutenez, geure benetako izatea samurki loratuz. Elkar hurbiltzen gu, ordura arte zeren zain egon ote garen galdetuz, gure kontraesanekin dantzan...

Onena ematear dugula sinistu. Bizitza probestu. Geure zoroaz. Pozik. Zoriontsu. Eta beste *katakrak* bat, *kink-kank*. *Dilin-dalan* kanpai hotsak. Udaberria ate joka dugun garai hauetan.

"Guztientzako dago lekua egitasmo hauetan"

NEREA ZUGASTI AUZOKO ETA BERBALAGUNAK EGITASMOETAKO DINAMIZATZAILEA
Euskara ardatz duten Eskoriatzako bi proiektuen arduradun berria da Zugasti, eta herritarrak animatu nahi ditu batean zein bestean parte hartzera

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Euskara Elkarteen Federazioak eta, kasu honetan, Eskoriatzako Udalak finantzatutako bi egitasmo dira Auzoko eta Berbalagunak. Azken hiru urteetan Iratxe Arrese izan da Eskoriatzako arduraduna bi egitasmo horietan, eta orain, Nerea Zugasti arrasatearrak ordezkatu du. Auzokok eta Berbalagunek ezberdintasunak dituzten arren, biek euskara dutela oinarri adierazi du dinamizatzaileri berriak, eta, horrekin batera, aurtengo erronkak zeintzuk diren adierazi du, kanpainaren berri eman, eta bere burua ezagutarazi, dinamika batera zein bestera herritarrak animatu daitezen.

Eskoriatzako Auzoko eta Berbalagunak egitasmoetako dinamizatzaileri berria zara. Lur hartu berri duzun arren, ezagutzen dituzu bi dinamikak, ezta?

Aukera polita izaten da batean zein bestean aritzea. Euskara praktikatu nahi dutenak animatzen dira; sarritan, euskaltegietatik datozenak. Arrasateko egoera ezagutzen dut, eta bertan, esaterako, hamazazpi talde daude martxan. Auzoko egitasmoak herrira bizitzera datorrenari euskarara eta gure kulturara gerturatzeke helburua du, beiraingandik ikastea ere asmoa



Nerea Zugasti, Eskoriatzako plazan. I.B.

izanda. Berbalagun taldeen kasuan, berriz, euskararen mintzapraktika egiteko talde txikietan batzen gara, bidelagunak eta bidelariak, eta gaur egun Eskoriatzan hiru talde daude. **Berbalagunak taldeak nori zuzenduta daude?**

Profil askotariko herritarrak etortzen dira. Batzuk euskara praktikatzera datoz; beste batzuk, azterketa bat gainditzeko laguntza gisa... Nork bere helburua du. Kasu batzuetan, euskaldun zaharrak ere badaude, baina euskara galduta du-

tenak, eta berreskuratu nahian etortzen dira; eta, beste kasu batzuetan, euskara praktikatzeko gogoia dutenak etortzen dira. Guztientzat dago tokia Berbalagunetan.

Zein izango da ezarriko duzun lehenengo erronka?

Egoera honek ez du askorik laguntzen, eta aurtengo, taldeak mantentzen nahikoa lan dugula esango nuke. Jendea gogo barik dago ekintzak antolatzeke orduan, baina une honetan izena emateko kanpainan gaude; beraz, guztiak animatzen ditut parte hartzera.

Euskara ardatz, herriko kontuei eta irteerei ematen diezue garrantzia, ezta?

Hala da; bi hilean behin egiten dugu irteeraren bat Berbalagun taldeek. Zapatuan, Ollerietako Euskal Buztingintzaren Museoa egon ginen bailarako mintzapraktika taldeetako zenbait kide, esaterako. Ikasturte bukaeran, Peru Harrira joango gara egun-pasa... baina eguna iritsi bitartean ere izango ditugu zenbait ekintza. Adibidez, datorren astean, Urdelardero eguna ospatuko da Eskoriatzan, eta ohitura ezagutzeke eta haurrak kantuan ikusteko eta entzuteko kalean zehar arituko gara Auzoko egitasmo-ko partaideekin.

'Gerra garaiko ametsak' liburua aztertuko dute hilaren 24an

Ngugi Wa Thiong'o idazle afrikarraren haurtzaroko oroitzapenen bilduma hizpide literatura solasaldietan

I.B. **ESKORIATZA**

Literatura solasaldietako hurrengo irakurketaren solasaldia otsailaren 24an izango da, kultura etxean, 18:00etan. Oraingoan, Mikel Albisuren gidaritzapean, Ngugi Wa Thiong'o idazleak


idatzitako *Gerra garaiko ametsak* liburua autobiografikoa aztertuko dute, Olatz Prat Aizpuruk euskarara itzultitakoa. Hala, parte-hartzaileek solasaldia ondo jarraitzeko liburua irakurrita eramatea gomendatzen da.

Ngugi Wa Thiong'o idazle afrikar entzutetsuenetako bat da. Aita bat, lau emazte eta hogeita lau senideko familia *kikuyu* batean jaio zen, Limurun, Kenya kolonialean, 1938an. Haurtzaro xume bezain zorionsua darama mutikoak, britainiarren koloniarren mendean bizi dela ia ohartu gabe. Pixkanaka, ordea, bere inguruan aldaketa ugari gertatzen hasiko dira, eta, adinean aurrera egin ahala, are handiagoa izango da horien eragina bere bizitzan.

LEINTZ GATZAGA 23



Aparkatuta zegoen autoari eragindako kalteak. GARAZI OROBENGOA



Farola okertuta. G.O.



Farola hautsita, zintzilik. G.O.

Trailer batek triskantza eragin du herrigunean martitzenean

Ertzaintzaren trafiko sailak jakinarazi duenez, auto batek, trafiko seinale batek eta bi farolak izan dituzte kalteak

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA**

Arlaban mendatea itxita dagonetik, neurri handiko zenbait ibilgailu Arabatik mendate gainera iritsi eta buelta eman beharrean Gatzagako errepide zaharrean behera jaisten dira, GI-3310 errepidean; edo, alderantziz, Eskoriatzatik Gatzagara goranzko noranzkoan. Kasuren batean, gainera, gertatu izan da tamaina handiko ibilgailuren batek San Inazio kalearen muturrera iristean Elexalde Etxea jauregiko bihurtzetik pasa ezin dela jabetu eta herrigunea zeharkatzea.

Kalte ugari eraginda

Hori gertatu dena asteen, eta kalte ugari eragin ditu bertatik pasa den ibilgailu batek. Izan ere, martitzenean, 19:50 bueltan, trailer batek, herrigunetik pasatzean, aparkatuta zegoen auto bati kolpea eman eta bi farola hautsi zituen. "Eragindako kal-

teez gain, ihes egin zuen gidariak. Herritar batek autoarekin atzetik jarraitu eta Aretxabaleta eta Arrasate arteko biribilgunean topo egin ostean Arrasateko JMako poligonoan aparkatzen ikusi zuen. Herritarrak Ertzaintzari jakinarazi zion, baina jakinean zeuden, beste gatzagar batek abisua pasata zuelako. Orain, Ertzaintzaren eskuetan dago, eta ea parterean bat iristen zaigun udaletxera...", adierazi du Juanito Bengoak, Gatzagako Udaleko zinegotziak.

Ertzaintzaren trafiko sailak, berriz, honako hau adierazi du: "Gidaria aurkitu eta izan ziren ertzainak bearekin. Gertatutakoaren partean, hain zuzen, bi farolari, trafiko seinale bati eta auto bati eragindako kalteak azaltzen dira. Orain, ikusi egin beharko da ea salaketarik badagoen, aseguru-etxeen artean konponduko duten...".



Seminarioko ikasle eta irakasle talde bat, 1850eko hamarkadan. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA-VALLEKO KONTEAREN FONDOA

Artxiboaren unibertso zabala, klik bakar batera

Bergarako Udal Artxiboa herritarrei gerturatzeko webgunea berri du, eta, itxura berriaz gain, funtzio interesgarri berriak daude 'artxiboa.bergara.eus' atarian; 23.000 testu baino gehiago eta 36.000 argazki inguru kontsulta daitezke modu errazagoan

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Udal Artxiboa herritarrei gerturatzeko asmoz, hainbat ekimen aurkeztu dituzte jarduneko alkate Ainhoa Letek eta artxiboko arduradun Arantzazu Oregik. Ekimen horietan aipagarriena da herritarrek dagoeneko aukera dutela webgune berriarekin bilaketak "erraztasun handiagoz" egiteko. Herritarren parte-hartzea sustatzeko proposamenak ere egingo dira.

Itxura eta funtzio berriak

Hala, Bergarako historian zehar bidaia emankor bezain ederra egiteko aukera izango dute erabiltzaileek honako helbide honetan sartuz gero: *artxiboa*.

bergara.eus. Asteleheneko agerraldian adierazi zuten, itxura aldatu baino gehiago egin diote atari berriari: "Itxura aldaketaz harago, funtzionalitateak gehituta ditu, eta erabiltzeko errazagoa da. Askotariko beharrak dituzten pertsonen erantzuteko prestatuta dago. Oinarrizko bilaketak egin nahi dituen herritarrek erraz egin dezake, eta ikerketarako bilaketa aurreratuagoak egin behar dituenak horretarako aukera ere badu. Aipagarria da funtsa ikusteko erakusten den formatua. Alde batetik bestera, eta goitik behera eginda, aukera ematen du bilatzen ari zaren dokumentu horren testuingurua

ere ezagutzeko, eta hori ikerketan oso baliagarria da".

Funtsaren erdia, euskaratuta

Artxiboa "kalera ateratzea" eta herritarren eskura jartzea nahi dutela azaldu zuen Ainhoa Letek, eta horretarako ekintzak batzuk iragarri zituen: "Hasitako bideari jarraituz, artxiboan dauden argazki batzuk tamaina handian herriko leku esanguratsuetan jarriko dira, gure historia ezagutzera emanez eta aitortuz". 2020an, esaterako, Irala kalean jarri zuten ikusgai 1943ko Pentekosteetako argazki bat. Gainera, euskarari ere lekua egiten ari zaio; orain gutxira arte, apenas zuen presentziarik: "Ar-

gazkien azalpenak ele bitan daude eta udal funtsaren erdia dagoeneko euskaratuta dago".

Deskargatzeko aukera

Argazkiak zuzenean deskargatzeko aukera ere eskaintzen du webgune berriak, Creative Commons 4.0 lizentziarekin. Oregik gogoratu duenez, milaka dokumentu daude eskuragarri: "Material mota desberdinak daude; asko, digitalizatuak. Adibidez, 23.000 testu baino gehiago daude, eta 36.000 argazki inguru".

Eskuizkribuak transkribatzeko aukera ere eskaintzen du webguneak, *iturriak.eus* tresna erabiltzaileak: "XIX. mendera arteko dokumentuak eskuz idatzita daude, eta, askotan, norberak irakurri eta idatzi behar ditu ulertu ahal izateko. Pertsona batzuek lan hori egiteko zailtasunak izan ditzakete, eta *iturriak.eus* atariari esker aukera dago lan hori elkarlanean egiteko".

Otaduy: "Erreferentea da"

Bergaraz harago ere eragin ditu erreakzioak albisteak. Artearen historialari Arantza Otaduy arrasatearrak, esaterako, txalotu egin du Bergarako Udal Artxiboa herritarrei gerturatzeko egin duten ahalegina: "Artxiboko bilaketa berria probatzeko aukera izan dut eta onartu behar dut erabiltzailearen esperientzia bikaina dela. Bergara eta, bereziki, Arantzazu Oregi eta bere lantaldea zoriondu nahi ditut. Bergarako Udal Artxiboa oraindik ere erreferentea da Euskadiko dokumentazio historikoaren tratamenduan eta ikerlariok oso gustura egiten dugu lan bertan, bai telematikoki zein aurrez aurreko zerbitzuan. Zuen lanak beste euskal udalerrri batzuetan eskola sortzea espero dut".

Lursailak erosteko deia, "beste zaintza eredu bat" sustatzeko

Herriko lurzoru ez-urbanizagarrian lursailak erosteko deialdia egin du Udalak, modu horretara herri-lurra bereganatzen joateko helburua duen erosketa programa bat abian jarrita. "Lurren erosketak ahalbidetuko du herri mailan garrantzi berezia duten eremuetan biodibertsitatea zaindu eta areagotzeko ekimenak abian jartzea", azaldu dute. Interesatuak bi hilabeteko epea izango dute eskaintzak aurkezteko eta bi aukera izango dituzte horretarako: Internet bidezko sarrera-erregistroa egin ez edo udaletxeko sarreraren dagoen Bergararren Arreta Zerbitzuko (B@Z) bulegoan dokumentazioa aurkeztuz.

Martxan da berriro 'Gelditzeke' kirol orientazio zerbitzua

Bueltan da COVID-19agatik eten behar izan zuten *Gelditzeke* kirol orientazio zerbitzua. Herritar guztiendako doako zerbitzua da, eta bizitza-estilo aktibo eta osasungarria bultzatzea du helburu; soin hezkuntzan graduatu eta Agorrosingo koordinatzaile Amaia Zabaleta Hidalgo profesionalak gidatzen du. Diputazioak eta Jaurlaritzak sortutako Mugimunt programan dauka jatorria. Interesatuak txanda eskaera egin behar dute Agorrosinen, telefonoz edo helbide elektronikoz (943 77 70 95 edo *agorrosin@bergara.eus*). Martitzenetan emango da zerbitzua, 10:00etatik 14:00etara Agorrosinen eta 15:00etatik 16:00etara anbulatorioan.

Herritarrekin batera osatu nahi dute

Artxiboa herritarrei gerturatzeko ekimenen barruan, webgune berriua aurkeztu zuten astelehen goizean artxiboan bertan egindako agerraldian. Hain zuzen ere, artxiboa ahalik eta osatuena izateko asmoz, herritarrei laguntza eskatuko zaie, jarduneko alkate Ainhoa Letek adierazi zuenez: "Argazkietan ageri diren pertsonak identifikatzeko

laguntza eskatuko diegu herritarrei, eta eskuizkribuak transkribatzeko proposamena ere egingo dugu".

Horrez gain, herriko gazteak artxibora gerturatzeko asmoa ere badute, Leteren arabera: "Ikasleendako material didaktikoaz gain, gazteentzat artxiboa erakargarriagoa izan dadin *scape room* birtualak ere proposatuko ditugu".



Udal Artxiboko Arantzazu Oregi eta jarduneko alkate Ainhoa Lete, agerraldian. J.O

Korrika batzordearen bigarren bilera, otsailaren 22an

Otsailaren 8an eratu zuten Korrika batzordea eta dei egin dute hurrengo bileran parte hartzeko; hilaren 22an izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan (18:30). Korrika Bergarara 11:30ean helduko da, Osintxutik, eta 12:38an irtengo da, Elorregitik. Kilometroa erosteko helbide elektronikoko honetara idatzi beharra dago: *korrikadebagoiena@gmail.com*.

Zelai artifiziala udan jartzea aurreikusten dute

Proiektua martxoan esleitu eta Agorrosin Berriko lehen faseko lanak udan egitea nahi dute Udalak eta BKEk; belar artifiziala jarri, egungo harrizko hesia kendu eta ureztatze zein argiztatze sistema berriak jarriko dira; lan horien aurrekontua milioi bat eurokoa da

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemia aurretik Udalak eta Bergara Kirol Elkartek adostutako hitzarmena atzeratu behar izan ondoren, asteon jakinarazi dute lehen faseko lanak martxoan esleitzea aurreikusten dutela. Honako lan hauek egingo dira lehen fase horretan, besteak beste: belar naturala kendu eta artifiziala jarri; egungo harrizko hesi perimetrala kendu eta sare bidezko itxitura bat ipini; ureztatze-sistema berria egokitu; eta gaur egun ez dagoen argiteria artifiziala jarri. Belar naturalaren ordeztasun sintetikoa jarriko da, futbol-zelai berria modu intentsiboan erabiltzeko aukera bermatuta egon dadin, eta mantentze-lan handirik beharko ez duena. Lehen fase horrek milioi bat euro inguruko aurrekontua dauka.

Bi aldean beharrak eta nahiak

Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek argitu duenez, goi mailako partiduetarako gutxieneko neurriak izango lituzke zelai artifizial berriak; hau da, 105 metroko luzera eta 68 metroko zabalera duen jokaleku bat, hegaletan metro eta erdiko kanpo-bandak dituen eta funtsetan bi metro eta erdiko zabalera duena. Pandemiak hitzarmena




Langile bat belar naturala mozten, eguaztenean; laster ez da halakorik beharko. J. B.

eta, beraz, lanen exekuzioa atzeratzea ekarri badu ere, gustura dago Arantzabal proiektua lizitazioarako gertu dagoelako: "Herriarendako proiektu inportantea da: batetik, Udalak orain arte eremu pribatua zena irabazten duelako; eta, bestetik, futbol zelaia alde batera eroanda beste aldean irabazten diren metroekin beste jardueretarako lekua irabazten dugulako".

2022-2023 denboraldirako prest Udalak eta BKEk 2019an sinatutako hitzarmena atzeratzea

ekarri du pandemiak, baina, klubeko presidente Iosu Elorzaren arabera, ulertzekoa da atzerapena: "Oso pozik gaude akordio berria ixtea lortu dugulako. Erabat kontziente ginen COVID-19aren eraginez Udalak beste lehentasun batzuk izango zituela, eta prestutasun osoa izan dugu beste hitzarmen baterako. Heldu da Agorrosin Berriaren ordua".

Izan ere, asmoa da lehen faseko lanak uda honetan gauzatzea, hiru hilabeteko exekuzio-epea dauka eta: "Lizitaziora martxoan



Zelaia mendebalderago, eta ondoan eremu berria; pista mantendu egingo da. B.U.

Agorrosin Berria: azken emaitza

Hiru faseak amaituta irudiko itxura izango du Agorrosin Berriak. Futbol zelaia ipar-mendebalderantz eroango dute eta ekialdean beste eremu bat irabaziko da "askotariko erabileretarako". Lehen fasean galtzen den pista perimetrala irabazi egingo da azken fasean.

irtengo litzateke eta bi aldean helburua da udako hilabeteak baliatzea obrak exekutatzeke. Nahi duguna da 2022-2023 denboraldia Agorrosin Berriarekin hasia; ez bada lehen jardunalditik, izan dadila iraila amaieratik edo urri hasieratik. Gaur egun dugun Ipintzako saturazioari buelta emango genioke bi futbol zelai izanda, asko irabaziko genuke".

Izan ere, ezin da ahaztu egun apenas erabiltzen den belar naturalak mantentze-lan handiak eskatzen dituela, Elorzaren arabera: "Kanpotik ikusteko oso polita da belar naturala, beste garai bateko futbola ekartzen du gogora... Baina pertsona bat behar da horretara lanean; are gehiago, neguan... Zelaiaren egoeratik, azken urteetan hamabost egunean behin bakarrik erabili izan da, eta ez du zen-

tzurik. Bi futbol zelai izateak entrenamenduetarako ordu asko emango digu, eta behar dugu".

Bigarren eta hirugarren faseak

Bigarren fasean, Ipintzara eta Agorrosinera emango luketen harmaila berriak, aldagela berriak –duela hamabi urte egokitu ziren aurrefabrikatu horiek, behin-behinekoak izango zirelakoan– eta pista perimetral berria jarriko dituzte. Hirugarren fasea libre geratzen den eremurako dago aurreikusita; Udala aztertzen ari gune hori ze jardueretarako baliatuko den.

2019AN BI ALDEEK SINATU ZUTEN AKORDIOA EGUNERATU EGIN BEHAR IZAN DUTE, PANDEMIAGATIK

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

**CHI KUNG
—
TAI CHI**

MEDITAZIOA

Zaindu zaitetz!

Rafael de la Maza
679 64 24 91

Jokin Bereziartua BERGARA

30 urte bete dira aurten San Juan auzoko Txibisto aretoak atea itxi zituela betirako; gaur egun Izpi enpresa dago pabiloi horretan. 1980ko hamarkadan gaztaro betean zeuden bergararrak, debagoiendarrek eta, oro har, euskaldunek dantzaleku erraldoi bezain berezi hartaz gordetzen dituzten oroitzapenen zerrenda amaigabea da, 1984tik 1992ra bitartean Bergarako gauak bizi izan zuen urrezko aroaren seinale. *Euskaldunon egunkaria*-k 1992ko urtarrilaren 16ko zenbakian eman zuen Txibistoren itxieraren berri, eta albistea honela titulatu zuten: *Kontzertu leku interesgarrienetako bat galdu du Euskal Herriko mapak*.

Efemeridea baliatuta, Txibistoko urte "ahaztezin" haiek posible egin zituen lantaldea batu du GOIENAK Boluko Txipiron elkarte gastronomikoan: Felix Zubia *Sanpru* (Bergara, 1950), Fernando Otaño (Bergara, 1952), Iñaki Pedrejon (Bergara, 1953), Jesus Bolibar (Bergara, 1954) eta Julen Narbaiza (Bergara, 1956). Kuadrilla berekoak ez izan arren, urteen poderioz harremana estutzen joan zen euren artean, gaur egunera arte modu naturalean mantentzeraino. "Momentu txarrak eta zailak pasa genituen, familian edo gertukoenen artean ere kontaktzen ez genituenak. Baina arazoren bat sortzen zenean, irtenbideak bilatzen jartzen ginen eta ez elkarren aurka egiten... Hor egon zen gure benetako arrakasta, ez da-eta batere erraza horrenbeste urtetan halako harreman ona mantentzea, bereziki dirua sartzen denean tarteetan", dio *Sanpru*-k.

Beste eredu baten sustatzaileak

Txipiron elkartearen kafe baten bueltan eseri eta berehala ohartu da kazetaria gaur egun hilzorian dagoen lan egiteko modu baten ordezkariak izan zirela, diru asko mugitu zuen negozio bateko arduradunak izanda ere, herrigintza eta elkartasun eredu eskuzabal baten sustatzaileak izan zirela. Bergarako jaietarako taldeak ekartzen hasi ziren 1977. urtearen bueltan, eta 1992ra bitartean hainbat eta hainbat kontzertu antolatu zituzten, bestelako ekimenekin batera; betiere, garai hartan diru behar gorria zuten elkarteak edota ekimenak babesteko. Adibidez, Club De-



Felix Zubia *Sanpru*, Guillermo Gomez, Jesus Bolibar eta Julen Narbaiza, Txibiston, *Kaixo* 1985 saioaren grabaketan. JAVIER ARETIO

Beste aro bateko programatzaileak

30 urte bete dira aurten Txibisto itxi zutela, eta efemeridea baliatu du GOIENAK areto ezaguna kudeatu zuen lantaldearekin elkartu eta atzera begiratu bat egiteko; Verdury Hall-etik hasita 1992ra arte, Bergarak bizi izan zuen urrezko aroaren lekuko biziak dira

portivo –gaur egun BKE dena–, 1971n sortu zen Aranzadi ikastola, gerora gaztetxea izan denaren oinarria izan zen Juventudes Parroquiales...

Lehen hazia, Verdury Hall-en

Txibistoren fenomeno ulertzeko urte batzuk egin behar dira atzera, eta San Martin plazan zegoen Verdury Hall aipatu. Gaur egungo Kutxabanken sukurtsalaren gaineko pisuan zegoen, eta bereziki 1967tik 1971ra zuzeneko musikarekin girotutako dantzaldien topaleku izan

zen. Berdura plazetako edo azoketako dantzaldiak ez ziren Bergarako kontua bakarrik –Arrasaten oso ezagunak ziren Seber Altubeko berdura plazako domeketako dantzaldiak, adibidez–, baina izen anglosaxoia jarri izana bergararren askak izan zen. "Ordurako, musika modernoa ezaguna zen nazioartean, The Beatles, The Rolling Stones eta enparauak ezagunak ziren, eta, seguruenik, hortik jarri zitzaion izena", dio *Sanpru*-k. Leku itxi bat izatera, neguko domekak girotzeko baliatzen zituzten herritar askok. Diktadura garaia ziren, musika taldeei –*conjunto* deitzen zitzaaien garai haietan– emanaldien aurretik jo behar zituzten abesti guztien letrak eskatzen zizkieten urteak, eta euskarak ez zuen presentziarik erreperitorioan. "Gaztelaraz edo ingelesez abesten zuten eta soul zein pop doinuak ziren nagusi", dio Narbaizak. Eta honako hau gaineratu du Bolibarrek: "Verdury-n euskaraz abesten entzun nuen lehen taldea Yoloak izan zen".

Verdury Hallen azken urteetan, gerora ospetsu egingo zen Egan taldeak ere jo zuen, Otañok zehazten duenez: "1971ko Pentekosteetan eman zuten lehen kontzertua Bergaran, Verdury Hallen. Lau emanaldi eskaini zituzten eta guztiek izan zuten harrera bikaina. Horregatik, hurrengo urteko jaietara itxoin barik, 1972ko Errege bezperan frontoian jo zuten. Hori izan zen hainbat urte iraun zuen ohituraren lehen hazia. Hortik dator, neurri batean, behintzat, Errege bezperako gaua horren berezia izatea Bergaran". Belaunaldi berriak harrituko dituen bitxikeria bat ere gehitu du Otañok: "Azoka ez zen apenas egokitzen; barazkiak, frutak eta bestelako produktuak estali, erdigunean lekua irabazi eta mundu guztia dantzatzera, baita arrain usain artean ere".

Juventudes Parroquiales

Kartzela zaharra da gaztetxea gaur egun, baina ernamuina Komenio kaleko Juventudes Parroquiales-en kokatu beharra dago, Elizaren jabetzakoak ziren lokaletan, 1960ko hamarkada erdialdean. Ikuspegi musikalek, Otañok kontzertu berezi bat du gogoan: "Pantxoa eta Peiok Hego Euskal Herrian eman zuten lehen kontzertua *Juven*-en eman zuten, 1970ean". Euskal



Felix Zubia *Sanpru*, Jesus Bolibar, Iñaki Pedrejon, Fernando Otaño eta Julen Narbaiza. J. B.



Verdury Hall-eko kontzertu bat. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA-TORIBIO JAUREGI FONDOA

Herri osoan famatu egin aurretik izan zen hori, baina ez ziren osperako jauzia eman aurretik Bergaran jo zuten bakarrik. "Oskorrikoak ere askotan egoten ziren *Juven*-en, etxean moduan egoten ziren", dio *Sanpru*-k. Talde zehatzez harago, sekulako mugimendua zegoela gogoratu du Narbaizak: "Ez zegoen besterik, kalean eta saltsan ari bazinen *Juven* zen bestelako aukera ia bakarra". Ume izate-tik gazte izatera pasatzeko "*salvoconducto*-a" bertan jasotzen zen, *Sanpru*-k dienez: "16 urte izan behar zenituen bertara sartzeko; gogoan dut hauetakoren bati [mahaiaren bueltan ditueni begira] txartel faltsuren bat ere egin geniola... [Barreak]. Prestigioa ere ematen zuen".

Asteburua agurtzeko 'espuela'

Bergarako gauak bizi zuen ez-tandaren adibide da *Espuela fin de semana*. Hala gogoratzen du Otañok: "1966tik Ariznoa dantzalekuak sekulako arrakasta zuen egubakoitz eta zapatu gauetan. Jende asko mugitzen zuen, eta, Club Deportivorendako dirua lortzeko asmoz, akordio batera heldu ginen jabearekin, domeka gauetarako. *Espuela fin de semana* deitu genuen, 1977tik 1981era sekulako arrakasta izan zuena. 1960ko hamarkadako musika jartzen genuen eta talde hasiberriendako kontzertu leku bat ere bazen".

Frontoia, nazioarteko agertoki

Frontoia izan zen lantaldearen hurrengo geltokia, betiere, elkarlanean arituta. "Herri erdian kokatuta, estalia eta dimentsio handikoa izanik, aukera moduan ikusi genuen", dio Narbaizak. Udal pilotalekuan ikusi zuten kontzertu gogoangarrien artean,

"UNE ZAILETAN BETI IRTENBIDEA BILATZEA IZAN ZEN GAKOA ARRAKASTARAKO"

FELIX ZUBIA 'SANPRU'

"ORDURA ARTEKO LANAREN JARRAIPEN MODUAN ULERTU BEHAR DA TXIBISTO"

JULEN NARBAIZA



New Yorkeko Ramones taldearen zuzeneko Txibiston, 1991ko martxoaren 17an. BERGARAKO UDAL ARTXIBOA-ARIZONDO FONDOA

ezbairik gabe, Los Bravos taldeak 1968ko uztailaren 31n eman zuena aipatu dute; orduko erakundeek ekarpen handia egin zuten, Angel Azkarate-Askasua zinegotziaren "ezinbesteko" bultzadari esker, eta Juventudes Parroquialesek ere lagundu zuen jaialdi hartarako. "*Black is black* abestiarekin Europa mailan arrakasta itzela zutela etorri ziren, se-

kulakoa izan zen. Gogoan dut sarrera 100 pezeta ordaindu nuela, eta Los Bravos ekartzeko aurrekontua 130.000 pezeta izan zirela", esan du Narbaizak. Baina bereziki gogoratzen dute udaberri hartan *Juven*-etik antolatu zuten musika talde hasiberrien lehiaketa. "Euskal Herri osoko hamabi bat talde aurkeztu ziren, eta txapeladuna zein txapeldunor-

dea, Donostiako Los Picos eta Ordiziako Bostak, telonero aritu ziren Los Bravosekin, sari moduan", zehaztu du Otañok.

Gerora, hainbat kontzertu esanguratsu izan ziren frontoian: Orquesta Mondragon, Mocedades, Ian Gilan (Deep Purple), Sleepe La Beef, edota Errobiren zein Gontzal Mendibil eta Xabier Castillo *Xeberri*-ren agurrak...

1986ari ongietorria, zuzen-zuzenean

Txibisto aretoa kudeatu zuen lantaldea nolakoa zen ulertzen laguntzeko anekdota bat eder bat dago, bergarar askok ezagutuko ez dutena. 1985ari ongietorria egiteko, ETBk saioa alde zurretik grabatu zuen Txibiston, baina langileen greba baten ondorioz ez zen 1984ko abenduaren 31n emititu. Arantza hori kentzeko hurrengo Gabon zaharretarako zuzenekoak eurek egitea erabaki

zuten: "Behar ziren atea jo ostean konturatu ginen teknikoki posible zela. Leku altu batean egin behar zela esan ziguten, eta San Miguelen egin genuen. Arbola batera igo ginen, transmisoreak seinalea hartu zezan, eta walkien bidez konfirmatu ziguten herriko puntu batzuetan –Zubieta kalean, bereziki– sintonizatzeko aukera zegoela. Zuzenekoak bera minutu

gutxikoa izan zen, eta gainerako programazioa Club Deportiboren bueltako irudiekin osatu genuen. Eguraldi oso txarra egiten zuen, hotza eta txingorra tarteka, eta hango baserritarrari halako pena eman genion, afaltzera gonbidatu gintuen... [Barreak]".

Narbaiza kamerari lanetan eta *Sanpru* kazetari, orduko Club Deportiboko presidentea elkarriketatu zuten, besteak beste. Debagoienak ezagutu duen lehen zuzenekoak izan zen hura...

Txibisto "ondorio bat" izan zen

Narbaizaren arabera, Txibisto irekitzea "ondorio bat" izan zen: "Ordura arteko lanaren jarraipen moduan ulertu behar da". 1984rako dantzaleku edo areto handiak arrakasta izaten hasiak ziren eta testuinguru hartan erabaki zuten "abentura" horretan sartzea. Aretorearen izena Silbestre Ariznabarreta *Txibisto* zenaren omenez hartu zuten, gaizkile fama zuen auzotar bat.

1992ra arte denetarik antolatu zuten Txibiston, eta kontzertuei dagokienez hamaika aipatu daitezke: "Alaska eta Dinarama izan ziren 1985ean jotzen lehenak. Orduan, Alaskak punk estetika zuen, eta musika estilo horretako talde asko pasatu ziren; nazioartean, Toy Dolls, GBH, UK Subs, Cockney Rejets eta Ramones [argazkian], adibidez. Euskal Herriatik RIP, Cicatriz, La Polla eta Kortatu ere izan ziren, besteak beste. Sepultura eta Barricada taldeekin izan ziren betekada handienetakoak, eta ustekabeko ziztada ekonomiko bat edo beste, Mecanorekin bezala. Hala ere, edozein estilok zuen lekua Txibiston... [...] Hertzainak-ek 1991n grabatu zuen zuzeneko disko bikoitza eta Eganen *Hemen gaude* diskoaren azala aretoaren inaugurazio eguneko argazki bat da. Amaitzeko, Deep Purple taldeko abeslari ohi Ian Gillanek *Smoke on the water* abestu zigun kontzertua amaitzeko, eta hori izan zen Txibistoren agurra kontzertu areto gisa ere", dio Narbaizak.

Jam-ek hartu zuen lekukoa

1992an itxi zuten Txibisto, baina eragin zuen beste bergarar batzuek Jam aretoa irekitzea 1996an. Jam ere kontzertu-leku erreferentea izan zen hainbat urtez.



Txibistoren irekiera, 1984an, eta Egan-en *Hemen gaude* diskoaren azaleko argazkia. F.O.



Gazte mailako gimnastak, taldekako ariketa hasteko prest Ibarran jokaturako txapelketan. ARIZNOA

Denboraldia hasi berritan, hobetzen segitzeko prest

Duela bi aste jokatu zuten Gipuzkoako txapelketako lehen fasea Ariznoako gimnasta beterranoenek, eta domekan gaztetxoenei dagokie euren ariketak epaimahairen aurrean defendatzea. Labegaraiek ere benjamin mailako topaketa hartuko du bihar

Jone Olabarria BERGARA

Otsailaren 6an Ibarran lehiatutako Gipuzkoako amateur mailako txapelketarekin ekin diote aurtengo denboraldiari Ariznoa elkarteko gimnastek. Guztira, bederatzi gimnastak hartu zuten parte, kadete eta senior mailen artean, banaka zein taldeka. Denboraldiko lehen txapelketa izanda, neurria hartzeko saioa izan ohi da domekan lehiatutakoa gimnastentzat, baina, hala ere, "gustura" daude egindako lanarekin.

Lehen faseko emaitzak

Aitortu dute oraindik "lan handia" dutela egiteko, eta dagoneko hasiak dira datorren txapelketa prestatzen. Domekako saioaren kasuan, kadete mailako gimnastei dagokionez, bakar-kako saioan, bederatzigarren postuan sailkatu zen Aitana Ariztegi eta hamabigarrenean Haizea Rodrigo. Biak aritu ziren uztaiarekin lanean. Gazte mailako gimnasten kasuan, taldeka

bosgarren postua eskuratu zuten Ariznoako gimnastek, uztai eta mazoekin. Itziar Alberdik hiru-garren postua lortu zuen uztaiarekin egindako ariketan. Nagusietan, Arianna Burgos bigarren sailkatu zen eta Alicia Etxanizek zazpigarren postua eskuratu zuen.

Lanean jarraitzeko prest

"Lehenengo txapelketa inoiz ez da onena izaten. Are gutxiago, izan ditugun urte zail hauen ondoren; beraz, hobetzeko asko dugun arren eta lanean jarraituko dugun arren, pozik gaude, behintzat, lehiatzeko aukera izan dugulako", azaldu du taldeko entrenatzaile Ainize Lizarralde. Ibarran jokaturako

"HOBETZEKO ETA LANTZEKO ASKO DUGUN ARREN, GUSTURA GAUDE EGINDAKOAREKIN"

txapelketa Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko lehen fasea izan zen. Bergaran jokaturako dute bigarrena, martxoaren 12an, eta bietatik eskuratutako sailkapenarekin lehen hamarrak arituko dira Gipuzkoako finaletan; eta ostean, Euskadiko txapelketan.

Asteburuan hainbat hitzordua

Bihar, otsailak 19, benjaminen topaketa hartuko du Labegaraiek kiroldegia, 17:00etan hasita. Bertan hartuko dute parte Ariznoa elkarteko lau taldek; horietako bi, gimnasta antzularrek osatutakoak.

Domekan ere hitzordua dute lehiaketa taldeko gazteenek. Askorentzat, gainera, lehen aldia izango da epaimahaiaren aurrean lehiatzen. Donostian egingo duten eskolarteko txapelketaren lehen fasean herriko bi talde arituko dira alebin B mailan. Infantiletan, Noa Lezeta gimnastak hartuko du parte banaka, B mailan hura ere.

Stoltz Freres organoa agurtzeko, kontzertua eta erraldoiak bihar

Bi ekintza antolatu dituzte eguerdirako eta iluntzerako, San Pedro parrokiako organoari agurra egiteko

J.O. BERGARA

1889ko martxoaren 18an inauguratu zen San Pedro parrokiako Stoltz Freres organoari agur esateko ekitaldi sorta antolatu du Bergarako Udalak. Joan den uztailen iragarri bezala, eta erakunde publikoen, Elizaren eta organoaren aldeko elkartearen arteko elkarlanari esker, 132 urtez martxan egon den organoa eraberritu egingo dute datozen hilabeteetan -468.103 euroko aurrekontua-.

Bihar, otsailak 19, egingo dira aurreikusitako bi emanaldiak,

San Pedro elizan bertan; eguerdian lehena (12:00) eta iluntzean bigarrena (20:00). Organo doinuak oinarri hartuta, Erraldoi eta dultzaineroen emanaldia izango da, lehenik, eta Bergarako parrokiako koruak, Musika Eskolak eta Txistulari Bandak eskainitako kontzertua iluntzean. Behin agur ekitaldiak amaituta, desmuntatu eta Lyongo Michel Jurine etxera eramango dute. Ondo bidean, 2024ko ekainean organo eraberritua Bergaran bueltan izatea aurreikusten dute.

GORA ETA BEHERA




Furgonetek eraginda, lekurik ez oinezkoendako

San Antonio auzoan bizi den herritar batek honako argazki hau bidali du, furgonetek oinezkoendako lekurik uzten ez dutela salatzen. Urdin koloreko furgonetaren kasuan, espalo zati handiena okupatzen duela dio bizilagunak; aulki gorpildun bat nekez pasatuko litzateke.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

'De profesión: artista' lanaren aurkezpena kartzela zaharrean

Datorren zapatuan, otsailak 19, 18:00etan hasita, kartzela zaharrean, Jesus Perez Artucheren *De profesión: artista* liburua aurkeztuko du Angiolillo liburutegiak. Bergaran askotan egon zen eta maitatua izan zen Eskroto-Gavilanan biografia da: Tijuana In Blue eta Kojon Prieto Eta Huajaloteak taldeak oinarri hartzen ditu liburua.

'Zein tarte laburra!' erakusketa Aroztegin martxoaren 6ra arte

Aroztegiko eskaintzaren barruan, Ander Etxaniz Ugalde artista onatiarraren pintura erakusketa egongo da ikusgai gaurtik martxoaren 6ra arte. Asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:30etara, zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30 arteko tartean eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara egongo da zabalik erakusketa Aroztegin.

EGUZKIALDE ENBALAJEAK

Urratsez urrats, norabide bakarrean bidea egiten

Egurrezko egitura industrialak oinarri, egiturak sendotu nahian ari dira buru-belarri azken urteetan. Iraganean egindako biderei eutsiz, eta etorkizunera begira ate berriak irekiz. "Urratsez urrats, hankak lurrean".

Bi buru, norabide bakarra
Hiru hamarkadatik gora daramatza Eguzkialde Enbalajeak enpresak Oñatin. Olabarrietako auzoan egin zituen hastapenak; baita duela 17 urte errelebo aldaketa ere. Ez zen, baina, gauetik egunerako iraultzarik izan. "Jatorri, molde eta produktuak mantendu ditugu, eta pixkanaka, egungo errealitatera egokitzen ahalegindu gara". Nola bezeroen beharretan, hala

komunikazio molde eta komunitateari egindako ekarpenetan.
2013an etorri zen aldaketa nagusia: bidegorria zela eta, Olabarrietatik Goribar auzora joan behar izan zuten. Torreauzoko bidegurutzearen alboan errotu dituzte sustraiaik geroztik.

Bailara oinarri
Lehengaien jatorria anitza izan ohi den arren, bailaratik, bailarakoekin eta bailarakoentzat dihardu lanean enpresa oñatiarrak. Debagoiendarrak dira langile guztiak, eta uneotan, baita zurezko kutxez, kaiolez, oinarriez, enbalaje bereziez, paletez eta takoez hornitzen dituzten bezero guztiak



2013tik, Goribar auzoan daude bulego, tailer zein almagazak.

ere. Eskertuta daude hamarkadetan osatu duten komunitateari, eskertuta elkarlanari.
Eta bailara saretzen jarraitzeko erabakia hartu dute. Hala egiten dute Aloña Mendiko futbol sailarekin, baita Aloñaiko lgoerarekin. Goienakide izaera bilakaera horretan egindako urrats bat gehiago da. Mantso baina irmo, bidea egiten jarraitzea baita xedea.

Goribar Auzoa 15-16, Oñati
943 78 06 54
info@eguzkialdeenbalajeak.com
www.eguzkialdeenbalajeak.com

ROYDE

Komunitatearen errodamenduei bueltak ematen

Etxeko labeak, dutxetako manparak eta logeletako armairuak. Automozio sektoreko osagarriak, produkzio lerroetako aireko garraiatzaileak eta hiltegietao kateak. Lehen irakurketan, zerikusi gutxi dute produktu edota zerbitzuek elkarren artean. Errealitatean, baina, badute ezinbestean erabiltzen eta, ondorioz, partekatzen duten osagai bat: errodamenduak.

Beharren bidean
Hala, errodamendu "berezi" eta sistema irristakorren diseinu eta ekoizpena da, hain zuzen, 1983tik Royde erakunde kooperatibo bergararraren jardunaren oinarria. Amillagatik kontinente osora, 39



Andoni Beitia erosketen arduraduna, katalogoarekin.

urtez ari da bueltaka –2023an betekotu lau hamarkada—. Pertsona dute oinarri, eta, bide horretan, egungo bezeroen zein berrien beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzea dute xede. Garaioetako "ziurgabetasun eta globalizazioa" aintzat hartuta, baita epe ertaineko erronka ere.

Jasotakoa, bueltan
"Komunitate bateko kide gara; jasotzen duguna bueltan eman behar dugu". Ez da kasualitatea, beraz, kooperatiba bergararrak urteetan erakutsi duen gizarte erantzukizuna, ezta Ner Group elkartearen parte izatea ere. Ekonomikoki zein borondatezko lanarekin, Caritas erakunde

humanitarioa, elikagai bankuak edota Katxalin –Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarte— lagundu dituzte.
Oraingoan, Goienakide izateko erabakia hartu dute, euskarazko tokiko hedabideen zein berau osatzen duten komunitateko kideen errodamenduek buelta ematen jarrai dezaten.

Amilaga 9, Bergara
943 76 16 40
info@royde.com
www.royde.com



Emozioetatik abiatuta, barrua sentitzeko saioak

Alaine Agirre idazle bermeotarraren gidaritzapean, abian da Antzuolako irakurketa kluba. Oraingo, zazpi lagunek hasi dute ibilbidea, baina talde irekia da, eta, literaturarekiko zaletasunaz harago, emozioak ere elkartrukatzea du xede ekimenak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Irakurketa kluba abian jarri berri dute asteon Antzuolan. Alaine Agirre idazle bermeotarra izango dute bidelagun eta saioetako gidari-lanetan. Lehen hartu-eman eginda, zazpi laguneko talde irekia osatu dute, eta jada hasiak dira bidea egiten. "Ideia da denon artean eta bere bidea egingo duen taldea sortzen joatea. Bakoitzak erabakiko du nola egin nahi duen bide hori. Niretzako oso garrantzitsua da irakurketa irakurleengana bideratzea hauen gustuak eta interesak kontuan hartuta; egin ahala egingo dugu bidea, alegia", kontatu du Alaine Agirre dinamizatzaileak.

Askotariko liburuak

Poesia nahiz eleberria, nobedadeak edota klasikoak izango dituzte esku artean. Proposamen irekiak jasoko dira, ordea, irakurleen taldean, helburua irakurketaz gozatzea dela nabar-



Sortu berri den irakurketa klubeko kideak, udal liburutegian. M.A.

mendu du-eta Agirrek: "Motxila bete-betea ekarri dut hainbat libururekin. Baina, batez ere, eleberriak ekarri ditut, ohartuta bainago gusturen irakurtzen direla. Nobedadeak ere ekarri ditut, bai, baina ez ditugu soilik

nobedadeak irakurriko, taldea edozein proposamenetara irekia baitago. Hasi, baina, Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* eleberri berriarekin hasiko gara. Taldea entzuteko, aldiz, prest eta gogoz nago".

Emozioekin konektatu

Idazle bermeotarrak argi du irakurketa prozesuan emozioekin konektatzea gakoa dela, eta bidea plazeretik egin behar dela, alegia. Eta horretarako, literaturaren aitzakian, irakurketa klubak gune ezin hobeak direla aitortu du: "Irakurketarekin atxikimendua lortu nahiko nuke. Taldeak oso anitzak izan ohi dira, eta askotariko egoerak daude: oso irakurleak direnak, baina ohitura galdu dutenak eta berriro berreskuratu nahi dutenak, euskaraz irakurtzea kostatzen zaienak, zerbait berria probatu nahi dutenak, oso irakurleak ez direnak... Denetarik dago eta guztiengana egokitzea da nire asmoa. Nik neuk nahi dudana da irakurketarekin norbanakoak barruarekin konektatzea, eta gustura irakurtzea ondoren, hortik eraikitzeke. Horrek ez du esan nahi adimena ez dugunik elikatzen. Autoexijentziatik, diziplinatik eta elitismotik ez dut uste ezer lortuko dugunik. Uste dut plazeretik abiatu behar dugula eta argi dago gozatzen ari garenean ikasi egiten dugula".

Elkarren arteko irakurketak aberastu egiten du eta elkarre-raginez asko ikasten dela gaineratu du idazleak: "Literatura aitzakia hartuta bizitzaz berba egiten hasten gara, eta harreman berriak jaiotzen dira. Zoragarria da irakurketa talde batean ego- tea, benetan asko ikasten da

irakurketaz. Idazle moduan bizi izan dut liburu berri bat idatzi izan dudana aldiro; izan ere, liburu hori mila aldiz berridatzi da, saioetan irakurleek euren zentzua eman baitiote. Nik ere inoiz pentsatuko ez nukeen zentzua ematen diote. Irakurle modura ere esperimentatu dut hainbatetan eta, norberak egin duen irakurketa besteein elkarbanatuta, irakurketa aberastu eta osatu egiten dugu. Biziki gomendatzen dut, baita oso literatura-zaleak ez direnendako ere. Proba egin eta etor daitezela lasai asko".

Bigarren saio irekia

Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* eleberriak norbanako bakoitzari eragindakoaz hausnartzeko beste saio bat egingo dute. Taldeak hala adostuta, apirilaren 7an elkartuko dira berriro, liburutegian, 18:30ean. Taldea irekia da eta herritar orok dauka etortzeko aukera: "Azpimarratu nahiko nuke ez dagoela jarraitzeko edo saio guztietara etortzeko –eta ezta liburu osorik irakurtzeko– beharrik edo konpromisorik. Saioak irekiak dira edonorendako".

**BIGARREN SAIOA
APIRILAREN 7AN
EGINGO DUTE,
LIBURUTEGIAN,
18:30EAN HASITA**



ARROLA

Elurraz eta eskiaz gozatu dute

Primerako asteburua igaro dute Arrola Mendi Elkarteko hamazortzi mendizalek. Iraupen eskiaz eta elurraz gozatu dute, besteak beste, Belaguan. Izan ere, asteburu osoko irteera hori Arrolak 50. urteurreneko ekintza eta ospakizunen baitan antolatu du. Hala,

domekan, eta A8M lasterketako giroa aprobetxatuta, Arrolak logo berria daraman kamiseta eta kantiplora erakutsiko ditu. Herritarrek enkargua egiteko aukera ere izango dute, 11:00etatik 13:00etara Herriko Plazan jarriko duten mahaira joanda.



ENKO UNANUE

Talde-lana badabil bidea egiten

Piztu gaztetxea ekimenaren bigarren fasean, gaztetxea zabaltzeko zenbait helburu finkatu dituzte. "Nolako ekintzekin jendea erakarriko genukeen hausnartu dugu; eta ireki aurretik garbitu egin behar dugula. Zehazten goaz, eta etortzen diren herritarren ideiak jasotzen jarraituko dugu; gaur, egubakoitza, beste bilera bat egingo dugu, 19:00etan, gaztetxean".



Pandemia aurreko Aratusteetako erretratu. GOIENA

Aratuste-dantzek girotuko dituzte kaleak

Aurtengo Aratusteetan herriko kaleak kolorez jantziko dira. Ohiko festarik egongo ez den arren, Oinarinek herritarrek dantzari egitera animatu nahi ditu eta nahi duenak pilotalekuan bazkaltzeko aukera izango du. Musikak ere izango du lekua

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurtengoak COVID-19ak eragindako Aratusteak izango diren arren, osasun egoerak zertxobait hobera egin du. Hala, Aratuste-festak goxatzeko ekintzaren bat edo beste izango da herrian –momentuan momentuko osasun neurriak betez–.

Otsailaren 26an eta 27an ospatuko dira eta ez da ohiko moztorro festarik eta lehiaketarik izango. Bai, ordea, nahi duenarentako Aratuste-dantzaz, bazkariak eta musikaz goxatzeko aukera.

Dantzarako gertu

Azken unera arte zain egon da Oinarin dantza taldea, baina egoerak hobera egin duela eta herriarrek dantza egitera animatu gura ditu Aratuste-zapaturako. Hartza, tximinoa eta hezitzailea lagun dituztela irtingo dira goizean, herriko kaleak alaitzeko asmoz. Horiek horrela, biharko, herri entsegua antolatu dute. "Aratusteak gai-

nean ditugu, eta, osasun egoerak hobera egin duela ikusita, martxan jarri gara. Egoera berezi hau kontuan hartuta, herritar guztiei eman nahi diegu aukera aurtengo saioa nahieran antolatu eta dantza dezaten. Beraz, entsegu herrikoi irekia egingo dugu bihar, goizeko hamarretan, Torresoroan. Aratusteetan dantza egin nahi duten orok izango du parte hartzeko aukera. Animatu parte hartzera! Ederki pasatuko dugu!", nabarmendu du Oinarin dantza taldeak.

Bazkaria eta musika

Zapatuan, pilotalekuan herritarrek aukera izango dute bazkaltzeko. "Aulkiak eta mahaiak jarriko dira eta nahi duenak

OINARINEK BIHAR HERRI ENTSEGUA EGINGO DU, TORRESOROAN, 10:00ETAN HASITA

etxetik eramandako janariarekin bertan jateko aukera izango du", adierazi dute sormen batzordeko kideek. Gaur Nafarroako Puro Relajo taldeak girotuko du, 21:30ean, plazan. Ezagunak diren rantxerak abesten dituzte; horietako asko, euskaraz. Nafarrak diren arren, aski ezagunak dira Gipuzkoan. Domekan, berriz, Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna izango da.

Erretiratuen festa

Herriko erretiratuek ere Aratuste-martitzena ospatuko dute martxoaren 1ean, 18:30ean. Ilusioa berreskuratzeko asmoz egingo dutela moztorro lehiaketa jakinarazi du Landatxoepk. "Bertaratzen direnendako merienda antolatu dugu, eta, horren ondoren, moztorro onenari saria emango diogu". Izena eman dezakete interesa dutenek otsailaren 21ean eta 22an Landatxoperen bulegora joanda, 16:00etatik 18:00etara. Prezioa 4 euro da.



AMAJA MUNDINANO

Patioko arrapala, irisgarria

Aurreko astean hasi ziren eskolako patiorako sarrera irisgarriago egingo duen arrapala egiteko lanak. Arrapala egiteko lanak amaituta, astean jarri berri dute eskolako patioko ate berria. Hala, erabilgarri dute herritarrek jada. Arrapala egitea, barandak jartzea eta ate berria, guztiaren kostua 8.700 eurokoa da.

Bizipozaren Eguna ospatuko dute bihar goizean herritarrek

Iaz Pirritx, Porrotx eta Marimotsek Antzuolako herriari oparitu zioten gereziondoa landatuko dute bihar. Bizipozaren Eguna izenpean egingo dute zuhaitz landaketa. San Joserako bidean, lehen bihurtunearen parean dagoen belardian landatuko dute, zehazki.

Aurretik, baina, Beheko auzoan, 11:30ean, zuhaitzaren bueltan jartzeko harriak margotuko dituzte herriko gaztetxoek. Behin hori eginda, trikitilariak lagundutako kalejirarekin San Jose-rantz joango dira antzuolarrak. Haurren eta erretiratuen artean landatuko dute gereziondoa, eta, tartean, dantzak eta kantuak ere izango dira.

Muralgintza ekimenaren bigarren fasea: horma bila

Muralgintza proiektuak herriarren artean izandako harrera ona ikusita, ekimenari jarraipena ematea erabaki dute Udalak eta proiektuaren egile diren Ione Larrañagak eta Oier Peñagarikanok. Horretarako, horma berrien bila hasiak dira. "Mural berriak egiteko herriko pareta berri bila gabiltza bloke edo etxeetan –hormak, garaieetako ateak, portikoak...–. Proiektu honekin bat egiten duten bizi-lagunek, ados eta prest badaude, martxoaren 6ra arte dute mezua bidaltzeko ionelarrago@gmail.com helbidera", azaldu dute. Murala 2022an zehar margotuko diete euren etxe zein garaieetako hormetan.

MUJKA HARATEGIA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Eratu eta lanean hasita dago Korrika batzordea

Elgetan ere martxan da Korrika batzordea. Euskararen aldeko lasterketa ez da herriitik pasako, baina bada hura babesteko nahia eta Elgetan herri mailako ekintzak egiteko asmoa. Arropa salmentarekin eta Korrika laguntzaile kanpainarekin hasiko dira

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Eguaztenean eratu zen Elgetako Korrika batzordea. Debagoieneko Korrika koordinatzaile Ikuska Lizarralde gidatutako batzarrean, batzordea eratzeaz gainera, lehenengo lan ildoak adostu zituzten. Hala, martxoaren 2rako deitu dute hurrengo Korrika batzarra. Udaletxean izango da, 18:30ean. "Batzordea zabalik dago parte hartu nahi duen orrendako, eta herriko jendea animatu nahi dugu bertan parte hartzera", azaldu du Lizarralde.

Arropa salmenta

Korrikarekin lotuta herrian egingo den lehenengo ekintza Korrika salmenta postua martxan jartzea izango da. Hala, herrian bertan Korrikako materiala erosteko aukera izango dute elgetarrek martxoaren 3an eta 4an, 18:00etatik 19:00etara, plazan. Eskola atarian ere jarriko dute postua, martxoaren 4an, 15:45etik



Korrika batzordea eratzekeo batzarrean elkartutako herritarrak. IKUSKA LIZARRALDE

16:30era. Erosketa online ere egin daiteke, *Korrika.eus* atariko dendan.

Lehenengo proposamenak

Korrika martxoaren 31n abiatuko da Amurriotik eta apirila-

ren 10ean helduko da Donostia-ra Euskal Herri osoan bi mila kilometro baino gehiago eginda. 2022ko Korrika ez da Elgetatik pasako baina elgetarrak ekimenaren bat egitera gonbidatu dituzte Korrika Txikia, Korrika

"Herritarrak animatu nahi ditugu batzordean parte hartzera"

IKUSKA LIZARRALDE DEBAGOIENENKO KOORDINATZAILEA

Ikuska Lizarralde da Debagoieneko Korrikako koordinatzailea. Pozik agertu da Elgetako lehen batzordeak emandakoarekin.

Elgetan ere martxan da batzordea.

Bai, eta herriko jendea animatu nahi dugu bertan parte hartzera.

Korrika ez da Elgetatik pasako, baina badago asmoa Elgetak bere lekua izan dezan ibilbidean.

Korrika Elgetatik pasatzen ez denez, proposamena zabaldu da Bergarako ibilbide hasieran —Dia supermerkatu inguruan— Elgetak diruz lagunduriko kilometroa izateko; ofizialki tramu hori Elgetarena izateko.

Bestelako proposamenak ere izan dira?

Bai; esaterako, herri mailako Korrika egitea, eta baita ere



L.Z.L.

Korrika Txikia egitea. Joango gara gauzak lantzen eta zehazten.

Bitartean, Korrika denda eta Korrika laguntzaile egitea egongo dira aukeran.

Arropa herrian bertan erosteko aukera izango da laster. Korrika laguntzaile kanpaina ere martxan da. 12 euro dira eta hainbat abantaila daude bi urterako; pina, Korrika txartela, zozketak... *Korrika.eus* atarian egin daiteke. Eta liburutegian ere ipiniko ditugu eskaera-orriak.

BATZORDEA MARTXOAREN 2AN ELKARTUKO DA HURRENGO, 18:30EAN, UDALETXEAN

Ibiltarien Jaia bueltan dator: martxoaren 13rako iragarri dute

Bazkaririk ez dute antolatuko, baina 24 kilometroko mendi ibilbidea 08:00etan abiatuko da, kiroldegitik

L.Z.L. ELGETA

Urteroko hitzordua da Elgetan, baina pandemia egoeratik bertan behera gelditu da azken bi urteetan. Egoerak hobera egin du eta mendi martxa berreskuratzekeo erabakia hartu dute antolatzaile lanak egiten dituzten Euskal Mendizale Federazioak, Elgetako Udalak eta Kantzateke mendi taldeak.

Ehundik gora mendizale elkartu izan dira Ibiltarien Jaian, eta, ia hilabete gelditzen bada ere, zabalik da mendi martxan izena emateko aukera. 08:00etan



2019ko mendi martxa. ARTXIBOA

abiatuko da, Elgetako kiroldegitik, eta Intxorta, Erdella, Egoarbitza eta Azkonabitza izango dira ibilbidean. Amaitutakoan, parte hartzaileek erabilgarri izango dituzte kiroldegiko dutxak. Izen-ematea doan da, eta zabalik egongo da martxoaren 11ra arte *Zirkuitua.com* eta *turismoa@elgeta.eus* helbideetan.

24 kilometroko mendi martxa

Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen iraupen luzeko ibilaldien amaierako ospakizuna izan ohi da Elgetakoa. 2020ko zirkuitua bat batean gelditu zen bertan behera pandemiarengatik, eta 2021ekoa ez zen egin. Hala, aurten ez da diploma banaketarik egingo Ibiltarien Jaian. Gauzak ondo bidean, 2022ko zirkuitua martxoan abiaraziko dute, Aizkardiko ibilaldiarekin.

Martxo hasieran 'Emozioen garrantzia familian' saioak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Treba Gurasoak ekimenarekin bat egin du Elgetako Udalak, eta bina orduko bi formakuntza saio egingo dira. Seme-alaba nerabeak dituzten familiendako eskaintza da. Haien emozioak zaintzeko gakoak emango dituzte Leyre Canok eta Donna Apeñaniz Nietok. Saioak izango dira martxoaren 2an eta 9an, 17:00etatik 19:00etara, udaletxeko areto nagusian.

Beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Astelehenean zabaldu da izenematea udaletxean. Interesatuak *udala@elgeta.eus* helbidera idatzi behar dute edo 943 76 80 22 telefonora deitu behar dute.

OHARRAK

Podologoa

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, podologo zerbitzua izango da astelehenean erretiratuendako. Txanda hartzeko, deitu: 667 80 70 06 (Olga Fernandez).

Plastiko bilketa

Baserrietan sortutako plastiko bilketa zerbitzua emango du Debagoieneko Mankomunitateak martitzenean. Aurrez eskatu behar da, 943 76 25 47 telefonora deituta.

Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak Salbador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

Ipuin erotikoak gaur eta koko-batzea bihar

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak 'Erotik, zerotik, berotik' izeneko kontakizuna egingo du gaur, 22:30ean, liburutegian. Biharamunean, Inauteriak izango dira Elgetan: neguko loalditik esnatuko da hartza eta kokoekin batera baserriz baserri ibiliko da

L.Z.L. ELGETA

Aurreko astean pornografiaren argiak eta itzalak aztertu ostean, aste honetan ipuin erotikoen txanda izango da liburutegiak antolatutako *Bibliobero* zikloaren barruan. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalari usurbildarrak hainbat kontakizun *pikante* egingo ditu; betiere, umorez jantzita. "Nik beti sartzen dut umorea, eta erotismoarekin egin daiteke umorea. Nola ez!". Askotarik pertsonaiekin osatzen du kontakizuna, baina narrazio honetan hari nagusia adin batetik aurrerako lau emakume dira. Gizarteko tabuak eta garaiko debekuak tarteko ez dute sexualitatea askatasunez gozatzeko aukerarik izan, eta kontu-kontari eta han entzundakotik edo hark esandakotik joaten dira gauzak ikasten, eta, zergatik ez, probatzen.

Emozio uholdea da erotismoa: bihotz taupadak, desioa, pasioa, laztanak, espermentazioa... Baina baita ere desilusioa, hanka sartzeak eta esperientzia gazi-go-zaok.

Aurretik ere Elgetan izandakoa da Agirresarobe. "Umekin eta helduekin egin ditut saioak. Kosta egiten da, oraindik ere, helduak ipuin saioetara gerturatzeko. Ez da Elgetako kontua



Ixabel Agirresarobe usurbildarra ipuina kontatzen Elgetako liburutegian. L.Z.L.

EMOZIO UHOLDEA DA EROTISMOA ETA FORMA ASKO HAR DITZAKE; BAITA ERE IPUIN SAIOARENA

bakarririk. Ea oraingoan animatzen den jendea", esan du.

Mintzapraktika astelehenean

Euskarazko mintzapraktika egin nahi dutenek aukera polita dute astelehenean, liburutegian *Bi-*

delaguna zure zain egitasmoaren beste saio bat izango baita. Orain arte ez du esperotako erantzunik izan, eta ikasturteko azken saioa izango da. Bidelagun bat izango da liburutegian, 18:30etik 19:30era. Mintzapraktika egin nahi duen oro joan daiteke solasaldia egitera.

Liburutegikoek jakinarazi dute, bestalde, atzeratu egin dela Amaia Elizagoienekin eguazteen hastekoa zen ikastaroa. Bederatzi lagun daude izena emanda. Ahal bezain pronto jarriko dituzte data berriak.



Ikasle talde bat eskola atarian manifestua irakurtzen. ELGETAKO HERRI ESKOLA

Ikasleek haur minbiziaren gaia landu dute eskolan

'Bizitzaren zuhaitza' egin dute denen artean eta nagusiek manifestu bat irakurri dute eskola atarian

L.Z.L. ELGETA

Martitzena Haur Minbizidunen Nazioarteko Eguna izan zen, eta gaia lantzeko aukera baliatu zuten Elgetako ikastetxean. Denen artean *Bizitzaren zuhaitza* egin zuten eta LHko 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleen batzordeetako ordezkariak manifestu bat irakurri zuten ikastetxe atarian. Gaixoak izan zituzten gogoan, eta baita ere haiek zaintzeko lanean diharduten senitartekoak eta osasun langileak. Osasun langileak izan dituzte, bereziki, gogoan. "Gurasoek larrialdieta- ra edo kontsultara eramaten

gaituzten bakoitzean, ospitaleetako eta osasun-zentroetako langile guztiak adeitsuak eta maitekorrak izan dira gurekin (...) Kontsulta atseginagoa egin digute, lasaitu egin gaituzte orratzek beldurra ematen zigutenean, eta kontsolatu gaituzte behar izan dugunean. Hori guztia ez da ezer minbizia duten adingabeen alde egunero egiten dutenarekin alderatuta. (...) Gai-xotasun hau pairatzen ari diren haur eta nerabeak zaintzen dituzue. Ez bakarrik beraiek, baita prozesu gogor honetan lagun dituzten familiako kideak ere".



ELGETAKO MUSIKA GELA

Jalotzatik abiatuko da koko-eskea

Aspaldiko partez egingo den koko-batzearekin emango diete hasiera Inauteriei. Kokoek zein konpartsako gainerako pertsonaiek Jalotza baserrian hasiko dute eske-erronda bihar, 09:30 aldera. Uriarte, Arantzeta eta Egoetxeaga auzoak bisitatuko dituzte goizean eta Larrabilzearra eta Uriburualdea bazkalostean. Plazan amaituko dute, 18:30 bueltan.



Jendetsua izan zen barikuan gimnasioan egindako batzarra. I.A.

Pozik domina banarekin

Elgetako hiru piano ikasle izan dira aurten Andoaingo piano jaialdian. Aste bukaeran jokatu da, eta domina banarekin itzuli dira Laida Untzetabarrenetxea, Irea Alberdi eta Mirari Gonzalez: zilarrezko bi domina eta urrezko bat. Pozik agertu da, baita ere, Lorea Larrañaga irakaslea. Neskatalak zoriondu ditu egindako lanagatik.

Aita Madinaren musika ondarea

Ekainean dira 50 urte Aita Madina konpositorea hil zela, baina bizirik daude haren obrak. Musika ondarea batu eta kontzertuak prestatzen ari dira urteurrenerako

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Zubillagako Txipitxalle baserrian jaio zen Patxi Madina Igarzabal (Oñati, 1907-1972), Aita Madina. Umetan sartu zen agustindarren komunitatean eta teologiarekin batera hasi zen musika ikasketak egiten. Oñatin egon ostean, Burgoen, Argentinan eta New Yorken ere ibili zen eta oso estimatua izan zen bere musika obrenatik. Buenos Airesen sortutako Saski Naski mugimenduan ere oso sartuta egon zen. Nestor Basterretxea artista, Nikanor Zabaleta harpa-jotzailea eta Jose Manuel Azkue organista famatua, adibidez, lagun eta jarraitzaile izan zituen. Ekainean beteko dira 50 urte hil zela, eta urteurrena prestatzen ari dira.

Ospe handiko konpositorea

Pisu eta sona handiko konposatzailea izan zen Aita Madina eta haren heriotzak oihartzun handia izan zuen. Jende asko etorri zen haren hiletara, eta, agustindarren elizan egin ordez, San Miguel parrokiaren elizan egin zuten, eliza handiagoa zelako. Oñatiko Irrintzi otxoteko kideek eraman zuten zerraldoa eliza batetik bestera. Otxoteendako pieza asko idatzi zituen Aita Madinak eta horiek kantatzen txapelketa bat baino gehiago irabazi zituen Oñatin sortutako Irrintzi otxoteak, 1960ko hamarkadan, otxoteen goraldian.

Gizonezkoen ahotsetarako ez ezik, abesbatzendako, orkestrarako, operak... askotariko obrak idatzi zituen Aita Madinak eta lan horiek inork baino hobeto ezagutzen ditu Xabier Ugarte musikari oñatiarrak. Makina bat aldiz egon da haren lanak gordeta dauden artxiboan, agustindarren elizako goiko pisuan. Artxiboa ordenatzen hasi zen duela pare bat urte eta urteu-

rrenaren data etorri da parean. Jotxo Larrañaga izan du lagun ekimen honetan eta originalak, kopiak, pianorakoak, organoarekin jotzekoak... sailkatzen ibili dira; obra guztiak eskaneatu dituzte. "Eresbilekoekin ere jarri gara harremanetan eta asmoa da haren esku uztea Aita Madina zenaren musika ondarea. Hala ere, artxiboa Oñatin mantentzea da planteamendua, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, hain zuzen ere", dio Aita Madina talde eragileko kide Jotxo Larrañagak.

Azken hilabeteetan musikari asko izan dira Aita Madinaren artxiboan haren lanak bertatik bertara ikusten eta partiturak eskuetan hartu eta momentuaz gozatzen. "Gaur egun digitalizatuta dauden partiturak izaten dituzte esku artean musikariek eta hemen, ordea, eskuz idatzi-



Aita Patxi Madina Igarzabal.



Urteurrenerako egindako logoa. J.E.



Esteban Irusta, Paulo Anduaga eta Loli Ordoki, agustindarren koruan. O.E.

takoak daude, originalak, eta harrituta gelditu dira. Obra batzuetan, adibidez, pentagramen ondoan, Nestor Basterretxeak eskuz egindako marrazkiak edo irudiak ikusten dira. Baita berak eskuz egindako konponketak edo apunteak ere. Eresbileko Jon Bagües eta Pello Leñena, Josu Okiñena piano-jotzaile donostiarra, Aitor Olea organista edo Enrike Solinis gitarrista izan dira, besteak beste, artxiboa ikusten".

324 obra katalogatuta

Oñatiko musika bandako eta Ganbara abesbatzako zuzendari Aitor Biainek 13 bat urterekin Oñati abesbatzan sartu zenetik entzun du Aita Madinaren izena, eta haren lanak ikertu ditu ikerketa musikalaren gainean egindako ikasketen barruan. "Aurretik bazegoen Aita Madinaren

lanen funts bat, duela urte batzuk Udalak eginda. Baina musika irizpiderik gabe zegoen egina eta dokumentuak baino ez ziren. Irizpide batzuk jarri eta horien arabera, artxiboko obra bakoitza hartu eta katalogatzen hasi nintzen. 324 katalogatu ditut. Horietatik 291 daude artxiboan, beste 33 obra galduta daude. Irakurri dugu horien berri lehenengo egunkarietako artikuluetan, adibidez, baina obrak ez ditugu ikusi. Badaude oraindik ezagutzen ez diren piezak ere". Horren adibide bat da, esaterako, joan den zapatuan, Donostian, Musikeneko orkestra sinfonikoak egindako kontzertuan jo zuten *Tetraludium*. Unai Urretxo arrasatearrak zuzendu zuen kontzertua, eta, Madinaren lanaz gain, Jesus Guridiren, Pablo Sorozabalen eta Francisco Escuderoen obrak ere jo zituzten. Lau euskal

"Begiak itxita abesten ditut Madinaren lan kutunak"

LOLI ORDOKI OÑATI ABESBATZAKO KIDEA

Loli Ordokik ez zuen Aita Madina ezagutzen. *Aita Gurea* lehen aldiz kantatu zuen egunean, baina, zeharo maitemindu zen konpositore horren lanekin.

Nola heldu zitzaizun bere musika?

Jose Mari Arzuagak Madinaren obra bat abestu behar nuela esan zidan behin. Berak eta Julian Zelaiak lagundu zidaten *Endetxa* prestatzen. Oñatiko Shola Cantorum abesbatza mistoarekin eta Donostiako orkestrarekin izan zen. *Aita Gurea* ere orduan abestu nuen, Unibertsitateko klaustroan, eta deskubrimendu bat izan zen niretako pieza hori. Orduan

sentsibilizatu nintzen berarekin. *Sehaska hutsa* Gabon kanta ere oso kutuna dut, bizipen batekin lotzen dudalako. Tolosan abestu genuen behin, eta sekulako oihartzuna izan zuen prentsan. **Noiz ezagutu zuen bera?** Oñatira etorri zen batean plazako arkupetan paseoan ari zela ikusi nuen, baina ez nintzen ausartu berarengana joaten, gehiegi zen niretako. Handik urte batzuetara gaixorik zegoela etorri zen etxera, eta Imanol Muruari eskatu nion laguntza hara joateko bera agurtzera. Bere *Aita Gurea* abesten zuena ni nintzela esan zion Muruak, eta hunkitu egin zen. Bazuen nire berri.



O.E.

Sorpresa bat ere eman zenion.

Arantzazu partitura hartu eta Pello Zabalarengana joan nintzen, berak organoarekin jo eta nik abestuta grabatzeko.

Kasete txiki batean grabatu genuen eta Aita Madinari jarri nion. Sekulako sorpresa hartu zuen eta ikaragarri hunkitu zen. Bere hiletan abestu nion berriz. *Aita Gurea* eta *Arantzazu* begiak itxita kantatzen ditut beti.

Eta behin, Arantzazura bidean...

Senarrari eta biori palan jokatzeari gustatzen zitzaigun. Behin, Arantzazura nindoala, palekin, Aita Madina ikusi nuen harrobi parean oinez Arantzazu aldera, beste gizon batek lagunduta. Gelditu nintzen agurtzera, eta esan zion lagunari: "Nire bakarlarria da hau, nirea". Sekulakoa izan zen hori niretako. Bere musika barruraino sartzen zait niri, benetan bizi dut, eta hori entzutea ikaragarria izan zen niretako.



Aita Madinaren etxeokak, beste konpositoreen senideak, Oñatiko ordezkaritza eta agintariak zapatuan Musikenen. MUSIKENE

konpositoreen senideak izan ziren emanaldian, baita Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua, eta Oñatiko kasuan, Aita Madina talde eragileko Jotxo Larrañaga eta Udaleko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde.

'Aita Gurea'

Aita Gurea da, ziurrenik, Aita Madinaren obrarik ezagunenetako eta kutunetako bat. Buenos Airesko Lagun Onak abesbatzara bidali zuen, baina bere ize-narekin sinatu ordezkari Pablo Sorozabal entzutetsuarekin sinatuta, bere lanak oso aurre-rakoiak zirela uste zutelako askok eta eztabaidak zeudelako. Baina estreinaldi egunean bertan heldu zen Sorozabal Argentinara, eta egindako tranpa kontatu zion oñatiarrak; umorez hartu zuen donostiarrak. Buenos Airesko Metropolitana katedralean estreinaldi zuten, egilearen izena erabiliz, 1947ko apirilean.

Hamar urte geroago, 1957an, jo zuten pieza hori, lehenengoz, Euskal Herrian. "Oñatiko parrokiari, Donostiako Victoria Eugenia antzokian eta Bilboko Arriagan egindako kontzertuetan izan zen, Bilboko orkestra

sinfonikoarekin eta Bergarako Jose Mari Gonzalez Bastidak zuzenduta. *Aita Gurea* eta *Arantzazu*, obra biak estreinaldi ziren emanaldi haietan", du gogoan Aita Madina ezagutu eta haren lanak organoarekin mila aldiz jo dituen Esteban Irustak. "Agustindarretan ezagutu genuen, Oñatin, eta oso modernoa eta irekia zen garai hartarako. Horrelakoak dira bere lanak ere. Marrazten eta idazten ere ona zen, artista osoa zen. Bere musika barruraino sartzen zait niri eta beste askori ere bai. Maiz gertatu zait haren pieza bat jo ostean jendea galdezka etortzea, gustatu zaio-lako. Jose Manuel Azkue eta Burdeosko katedraleko organo jotzailea, tartean".

Pieza hori jo zuten, esaterako, Aita Madinaren hiletan ere. Baita *Laudana sidion* ere, egileak Corpus egunean abesteko eskae-

rarekin idatzi zuen pieza eta egun, oraindik ere, jotzen dutena Oñatin, Corpus egunean. "*Arantzazu* ere abestu nuen. Orduan ez zegoen mikrofonorik, eta ondo entzuteko moduan jarrita abestu nuen", du gogoan Loli Ordokik. Madina zalea da Ordoki, "indar berezia duen musika" egiten duela dio. Oñati abesbatzarekin askotan kantatu ditu bere obrak.

Ospakizunak aurtan

Ekainaren 30ean 50 urte beteko dira Aita Madina hil zela. Udalak 12.500 euro jaso zituen aurrekontuetan haren heriotzaren urteurrenerako eta dagoeneko lanean ari den talde eragile horrek erabiliko du kopuru hori ospakizunetarako. "Ekainean, adibidez, kontzertu pare bat egingo dira, abesbatzarekin eta organoarekin bat eta organo hutsarekin beste bat, Amaia Azpiatzuk abestuta. Uda ostean, berriz, Arantzazun bat eta Oñatin beste bat, Esteban Urzelaik zuzenduta", dio Larrañagak. Logo bat ere egin dute urteurrenari lotutako ekitaldietan erabiltzeko; Jabi Erostarberena da.

ARGENTINAN ESTREINATU ETA HAMAR URTERA ENTZUN ZEN 'AITA GUREA' HEMEN

Oñatin Korrika propioa egiteko ideiarekin hasi dira lanean

Apirilaren 1ean izango litzateke, herri barruan, eta Elorregin bat egin ofizialarekin, hara bidegorritik joanda

O.E. OÑATI

Korrika ez da aurtan Oñatitik pasako, eta Debagoieneko AEK-ren proposamena Oñatin Korrika propio bat antolatzea da, eta Elorregin egitea bat ofizialarekin. Planteamendu horrekin etorri ziren bailarako AEK-ko ordezkariak astelehenean egindako Korrikako bilerara, eta horixe izan zen bileraren abiapuntua.

Elorregira, bidegorritik

Oñatin bertako Korrika egitea izan da proposamena, ibilbide baten barruan, eta segidan, bidegorritik Elorregiraino joan han Bergararik Arrasaterako bidean pasako den Korrika nagusiarekin bat egiteko, 12:30 aldera, apirilaren 1ean. Handik Ekilore ingurura bitarteko kilometroan, Oñatiko eragileek eramango lukete lekukoa.

Idea gustatu zaie bileran parte hartu zutenei, hezkuntzako

ordezkariak gehienak, eta hori nola egin edo nola antolatu pentsatu eta erabaki beharko da hemendik aurrera. Korrika Txikia edo Korrika Kultureko ekitaldirik egitea, bestalde, ez zen zehaztu, nahiz eta ondo iruditu.

Martxoaren 3an

Hurrengo bilera martxoaren 3an egingo dute, 18:00etan, kultura etxeko goiko pisuko gelan. Bilerak irekia izango da hori ere eta kulturako eta kiroleko ordezkariak ere gonbidatuta daude, herritar guztiak bezalaxe. Martxoaren 5ean, bestalde, Korrikako materiala saltzeko postua jarriko dute plazan, zuhaitz azoka egingo dela aprobetxatuz. Arropa ez ezik, txapak erosi eta Korrika laguntzaile izateko aukera ere egongo da. Kilometroak erosteko bidea zabalik dago: korrikadebagoiena@gmail.com.

IAk salatu du irakasle baten jarrera; gezurra dela diote irakasleek

Ikasle Abertzaleek idatzi baten bidez salatu dute Oñati Institutuko irakasle batek ikasle batzuk "iraindu" izana eta, era berean, zuzendaritzak hori saihesteko hartutako neurrien "eraginkortasunik eza". Hori dela-eta, ikasleak erakundeak elkarretaratzea deitu du gaurko, 19:00etarako, Irunberri Plazan. Institutuko irakasleek, berriz, adierazi dute

IAren hainbat adierazpen "falsuak" direla, eta beste hainbat "testuingurutik aterata" daudela. Eta eskatu die elkarretaratzea bertan behera uzteko. Gauza bera eskatu die IA erakundeari Institutuko ikasle batzuek ere. Idatzia "zehaztugabe egoteak nahasteak eta interpretazio ezberdinak egitea sorrazaz" due-la diote. Gehitu dute, irakasleak ez dituela egin gauza guztiak "egin beharko litzatekeen moduan", baina ez dela izan "idatzian azaltzen den moduan".

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei
erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Lehen aldiaren xarma, eta zerbait gehiago

Unax Sologaistoa aurreko asteburuan lehiatu zen lehen aldiz mendiko eskiekin, Candanchun, Causiat Extreme lasterketan. 16 urtez azpiko kategorian beretzat izan zen garaipena, eta 55 parte-hartzaileen artean hamahirugarren izan zen, gainera

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI
Mendi eskiko Causiat Extreme lasterketaren bederatzigarren edizioa jokatu zen aurreko zapatuan Candanchun, eta hainbat oñatiarrek parte hartu zuten bertan. Eguraldi ona lagun, eski goiz ederraz gozatzeko aukera izan zuten parte-hartzaileek. Hiru ibilbide zituen lasterketa, kategorien arabera, eta hirugarrenean hartu zuen parte Unax Sologaistoa 13 urteko oñatiarrek: "Mila metroko desnibela zuen".

Sologaistoarentzat ez zen beste edozein mendi eski egun otsailaren 12 hartakoa, lehen aldia baitzuen lehiatzen: "Txikitatik eskiatu dut, eta 9 urte ingururekin probatu nuen mendiko eskia. Aitarekin eta osabarekin hasi nintzen. Eta iaz hasi nintzaion denbora gehiago eskaintzen".

Etxekotzat du berak Asier Alonso *-osaba-*, amonak zaindu zuen-eta hura txikitan. Ez da ispilu txarra kirol arloan pausoak ematen joan nahi izatekotan, aholku eta azalpenik, laguntzarik, ez zaio faltako. "Txikitatik joan izan gara bera animatzera", dio; oraingoan, elkarrekin lehiatu dira, lasterketa berean, Candanchuko proban baitzen Alonso ere *-ibilbide nagusian;* sei garren amaitu zuen.

lazko negua, mugarri

Aurreko neguan Oñatiko mendietan ere nahikoa elur egun izan zenez, aukera izan zuen Sologaistoa, urrutira joan gabe, behin baino gehiagotan eskiekin jarduteko. Eta aurten, beste urrats bat: "Lehia probatzea gura nuen, lasterketa asko ikusitakoa naiz-eta. Eta oso ondo joan zen. Atze xamarrean hasi nintzen, baina jaisten-eta asko gozatu nuen, eta buelta eman nion. Eta lehenengo amaituta, are gusturago". Bi lagun baino ez ziren lehiatu 16 urtez azpiko kategorian *-ia* bi orduko laster-



Lasterketako irteera; Sologaistoa, erdian, praketatik kaskora, beltzez. U.S.

ketan, hiru minutu atera zizkion Sologaistoa bigarrenari, baina euren ibilbide bera egin zuten kategorian askotako 55 eskia-tzaileen artean hamahirugarren amaitu zuen; ez da marka txarra *-etxeko lehia* partikularra ere

irabazi zuen, bestalde, aita baino zortzi minutu lehenago amaitu baitzuen proba.


Futbolearen ere badihardu, eta, gainerakoan, mendia maite du: eskalatzea, eskia... Eskiekin jarraitzekotan da.

Hainbat oñatiar, Sologaistoaz gain

Sologaistoaren lasterketakoak bigarren ibilbideko parte-hartzaileekin batera atera ziren *-haiek ibilbide luzeagoa zuten gero-*, eta, ondorioz, ez zen erraza sailkapenean bat non zihoan jakitea: "Ez nuen uste hain aurrean nindoanik".

Beste hainbat oñatiarrek ere hartu zuten parte Causiat Extreme lasterketan, eta banakaren bat sariarekin itzuli ere bai. Jon Martonek bigarren egin zuen senior herrikoietan, eta Sara Arregik hirugarren, 20 urtez azpikoetan; anaia Haritzek, berriz, laugarren amaitu zuen 18 urtez azpikoetan *-baita hirugarren ibilbideko orokorrean ere-*.

Debagoiendarrei dagokienez, Aitor Ugarte aramaiorria izan zen onena bigarren ibilbidean *-20 urtez azpikoetan ere nagusi, beraz-*, eta Leire Ezpeleta arrasatearrak hirugarren egin zuen senior nesketan.



Unax Sologaistoa, sariarekin. U.S.



Aloñako jokalaririk bat baloia erekin, duela bi asteko lehiaren. IMANOL SORIANO

Igoera faserako aukera izateko, derrigor irabazi behar bihar

Sallekori irabazita ere, Zarautzek La Salleren kantxan galtzea behar dute oñatiarrek, lehen lauretan amaitzeko

J.I. OÑATI

"Tentsio handiko partidua" iragarri du zapaturako Aitor Ugartek, Mekalki Aloña Mendiko entrenatzaileak. Izan ere, liga erregularra lehen lau postuetako batean amaitu eta Lehenengo Mailarako igoera faserako sailkatzea dute jokoa oñatiarrek, baina baita Zubikoara datorren Sallekok ere. Are gehiago, garaipen bakarrek alde dago bi taldeen artean, eta kanpokoek irabaziko balute, puntu aldea ere alde izango lukete, gainera.

"Dena ematera etorriko dira. Talde gogorra dira, beterranoak.

Barruan oso joko gogorra egiten dute; ez dira oso azkarrak, baina badakite jokatzeko, eta irabazteko zer egin behar den ere bai", zioen Ugartek.

Sallekori irabazteaz gain, La Salle bigarren sailkatuaren kantxan Zarautzek galtzea behar du Mekalki Aloña Mendik.

Zaleei deia

18:00etan hasiko da norgehiagoka. Zubikoako harmailak zalez atonduta nahi lituzke gorrien entrenatzaileak: "Joan daitezela taldea animatzera, beharra edukiko dugu eta".



NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

2022ko egutegia eta emakumeak

Udalak, aurten ere, egutegia banatu du. Gaia kirol-jarduna da. Oñatin kirolzale asko bizi da, eta egutegiak 2022an haien aldeko hautua egitea txalotzeko da. Beste kontu bat da begi onez ikustea egutegiko argazkietan egin den genero-aukeraketa. Izan ere, penagarria da irudietan gizonezkoak nagusi izatea: *running*-ean, golfean, igerian, futbole... Emakume gutxi dago: martxoko neskatilak (Emakumeen Nazioarteko Egunari, keinua?), iraileko bikotekidea eta, bukaeran, neskatila patinetan. Barrena astindu dit, XXI. mendean, emakumea ageriko egiteko hain ahalegin txikia egiteak Udalak. Non daude Oñatiko emakumeak? Zergatik ez daude argazki gehiagotan? Bat-batean, interes gutxikoa bihurtu zait Udaleko egutegia!

Martxoaren 8an, aldarrikapen mezuek hartuko dute Oñati: ahalduntzea, desoreka, diskriminazioa... Hala ere, ez da eraginkorra egutegian emakume kirolzaleak gehiago bistaratzea eta haien aldeko aldarrikapen indartsua egitea ere? Baietz esango nuke. Nabarmendu da, ordea, aldarrikapen politiko jakina.

Etorkizuneko musikariak, banda barrutik ikasten

Datorren ikasturtean musika eskolan instrumentua aukeratu behar duten hamasei gaztetxok bandaren azken kontzertua 'zero aulkitik' jarraitu ahal izan dute; aurretik, zuzendariak halako talde bateko instrumentu guztien ezaugarriak azaldu dizkie

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Domekan, *Zinemaldia* izeneko kontzertua eskaini zuen Oñatiko musika bandak, Zubikoan. Pelikula ezagunetako soinu bandak izan zituen ardatz, baina, zuzeneko hasi aurretik, beste protagonista batzuk egon ziren han. Protagonista txikiagoak: Jose de Azpiazu musika eskolako hamasei ikasle.

Zehazki esateko, 6 eta 7 urteko neska-mutikoak izan ziren, eta, irailean hasiko duten ikasturtean, musika instrumentu bat aukeratu beharko dute. Batzuek oso garbi dute zein aukeratu, baina gehienek, ez. Eta, zalantza horiek argitzen laguntzeko, bandako kideekin egoteko aukera izan zuten.

Instrumentuak ezagutuz

Aitor Biain Bidarte bandako zuzendaria izan zuten bidelagun eta xehetasun ugari kontatu zizkien gaztetxoei: musika banda baten dauden instrumentu familiak zeintzuk diren, instrumentu bakoitzaren ezaugarriak eta soinuak nolakoak diren, instrumentu berberak zenbat aldaera izan ahal dituen, soinua ateratzeko instrumentuak ahoan sartzeko zein elementu dituen...



Xabi Arregi ikaslea, haizez-instrumentuak gertutik entzuten. IMANOL SORIANO

'STAR WARS' PELIKULAKO SOINU BANDA FAMILIAKA ENTZUTEKO AUKERA IZAN ZUTEN IKASLEEK

Hori guztia kontatu ostean, instrumentu familia bakoitzak kantu batean zein garrantzi duen azaldu zien, eta, familiak, *Star Wars* pelikularen soinu banda-ko zati bat jo zieten bandako musikariek ikasleei.

Kontzertua, barrutik

Azalpen guztiak entzun eta gero, kontzertuaren unea heldu zen eta musika eskolako ikasleek bandako musikarien ondoan jarraitzeko pribilegioa izan zuten. Aurrez aukeratu zuten zein instrumenturen ondoan egon gura zuten, eta aulki horietatik jarraitu zuten zuzeneko.

Hurrengoa, martxoan

Musika bandaren hurrengo saioa pedagogikoa izango da. Martxoaren 20an eskainiko dute *Peru eta Otsoa*, 13:00etan, Zubikoan.



Liher taldeko kideak, promozio argazkian. IRANTZU PASTOR

Laugarren diskoa aurkeztuko du bihar Liher taldeak gaztelekuan

Ia lau urtez herrira etorri barik egon ostean, "ilusioz" datoz, "konexio berezia" baitute oñatiarrekin

A.T. OÑATI

Sei urtean lau disko argitaratu ditu Liher taldeak; azkena, iaz azaroan, hamaika kantuz osatutako *Eta hutsa zen helmuga*. Lan berria aurkeztuko dute bihar, zapatua, eskainiko duten kontzertuan, eta aurreko diskoetako kantuak ere entzun ahal izango dira tarteka. Ilusio handiz daudela azaldu du taldeko abeslari eta gitarra-jole Lide Hernandok: "Oñatin hainbat aldiz jo dugu eta, gainera, konexio berezia izan dugu betidanik; hasieran, gure soinu teknikaria herrian hainbat saltsatan ibiltzen den Iñaki Zubia oñatiarra zen. Hala ere, egia da 2018a ezkerro ez garelako bertara joan; beraz, ia lau urte pasa dira Oñati zapaldu gabe, pandemia bat tarteko. Itzultzeko gogo handia daukagu guztiok".


Azken bi urteetan ez dute aukera askorik izan taula gai-

nera igotzeko, baina diskoaren aurkezpen hasiera "polita" izan dutela esan du Hernandok: "Azaroa oso intentsua izan zen, neurri askorik ez zegoen pandemiari dagokionez, eta zazpi bat kontzertu eman genituen; lehendabiziko kontzertuak Euskal Herritik kanpo -Valentzian eta Gaztela eta Leonen-, eta gero itzuli ginen Amurriora, Ondarroara, Durangoko Azokara... Hain zuzen ere, oso-oso harrera politak izan zituzten zuzeneko horiek".

Rocka dute oinarri eta ikus-entzuleek euren musikarekin disfrutatzea nahi dute Oñatin emango duten kontzertuan ere.


Sarrerak, salgai

Bihar, zapatua, 20:00etan gaztelekuan eskainiko dute zuzeneko, eta sarrerak salgai daude Udalen webgunean eta Txokola-teixan, 6 eurotan.




HAIZEA IDIGORAS
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEA

"Tronpeten ondoan jarri naiz; izan ere, agian, instrumentu hori aukeratu dut. Etxean oraindik ez daukat, baina bere soinua asko gustatzen zait".



JAKES OLALDE
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEA

"Saxofoia aukeratu dut, asko gustatzen zaidalako. Haize-instrumentua da, eta urre kolorekoa. Aitak bateria jotzen du; tarteka, hori irakasten dit".



NORA KORTABARRÍA
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEA

"Ez dakit etorkizunean bandan joko dudana, baina, momentuz, saxofoia aukeratzekotan nago. Gainera, osabak panderoa jotzen irakatsiko dit".

Mentertz, Nare, Yogurinha Borova eta Malakias, gaztetxean

Arrotxapeko gaztetxearen aldeko jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Antixeneko gaztetxean, 21:00etan. Mentertz taldea igoko da lehenengo oholtzara; gero, Nare; ostean, Yogurinha Borova; eta euskal abestien moldaketak egiten dituen Malakias DJak emango dio amaiera. Sarrera 5 euro ordaindu beharko dute soldata dutenek; eta 3, ez dutenek.

Oñatiko Inauteriak hamargarren urtez kaleratzeko prest

Joan den zapatuan egin zuten lehen entsegu orokorra Oñatiko Inauteriak hilaren 26an herritar guztiei erakusteko, eta oraingoan egingo dute azkena. Datorren zapatuan, 10:30ean, ekingo diete dantzei, Eltzian, eta, herriko kaleetan ibili ostean, 14:00 inguruan, Foruen plazan dantzatuko dituzte erreperatorioko abesti guztiak.

"Nire lasterketarik gogorrena izan da hau"

XABIER FERNANDEZ 'PURITO' AUTO PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Buruko tumore bat kentzeko 13 orduz kirolfanoan egon eta gero 2017ko Espainiako erresistentzia txapeladuna ondo errekerperatzen dabil

Xabier Urtzelai ARRASATE

Xabier Fernandezek (Arrasate, 1984) automobilismoa du pasio. 2016an RACEko txapeldun izan zen –turismoetan–, 2017an Espainiako erresistentzia txapelketa irabazi zuen Los Arcosen, eta 2018an, besteak beste, Gorkako igoeran txapela jantzi zuen. Urte hartan, Urrakiko igoera egin eta Seat Leon autoa saldu zuen, CM barketa bat erosteko asmoz. Baina hura izan zen *Purito*-ren azken lasterketa. Ikusmenean zituen arazoek –ikusmen bikoitza– ez zuten auto berria erostera animatu, eta iaz irailean eman zioten berria, tumorea zuen begiko nerbio motorrean. Joan den astean egin zioten 13 orduko ebakuntza, eta, zorionez, dena joan da ondo.

Zer moduz zaude?

Ondo; oraindik ebakuntzaren ondorioak nabaritzen ditut, baina ezin naiz kexatu. Buruko orbainak min egiten dit, aurpegiaren alde batean ez dut sensibilitaterik eta oraindik begi batean ikusmen bikoitza daukat. Baina medikuek esan didate dena ondo bidean %100 errekerperatuko naizela.

Sare sozialen bidez eman duzu aditzera gertatu zaizuna.

Bai; banuen barrenak husteko beharra. Lasterketetatik kanpo



Xabi Fernandez, buruko ebakuntzaren ostean. X.F.

egin ditudan urte hauetan lagun askok galdetu izan didate ea ez neukan itzultzeko asmorik, baina nik ez nien ezer kontatzen. Hala, sare sozialetan umore apur bat erabilia automobilismoaren bueltan egin izan ditudan lagunei gertatutakoa kontatzeko modua izan da, eta ondo nagoe-la esateko.

Ez da ebakuntza txikia izan...

Ez; lehenago ere kontziente nintzen begi batean arazoak nituela, ikusmen bikoitza neukala, baina irailean betazal bat erortzen hasi zitzaidan, eta ospitalean,

Iruñean, segituan esan zidaten onbera izan zitekeen tumorea neukala begiko nerbio motorrean. Bost hilabete gogor izan dira, gauzak diren moduan, itxaronaldia ez da erraza izan, eta ebakuntza ere ez zen nolanahikoa izan, 13 orduz izan ninduten ebakuntza-gelan burua zabalik. Zorionez, puntako medikuekin izan naiz eta ondo joan da dena. Baina bai, ebakuntza-gelara sartu nindutenean ez neukan garbi handik bizirik irtengo nintzen. Bi aste barru emango dizkirate biopsiaren emaitzak; horrek ere



Purito, 2017an, zenbait garaipen eskuratu zituen Seat Leon autoarekin. GOIENA

kezkatu egiten nau, baina medikuak baikorrak dira.

Oraingo, lasterketek itxaron egin beharko dute...

Etzekoei esan nien uste nuela ebakuntza ostean garajea lasterketeko auto bat izango nuela zain; kar-kar.

Gidatu ere ezingo duzu egin, ala?

Autoko giltzak gordetzeko puntuan egon dira etxean; kar-kar. Anaia, gurasoak, bikotekidea, denak dabilta esaten autorik ez hartzeko. Jende asko dago begi bakarrarekin ere normal gidatzen duena, eta nik arazoa begi bakarrean daukat, besteak ondo funtzionatzen du. Eta pentsatu nahi dut begi bakarrarekin gidatzen duten gainontzekoek baino hobeto gidatuko nukeela; kar-kar. Baina ez, ez daukat automobila hartzeko asmorik. Begiko nerbioa ez didate ukitu, eta medikuak esan dit ikusmen bikoitz hori joango dela desgertzen.

Lanera joateak ere itxaron egin beharko du [Irizarren egiten du lan].

Hasteko, lantokira ezin dudalako joan, baina, bestetik, autobusak probatzen egiten dut lan, eta horretarako %100 egon behar dut

ondo, neure burua seguru ikusi behar dut. Pazientziarekin hartu behar dut hau dena, bai. Eta poliki-poliki errekerperatzen joan. **Seguru ez dituzula, baina, lasterketak burutik kendu...**

Ez, inondik inora; lasterketetara itzultzeko asmoa daukat. CM barketa bat erosteko puntuan egon nintzen hau dena hasi aurretik, eta orain ez dakit mendiko lasterketetan turismo batekin, barketa batekin ala zirkuituetara itzuliko nintzatekeen, baina pausoak ematen joatea da asmoa, eta baita lasterketetara modu batean edo bestean bueltatzea. Egia da halako esperientzien ondoren gainontzeko txikieriak erlatibizatu egiten dituzula, baina bueno, ikusiko dugu horrek ere zenbat irauten digun. Oraingo, zalantza barik, hauxe izan da orain arteko lasterketarik gogorrena.

"ORAINGOZ, EZ GIDATZEKO ESAN DIDATE, BAINA LASTERKETAK EZ DITUT BAZTERTU"

Ibai Larrea, Gipuzkoako kros txapelduna 19 urterekin

ATLETISMOA Antzuolako korrikalariak helmugara iristeko itzuli eta erdiren faltan jo zuen eraso erabakigarria

Jon Irizar ANTZUOLA


Ibai Larrea lasterkari antzuolarrak domekan Ordiziako Oian-guko belardietan jokatu zuten Gipuzkoako Kros Txapelketa irabazi du. Nahiz eta 19 urteko korrikalaria izan, maila abso-

lutuan jantzi zuen txapela Larreak –parte-hartzaileen artean gazteena zen–, eta nagusitasunez irabazi zuen, gainera. Lasterketa "taktikoa" eginda, 31.29an osatu zuen ibilbidea; podiumera igo zen Ibai Makazaga zarauz-

tarrari 25 segundoko tarte atera zion eta hirugarren koskara igo zen Arrasateko Endika Donnayri 46 segundo, hurrenez hurren.

Lasterketa "taktikoa"

Lasterketaren lehen kilometroetan taldean joan ziren bospasei korrikalari indartsuenak, elkarri indarrak neurtzen, azken hiru kilometroetan proba hautsi zen arte. Buelta eta erdi falta zenean jo zuen eraso Larreak: "Thes egitea lortu nuen hor, eta



Larrea garaipena ospatzen. I.L.

helmugarainoko bidea bakarrik egin nuen". Ez zen nolanahiko eraso izan, gainera, erritmo aldaketa gogorra izan zen, eta bakarrik egin zuen aurrera; hala, distantzia motzean 25 eta 46 segundoko aldea atera zien podiumean kide izan zituen Ibai Makazaga zarautzarrari eta Endika Donnay arrasatearrari. Hala, irabazlearen txapelarekin egin zuen etxerako bidaia antzuolarrak, GOIENARI adierazi dioenez, lasterketa osoan zehar "oso sentsazio onak" izan ostean.



Antxintxikako taldekideak, Bergaran, otsail hasieran egindako aurkezpenean. IMANOL SORIOANO

Antxintxika, jendea erakartzeko lanean

TRIATLOIA Bereziki emakumezkoak eta gazteak erakarri nahi dituzte taldera. Aurten, Tritxikia –ekainean– eta Antxintxika krosa –azaroan– antolatzea dute buruan, eta triatloi egokituko saila indarra hartzen dabil; martxoan emango dute erronken berri

Xabier Urzelai ARRASATE
Duatloi denboraldia hasi berritan, Antxintxika Triatloi Taldeko lagunak hasi dira batera eta bestera lasterketetara joaten. Joan den urteko zailtasunak atzean utzita, normaltasunera itzuli nahi dute aurtengo ikasturtean, eta hainbat erronka dituzte; besteak beste, triatloi txikia antolatzea –Tritxikia– eta Antxintxika krosa ere berriz antolatzea: "Antxintxika krosak lortu du hainbat urtetan bailaran kirolari gehien batzen dituen hitzordua izatea, 500 lagunek eman izan dute izena lasterketa horretan, eta azken bi urteotan ezin izan dugu antolatu. Bada, dena ondo bidean, aurten lasterketa egitea da asmoa".

Sail egokituaren bultzada
Taldean, baina, triatloi egokituko sailak izan du azken urteotan protagonismo handia, eta hazten doan ekimena da: "Bai, eta zelan, gainera. Arlo hori Aitor Rementeriak kudeatzen du, eta martxoan triatloi egokituko sailak aurkezpen berezia egingo du Oñatin. Orain arte egindakoa, aurrera begirako erronka... Proiektua hiru kirolarirekin hasi zen, eta, oker ez banago, aurten zazpi lagun izango ditugula taldean. Zazpi lagun dira, bakoitza elbarritasun gradu ezberdinarekin, baina kirola egiteko sekulako gogoz".

"Triatloi eskola izatea ametsa litzateke, baina jendea behar da"

PATXI TORRES ANTIXINTXIKA TALDEKO PRESIDENTEA

Urteko lehenengo erronka bete duzue, aurkezpenean triatloiko monoa jantzi, tripa sartu, eta erretratuan txukun azaldu zarete.

[Barre] Triatloiko monoa epaile zorrotza izaten da, bai. Egia da talde erdi batu ginelako, batzuk koronabirusarekin gaixorik, bestelako konpromisoa zutenak ere ezin izan ziren etorri... Baina iaz ezin izan genuen talde erretraturik egin, eta aurten kuadrillatxo batu gara.

Eta, ze itxura dauka aurten taldeak?

Itxura polita dauka; egia da egutegia ere oso itxura polita hartzen dabilela, eta gura duguna da denboraldia ahalik eta normaltasun handienarekin egin.

Gazteengan eta emakumezkoetan jarri duzue fokua.

Bai; egun, berrogei lagun pasa gara taldean, eta kopuru polita da; egia da hirurogei ere izan garela, baina geroago eta talde gehiago daude, eta hiriburuetakoz ziren zenbait taldekide han sortu dituzten taldeetara joan dira. Normala



X.U.

da. Kontua da, baina, gazteak erakarri gura ditugula. Emakumezkoetan, esaterako, bakarra dugu taldean, eta eskertuko genuke taldekide gehiago izatea.

Gazteekin hainbat ekimen egiten dituzue, triatloia ez da lehen moduko ezezaguna, eta, hala ere, kosta egiten da gazteak erakartzea.

Triatloia ez da gaztetatik praktikatzen den kirol jarduerabat. Jendea hona etortzen da lehenago igerilaria izan delako, txirrindularia... Edo bestelako kirol jarduera federatuetan ibili da. Horretarako, ederra izango litzateke triatloi eskola izatea, gaztetatik kirol honetan ibiltzea. Baina horretarako jendea behar da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Bergara-Añorga

Zap. 16:15. Agorrosin.

Mondra-Hernani

Zap. 16:30. Mojategi.

Oridizia-Aloña Mendi

Zap. 18:30. Altamira.

Aretxabaleta-Elgoibar

Dom. 16:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK.

Bergara-Zumaia

Zap. 12:00. Ipintza.

Urdieta-Leintz Arizmendi

Zap. 15:30. Urdieta.

GORENGO MAILA

Antzuola-Lagun Onak

Zap. 16:00. Eztala.

Mondra-Aretxabaleta

Dom. 16:30. Mojategi.

EMAK. GORENGO. KOPA

Euskalduna-Leintz Aloña

Zap. 16:00. Andoain.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Elorrietako-Eskoriatza

Zap. 17:30. Bilbo

Mondrate-Afentxo

Zap. 17:30. Musakola.

GIPUZKOAKO TXAP. GIZ.

Arkupe-Mondrate

Gaur. 20:50. Lasarte.

GIP. BIGARREN MAILA

Laskorain-Ingou Aloña

Gaur. 22:10. Tolosa.

Makax-Eskoriatza

Dom. 12:00. Donostia.

GIPUZKOAKO TXAP. EMAK.

Eskoriatza-Anoeta

Dom. 13:30. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSK. TXAP. GIZON

Txikipolit-Fagor Industrial

Zap. 19:30. Zarautz.

Mugarri Ingou-Arrate Eibar

Zap. 18:00. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Irauli-Cons. Aloña Mendi

Zap. 20:00. Donostia.

GIPUZKOAKO TXAP.

SoraluceBKE-Elgoibar

Zap. 19:30. Labegarieta

GIPUZKOAKO BIG. M.

Bergara-Leizaran

Zap. 11:15. Labegarieta.

SASKIBALOIA

EBA

Becedo Sant.-MU

Zap. 17:30. Santander.

MAILA NAZIONALA

MU-Goierri

Dom. 16:00. Iturripe.

EMAK. BIGARREN M.

MU-Bera-Bera

Dom. 18:00. Iturripe.

GIZ. BIG. MAILA

Mekalki Aloña-Salleko

Zap. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR. GIZ.

Bergara Sora.-Take Orbela

Zap. 16:00. Tolosa.

GIP. SENIOR. EMAKUM.

Easo-Bergara Sora.

Dom. 10:00. Donosti.

PILOTA

Oñatin, gaur (18:00), bost partidu. Alebin eta infantilak.

Aretxabaletan, gaur (19:00), bi partidu. Alebin eta kadete.

Bergaran, gaur (19:00), lau partidu. Infan, kadete eta senior.

Antzuolan, gaur (19:00), partidu bat. Infantilak.

Arrasaten, gaur (19:00), partidu bat. Infantilak.

Antzuolako 8 Miliak domekan, normaltasunaren erakusle

MENDI LASTERKETAK Atletak plazan maskara jantzita eramane beharko dute; hori da baldintza bakarra

X.U. ANTZUOLA

Domekan 300 mendi lasterkari batuko dira Antzuolako 8 Miliak lasterketaren irteera puntuan. Antolatzaileek lasterketa beste urte batzuetan moduan antolatutako dute –bederatzigarren edizioa izango da–; hau da, ez da ego-kitzapen zorrotzik egongo, baina, hori bai, irteeran eta helmugan korrikalari eta jende gehien batzen den unean, atletei maskara eramateko eskatuko diete.

10:30ean hasiko dute lasterketa, eta ibilbideari dagokionez ere ez da aldaketarik egongo: ohi moduan, 13,83 kilometroko ibilbidea eta 836 metroko desnibel positiboa izango du lasterketak. Herriko Plazan hasi, Irimora igo, Trekutzetik igaro eta hasitako tokian amaituko da A8M taldeak eta Antzuolako Udalak antolatzen duten lehia.



Lasterkari bat Irmon (2020). X.U.

Ekintzak egongo dira herrian

Lasterketak irauten duen bitartean hainbat ekintza izango dira herria girotzeko. 11:00etan, haurrendako minimoto lasterketa egingo dute, eta hamaiketako gero.

Galderak eta itzalak dakartzan antzezlanak

Hasia da fruituak ematen Geuretik Sortuak ekimena. Hala, Josune Gorostegui eta Dominika Recaltek Oñatin estreinatuko dute 'Harri minak' lana, Amancay Gaztañagaren zuzendaritzapean, otsailaren 25ean. Sarrerak salgai daude jada

Maidar Arregi OÑATI

Bizitza bi zuloen artean dirau: zulo batetik gatoz, zuloa goaz. Zuloak harriari min ematen al dio? Halaxe hausnarraraziko die ikusleei Amancay Gaztañagak zuzendutako Harri minak antzezlanak. Berritza eta Bonbon Beltz konpainiaren eskutik otsailaren 25ean izango da antzezlanak ikusgai Santa Ana antzokian, 19:00etan. Sarrerak jada esku-ratu daitezke ohiko lekuetan, 8 eurotan.

Bien bitartean, aktore lanetan eta buru-belarri entseguetan dihardute Josune Gorostegui eta Dominika Recalte *Titika*-k Oñatiko Santa Ana antzokian. Recaltek dio sorpresa ederra izan zela aktoreendako Geuretik Sortuak ekimenaren berri izatea: "COVID-19aren garaian denak lo zeuden, eta Udalbiltzakoek kultura munduan gaudenoi bultzada eman nahi izatea oso eskertzekoa da. Jakinda, gainera, jarritako baldintzei esker modu duinean lan egiteko aukera eman digutela. Horrez gain, 26 emanaldi lotu ditugu dagoeneko, eta hori oso gutxitan gertatzen da. Ekimen berria zela jakinik, ausardia handiko apustua egin dute, eta eskertzekoa da".

Era berean, salatu du Ipar zein Hego Euskal Herriko instituzioe-



Geuretik Sortuak ekimenaren *Harri minak* lanaren kartela. 'UDALBILTZA.EUS'

tan ez dagoela "inolako politika kulturalik" eta azken urteetan "geroz eta zailagoa" dela bertan bertako eta tokiko aktore zein dantzariak aretoak lortzea.

Oñatiko errealitatea

Dominika Recaltek aitortu du Oñati "arrotza" egin zitzaiola, hasiera batean. Hala, herria nola dagoen antolatuta eta bertako errealitatea ezagutzeko asmoz hainbat egonaldi egin dituzte Oñatin. "Helburua izan da Oñatiko bizia ezagutu eta gure ikerketa lanak egitea. Harritu egin

ginen, ez ote du Oñatik itzalik? Dena perfektua da! Galdera horren bueltan osatu dugu gure ikuskizuna. 26 herritan aurkeztuko dugu eta Oñatitik atzera begirada bat ere pausatu nahi izan dugu edozein tokitan eman ahal izateko eta publikoak topa dezan zerbait berari ere oihartzuna ematen diona".

Zuloak eta erabakiak

Harri minak lanak galderak eta itzalak dakartza bere baitan. "Euskal Herriaz, gu geu zer garen, non diren gure zuloak, era-

Emanaldien egitaraua

Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan.

'Bidaide'

- **Martxoak 5:** Metrokoadroka Sormen Laborategia.

'Trapu Zikinak'

- **Martxoak 13:** Lore More Antzerki Taldea.

'Eresia'

- **Apirilak 3:** Oier Zuñiga.

'Sexberdinak'

- **Martxoak 20:** Ttataka Teatroa.

bakitzeko beharra, zer erabakitzen den eta zer ez, kode sozialak zeintzuk diren eta nola moldatzen garen ere horiekin.... Alde guztietatik tiratzen du antzezlanak. Gu ere, bi aktoreak, pertsonak gara, eta pertsona bezala zein itzal ditugun ere plazaratuko ditugu emanaldian zehar", azaldu du Recaltek.

Iñaki Olalde Kultura zinegotziak balioa eman dio proiektu berri honi esker bertako sortzaileei emango zaien bultzadari. "Gure hizkuntza eta gure herrialde ezberdinetako proiektuak uztartuko dituelako ere animatu gara", gaineratu du. "Antzerkia egokitu da Oñatin egitea, eta beste herri batzuetara zabalduko da; era berean, bestelako sorkuntzak ikusiko ditugu gurean. Ikusi dugu Euskal Herriko herrien arteko elkarlana sustatu dela".

Biolontxelo protagonista Seminarixoan gaur iluntzean

Eñaut Zubizarreta musikariak bakarkako bigarren lana aurkeztuko du, 20:00etan

M.A. BERGARA

Biolontxelo-jole profesionala da Eñaut Zubizarreta Mendieta *Trigger*, eta liburu batekin lagunduta datorren *Poliedro Vol.I* bigarren diskoa aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Seminarixoan. Zubizarreta biolontxelo solista izango bada ere, eszenatokian Quico Puges Suarez eta Jokin Garmendia musikariak izango ditu txeloarekin lagun. Ikusizuna Amaiur Luluagaren dantza garaikideak borobilduko du. Sarrerak salgai daude, 8 eurotan.

Ikusle guztiei zuzendutako emanaldia izango da eta askotariko estiloak jorratuko ditu saioan zehar: hardcorea, stoner-rra, DnB, flamenkoa...

Disko soil bat baino, proiektu zabalagoa dela dio musikariak: "Txeloaren inguruan egin dudana ikerketaren emaitza da poliedro hau. Batetik, formatu eta estilo ezberdinetan ateratzen saiatu naiz txeloa, eta, horrez gain, Euskal Herrian dagoen hutsune pedagogiko bat bete guran, formakuntza ardatz hartuta, obra guztien partiturak eta horiek interpretatu ahal izateko jarraibide metodologiko bat jaso ditut liburuan, bidean ikasitakoak komunitatearekin elkarbanatzeko, hain zuzen ere".

ESKORIATZAKO JOSE ARANA KALEA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

OTSAILAREN 21EAN, ASTELEHENEAN, 18:00/20:00/22:00

TXOMIN MADINAK AURKEZTUTAKO 'IZENEN IZANA' TARTEAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Oñati etxea erosi-
siko nuke. Deitu zenbaki
honetara: 679 62 69 64

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza bila
nabil errentan hartzeko.
Lan kontratua daukat eta
arduratsuak gara eta orain
arteko ordainagiriak aur-
kez ditzakegu. Bi katu ere
badauzkagu, garbi-
garbiak. 651 89 59 16

Bergara. Bi edo hiru lo-
gelako etxebizitza behar
dugu errentan. Telefonoa:
645 72 92 87

Debagoiena. Etxebizitza
errentan hartu nahi dut
bikote eta ume txiki ba-
tentzat. 632 46 95 39 edo
632 46 62 47

Oñati. Kaixo, oñatiar gaz-
te bat naiz eta etxebizitza
bat errentan hartzeko bila
nabil. Edozer gauza jakī-
nez gero abisatu zenbaki
hontara. 623 24 77 60

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia
ematen da errentan, Mu-
rubide enparantzan. Te-
lefonoa: 644 38 21 74

Arrasate. Uribe Auzoan
garaje irekia ematen da
errentan, trastelekuare-
kin. 680 67 22 66

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara.
Garbiketak egiteko edo
nagusiei paseatzera la-
guntzeko gertu nago.
Telefonoa: 615 40 61 66

Arrasate eta Aretxabaleta.
Lan egin nahi dut
pertsona nagusiak zain-
tzen. Telefonoa: 602 36
61 02

Arrasate eta inguruak.
Nagusiak zainduko nituz-
ke. 682 40 53 38

Arrasate eta inguruak.
Pertsona nagusiak zaitzen
eta garbiketa lanetan
eskarmentu handia duen
emakumea lan egiteko
prest. 688 85 44 78

Arrasate eta inguruak.
Zaintza eta denetarikoko
garbiketa lanak egingo
nituzke. Egunka edo or-
duka. Soziosanitario eta
garbiketa titulazioak eta
legezko agiri guztiekin.
632 83 32 44

Arrasate. 16 urteko es-
perientzia duen emaku-
mea etxean bertan lan
egiteko gertu. Geriatria
ikasketak, legezko agiriak

eta Jaurritaren ziurta-
giarekin. 633 12 85 30

Arrasate. Aste barruan
garbiketa lanetan edo
pertsona nagusiak zain-
tzen jarduteko prest nago.
631 19 08 26

Arrasate. Nagusiak zain-
tzen, eraikuntzan eta
animaliak zaintzen lan
egingo nuke. Telefonoa:
611 23 34 67

Arrasate. Soziosanitario
titulua daukat eta zaintza
lanetan jarduteko prest
nago. 631 25 26 67

Bergara. Mutila gertu
pertsona nagusiak edo
haurrak zaintzeko, zerbi-
tzari lanak egiteko, bana-
tzaile lanak egiteko, tra-
kurrak paseatzeko edota
ebeko garbiketarako egiteko.
642 36 70 42

Bergara. Neska gertu
pertsona nagusiak edo
haurrak zaintzeko, zerbi-
tzari lanak egiteko, bana-
tzaile lanak egiteko edota
ebeko garbiketarako egiteko.
642 37 01 92

Debagoiena. Automobil-
gintzako mekanikaria
lanerako prest. Telefonoa:
632 46 62 47

Debagoiena. Emakumea
gertu etxeko lanetarako
eta pertsona nagusien
zaintzarako, orduka zein
etxean bertan bizi izaten.
Askotariko garbiketarako
bai. 626 91 49 04

Debagoiena. Emakumea
gertu pertsona nagusiak
edo haurrak zaindu, gar-
biketa lanak egin edota
sukaldari laguntzaile
izateko. 632 46 95 39

Debagoiena. Emakumea
prest pertsona nagusiak
edo haurrak zaintzeko edo
garbiketa lanak egiteko.
631 75 03 97

Debagoiena. Emakumea
prest pertsona nagusiak
edo umeak zaintzeko.
Telefonoa: 653 59 45 60

Debagoiena. Emakumea
prest umeak edo nagusiak
zaindu eta garbiketarako
egiteko. 625 01 08 28

Debagoiena. Eskarmentu
handiko emakumea
nahiz eta pertsona nugu-
siak zaintzen lan egin nahi
dut. Deitu 696 84 19 51
telefonora

Debagoiena. Esperientzia
handia eta erreferentzia
onak dituen mutila zaintza
lanetarako gertu. Orduka,
egunez zein etxean bertan
bizi izaten. Autoa daukat.
662 43 08 54

Debagoiena. Etxe, atari,
lokal eta abarrak garbi-
tze gertu nago. Baita

Electricidad Aranzabal
Esperientziadun elektrikari baten
beharren gaude, Aretxabaletan.
943 79 68 21
elec.aranzabal@hotmail.com

hoteletan gelak txukun-
tzeko ere. 632 48 72 30

Debagoiena. Etxean ber-
tan bizi izaten lan egingo
nuke. 602 01 32 58

Debagoiena. Etxeko lan-
gile ikasketak dituen
emakumea umeak zaindu
edo pertsona nagusiei
kalera laguntzeko prest.
Euskaraz apur bat molda-
tzen naiz. 688 71 08 09

Debagoiena. Garbiketak
egiten edo nagusiak zein
umeak zaintzen lan egin-
go nuke. 603 15 98 00

Debagoiena. Garbiketan,
banatzaile moduan edota
tabernan lan egingo nuke.
645 72 92 87

Debagoiena. Gizonezkoa
gertu kristalak garbitzeko
laguntzaile, sukaldari la-
guntzaile edota pertsona
nagusiak zaintzen lan
egiteko. 671 37 43 05

Debagoiena. Lanean
jarduteko prest nago:
garbiketa lanak, pertsona
nagusien zaintza, umeak.
634 16 10 92

Debagoiena. Legezko
agiriak eta titulu soziosa-
narioa duen emakumez-
koa nagusiak edo haurrak
zaintzeko eta garbiketarako
egiteko prest. Telefonoa:
651 03 41 33

Debagoiena. Mutila gertu
pertsona nagusiak zain-
tzeko, garbiketarako
egiteko eta baserriako
lanak egiteko. Deitu 666
07 42 98 zenbakira

Debagoiena. Nagusiak
zainduko nituzke, etxean
bertan bizi izaten edo
bestela. 626 44 46 49

Debagoiena. Nagusiak
zainduko nituzke. Telefo-
noa: 672 55 67 35

Debagoiena. Nagusiak
zaintzeko gertu nago,
etxean bertan bizi izaten
edo bestela. Telefonoa:
637 58 37 45

Debagoiena. Nagusiak
zaintzen eta garbiketarako
egiteko. Sozio-
sanitario titulua daukat.
Baita asteburuetan ere.
612 27 82 34

Debagoiena. Neska ar-
duratsua lan bila. Nagu-
siak zaintzen esperientzia

daukat. Asteburuetan edo
asteazkenean zehar orduka.
Telefonoa: 677 14 64 27

Debagoiena. Neska ar-
duratsua nagusiak eta
umeak zaintzeko gertu.
Berehala hasteko mo-
duan. 624 83 95 19

Debagoiena. Neska gar-
biketa lanak egiteko eta
nagusiak zaintzeko gertu,
orduka edo etxean bertan
bizi izaten. 643 06 85 22

Debagoiena. Neska ger-
tu nagusiak edo umeak
zaintzeko, garbiketarako

egiteko edo zerbitzari zein
sukalde laguntzaile lanak
egiteko. 747 40 55 91

Debagoiena. Neska ger-
tu nagusiak zaintzeko
edota etxeko garbiketarako
egiteko. Orduka, astebu-
ruetan, egunez edota
gauetan. 602 19 06 77

Debagoiena. Orduka
nagusiak zaintzeko eta
garbiketarako gertu
nago. Soziosanitario titu-
lazioarekin. 632 91 23 61

Debagoiena. Pertsona
nagusiak zaintzen lan
egiteko prest nago. Tele-
fonoa: 688 77 34 95

Debagoiena. Pertsona
nagusien zaintza lanetan
eskarmentu handia dau-
kat eta lan egiteko prest
nago. 691 28 53 25

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Agapurnia galdu. Nor-
baitek Gabonetan agapur-
ni urdin bat opatu bazuen,
eskertuko nioke deitzea
bere bikotearekin elkartu
dadin. 688 69 79 96

8. DENETARIK

801. SALDU

**Aulki elektrikoa eta
joystick-a.** Aulkia elek-
trikoa eta joystick-a dauz-
kat salgai. Gutxi erabilia.
Interesatuok deitu zenba-
ki honetara. Eskerik asko.
627 43 92 98

806. GALDU

Txamarra arrosa. Orka-
tzategiko bidean txamarra
galdu gauen urtarriaren
30ean. Larrosa kolorekoa
eta 14 neurrikoa da. Dei-
tu 616 84 93 75 telefono
zenbakira.

807. AURKITU

Eskularruak Larriñon.
Emakumezko eskularru
beltzak, oihalezkoak eta
lazobxo bat dutenak galdu
badituzu, Larriñoko eliza-
ko sarreran daude.

808. BESTELAKOAK

Autoan elkarrekin. Egu-
nero Oñatitik Gamarrara
autoa elkarbanatzea nahi-
ko lukeen norbaiten bila
nabil. Nire lan ordutegia
8etatik 16:00etara da.
658 86 98 38

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ANTZUOLAKO ZORTZI MILIAK LASTERKETA

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

'2020KO ARATUSTEAK' SAIOA

'Bereziak' Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 18	ZAPATUA, 19	DOMEKA, 20
08:00 Hemen da Miru 86 08:30 Elkarriketap: Alberto Urrebo 09:00 Harmailatik 09:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Harmailatik 11:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Asteko errepasoa 14:00 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 14:30 Harmailatik 15:00 Albesteak 15:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 16:00 Albesteak 16:30 Harmailatik 17:00 Albesteak 17:30 Musika zuzenean: Lotura 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Harmailatik 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 22:00 Harmailatik 23:00 Hemen Debagoiena	08:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 08:30 Hemen da Miru 85 09:00 Hemen da Miru 85 09:30 Kooltur: Mc Onak 10:00 Aratustek 2020 11:30 Harmailatik 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Asteko errepasoa 14:00 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 14:30 Harmailatik 15:00 Aratustek 2020 15:30 Harmailatik 16:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 16:30 Asteko errepasoa 17:30 Musika zuzenean: Lotura 18:00 Kooltur: Mc Onak 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 20:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 21:00 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 22:00 Kooltur: Mc Onak 23:00 Aratustek 2020	08:00 Hemen da Miru 88 08:30 Hemen da Miru 87 09:00 Hemen da Miru 85 09:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Aratustek 2020 12:00 Hemen Debagoiena 13:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 13:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 14:00 Kooltur: Mc Onak 15:00 Aratustek 2020 16:00 Musika zuzenean: Lotura 16:30 Elkarriketap: Alberto Urrebo 17:00 Asteko errepasoa 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Kooltur: Mc Onak 20:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 20:30 Bixi ibili! Leintz Gatzaga 21:00 Hemen Debagoiena 22:00 Elkarriketap: Alberto Urrebo 22:30 Aratustek 2020 23:00 Kooltur: Mc Onak

EGUBAKOITZA, 18

AITOR MAGALLANES
TENIS JOKALARIA

'Luzapena'

18:00/20:00/22:00

EGUBAKOITZA, 18

TELEFONO KABINEI
BURUZKOAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/
telebista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

ASTELEHENA, 21



GOIENA

JOSE ARANA KALEA

'Izenen izana'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 23

MAITANE URBIETARI
ELKARRIZKETA

'Elkarriketap'

21:00/23:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

URTEURRENA

Sabino Madariaga Luarizaristi



2021eko otsailaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunera joango direnei, eskerrak senideen izenean. Bergaran, 2022ko otsailaren 18an.

ESKER ONA

Javier Gabilondo Gorosabel



2022ko otsailaren 8an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko otsailaren 18an.

ESKER ONA

Pureza Ayastuy Garay



Juan Bautista Ruiz de Zarateren alarguna
2022ko otsailaren 14an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, otsailaren 20an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2022ko otsailaren 18an.

ESKER ONA

Angelines Madina Aranburu



Angel Bengoaren alarguna
2022ko otsailaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko otsailaren 18an.

ESKER ONA

 Maria Aranbarri Guridi



Andres Ugarteburu 'Azito'-ren alarguna
2022ko otsailaren 11n hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko otsailaren 18an.

ESKER ONA

Maria Angeles Arriaran Etxeberria



—Goian bego—
2022ko otsailaren 15ean hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko otsailaren 18an.

OROIGARRIA

Angelines Madina Aranburu



2022ko otsailaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Beti elegante, beti irrifartsu.

Ihintzen lagunak. Arrasaten, 2022ko otsailaren 18an.

OROIGARRIA

Maria Aranbarri Guridi



Luken Ugartebururen amama
2022ko otsailaren 11n hil zen, 94 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Goiena Komunikazio Taldea. Arrasaten, 2022ko otsailaren 18an.

OROIGARRIA

Maria Angeles Arriaran Etxeberria



2022ko otsailaren 15ean hil zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

Maitasunez, Arriaran sendia. Oñatin, 2022ko otsailaren 18an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 18 AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 19 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 20 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Astelehena, 21 IRIZAR: Erquin 11 7 943 79 12 39
Martitzena, 22 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguaztena, 23 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 24 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 18 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 19 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 20 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 23 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 24 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 19 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 21 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 24 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022ko abuztuaren 15era arte:
AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022 osoan:
URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

- M. Rosario Lopez Rueda. Arrasaten, hilaren 13an. 80 urte.
- Maria Luisa Elkoro Azpiazu. Arrasaten, 13an. 90 urte.
- Jesus Maria Eguren Aperribai. Bergaran, 13an. 73 urte.
- M. Teresa Ormazabal Larrañaga. Bergaran, 13an. 78 urte.
- Pureza Ayastuy Garay. Arrasaten, otsailaren 14an. 89 urte.
- M. Nieves Crespo Gondoncillo. Arrasaten, 14an. 83 urte.
- Manuel Piñeiro Fernandez. Arrasaten, 15ean. 83 urte.
- M. Angeles Arriaran Etxeberria. Oñatin, otsailaren 15ean.
- Ines Arin Kortabarria. Antzuolan, otsailaren 16an. 94 urte.
- Francisco Mangana Garrido. Arrasaten, 16an. 92 urte.
- Mercedes Porteiro Suarez. Arrasaten, 16an. 86 urte.
- Maria Lezeta Errasti. Eskoriatzan, otsailaren 16an. 89 urte.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK



1. Udaberri txapelketa

Kimu eta infantil mailetako sei partidu jokatu zituzten Aretxabaletako pilotariek. Ataungo, Azkoitiko, Orioko eta Ilunpeko pilotariak izan zituzten kontrario.

2. Gipuzkoako kros txapelketa

Bi domina lortu zituzten Arrasateko atletak Ordiziako proban: 18 urtez azpikoetan brontzea irabazi zuen Olatz Martinezek eta infantiletan zilarra Lander Lanzosek.

3. Euskal Buztingintza Museoa

Aurreko zapatuan, Ollerietako museoan egon ziren Debagoieneko berbalagunak. Urkiolako eta Gorbeia natura parkeez inguratutik, egun ederra pasa zuten.

4. Iraganera bidaia

Aranzadi zientzia elkarterko Jose Julian Marquezek neandertalen egunerokoa erakutsi zuen aurreko zapatuan Arrasaten. Zelan ehizatzen zuten, sua nola egiten zuten...

5. Herrikideen aurrean

Ane Urrutiak gidatutako laukoteak *Erregaia* diskoa aurkeztu zuen Oñatiko gaztetxean, herrikideen aurrean. Zarauzko Ginger taldeak ere jo zuen.



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak


Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.


ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Ainhoa Zubillaga Garcia
Otsailaren 22an, 14 urte. Zorionak, Ainhoa! Etxeko txikia badoa aurrera... Primeran pasatu zure eguna. Patxo erraldoia etxekoen partetik.



ANTZUOLA
Aiala Zabalo Garcia
Otsailaren 21ean, 10 urte. Zorionak, prexioxi! Patxo handi bana etxekoen partetik. Gozatu eguna zuk dakizun bezala!



ANTZUOLA
Izei Irizar Iztueta
Otsailaren 21ean, 7 urte. Rubio! Zorionak eta urte askotako, politt hori! Ondo pasatu zure eguna!



BERGARA
Xabato Arando Arbelaiz
Otsailaren 21ean, 8 urte. Osintxuko Xabaten urtebetetzea! Zorionak mutil handi, ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Maialen eta Ariane Quintas Ruiz
Otsailaren 19an, 7 urte. Zorionak, potxolak! Ondo-ondo pasatu, etxeko guztien partetik. Muxu erraldoi bana biontzat!



BERGARA
Nora Perez Zabaleta
Otsailaren 19an, 9 urte. Zorionak urte askotarako, Nora! Egun politx-politxa pasatu. Besarkada eta patxo handi bat, txapelduna, familia osoaren partetik!



BERGARA
Nagia eta Xabat Teran Larrañaga
Otsailaren 18an, 11 urte. Zorionak, bikote! Ointxe bezelaxe segi jator eta alaixek izeten! Ondo pasatu eguna, maittiak! Familixien partetik!



ARRASATE
Anje Altuna Arizmendiarrrieta
Otsailaren 17an, urtebete. Zorionak, Anjetxo! Jarraitxu holako bihurritxua izaten!



ARRASATE
Julen Anasagasti Vitoria
Otsailaren 16an, 2 urte. Zorionak, Julentxo! Primeran pasatu zure eguna! Mila muxu etxeko guztien partetik!



OÑATI
Oihana Uribarren Walerjanczyk
Otsailaren 16an, 11 urte. Zorionak, Oihana, eta urte askotarako, zure familixaren partetik! Muxu handi bat!



BERGARA
Danel Olabarria
Otsailaren 15ean, 2 urte. Zorionak, pittin! Ondo pasatu zure eguna! Askok maitxe zaitxugu. Patxo erraldoi bat etxekuen, eta bereziki, Martinen partetik!



OÑATI
Ekhi Arregi
Otsailaren 15ean, 3 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat etxeko danon partetik! Askok maitxe zaitugu!



ARETXABALETA
Jule eta Lia Olalde
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak poxpolinak! Ondo pasau zuen eguna. Izugarri maite zaitxuztegu!



ARRASATE
Martin Aldekoa Unzueta
Otsailaren 15ean, 9 urte. Zorionak, Martin! Jarraitu zaren bezelako jatorra eta alaia izaten. Besarkada eta patxo handi bat etxekuen partetik.



ARETXABALETA
Gaia Berasaluce
Otsailaren 15ean, urtebete. Zorionak, Gaia. Besarkada bat eta patxo potoloa etxekoen partetik.



BERGARA
Unax Morales Garcia
Otsailaren 14an, 3 urte. Zorionak, Unax, jada 3 urtetxo! Besarkada handi bat etxekoen partetik! Askok maite zaitugu!



OÑATI
Uxue eta David Alcelay
Otsailaren 14an, 6 urte. Zorionak, Uxue eta aitatxo. Egun politta igaro eta patxo handi bat familixako danan partetik.



OÑATI
Uxue Etxezarreta Urzelai
Otsailaren 14an, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Hiru urtetxo jada. Patxo handi bat etxeko danon partetik. Askok maitxe zaitugu.



OÑATI
Liher Korkostegi Uribeetxeberria
Otsailaren 13an, urtebete. Zorionak, maittia! Patxo handi bat etxeko danon partetik! Askok maitxe zaitugu!



OÑATI
Kepa Osés Egaña
Otsailaren 13an, 11 urte. Zorionak, politt hori! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, familixa danaren partetik.



ARRASATE
Eñaut Etxebarria Alzola
Otsailaren 13an, 7 urte. Zorionak, Eñaut! Ederto ospatukou zure eguna! Anek, Ilartek eta etxeko danok askok maitxe zaitxugu!



BERGARA
Kattalin Zenitagoia Apraiz
Otsailaren 13an, 8 urte. Zorionak, pitxin. Oso ondo pasatu genuen zure eguna ospatzen. Muxu eta besarkada handi bat.

ZORIONTEZKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI
Aner Garcia Lopez
Otsailaren 11n, urtebete. Zorionak, Aner! Jada urtetxo bat bete dozu! Jarraitu hain alaia izaten. Ondo pasatu eta patxo erraldoi bat, bereziki Aimirren partetik!



ARRASATE
Gaizka Zabaleta
Otsailaren 10ean, 41 urte. Zorionak, aitatxo! Muxutxo potolo-potolo pila zuretzat. Ekain, Irai eta amatxo.



OÑATI
Aiur Olasagasti Bernal
Otsailaren 9an, 3 urte. Zorionak, matte! Hiru urtetxo jada; ze handi itten zabizen! Segi gure egunak alaiketan eta zorionsu izaten! Izugarri matte zaittugu!



ANTZUOLA
Ekhi Cabo Mundiñano
Otsailaren 22an, 12 urte. Zorionak, Ekhi! Ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat denon partetik!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 18

OÑATI KoopFabrika jardunaldiak: 'Lurraldeak eta kooperatibak'

Kataluniako eta Euskal Herriko esperientziak partekatzeko gunea. *Arantzazun, 09:30ean.*

ARRASATE Merkemerkaua

Udazken eta neguko stock azoka, Ibai-arteren eskutik. *Saltokietan, 16:30ean.*

OÑATI Odol ateratzea

Aurrez hartu beharko da ordua odola emateko, 943-00 78 84 telefonoan. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

ESKORIATZA Aratuste jaia, umeendako

Musika eta dantza 5 urtetik gorakoendako. *Ludotekan, 17:00etan.*

ANTZUOLA ONCEko Oroimenak taldearen antzezlan

Askotariko gizarte gaiak erdigunean ipintzen dituen lana. *Torresoroan, 18:00etan.*

ARETXABALETA Korrika denda

22. Korrikaren materiala erosteko aukera egongo da. *Durana kalean, 18:00etan.*

BERGARA Ander Etxanizen erakusketa

Gaurtik, martxoaren 6ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'eRRe: aldarri bat bertsoz' ikuskizuna

Bertsoak eta askotariko arte-diziplinak batuta sortutako ikuskizuna. Oholtzan egongo dira Haizea eta Oihana Arana eskoriatzarrek, Leire Vargas eta Aner Peritz. Sarrerak, hiru euro. *Arkupen, 19:00etan.*

OÑATI 'Unidos persistimos: cómo sobreviven los competidores menos hábiles en la naturaleza' hitzaldia

Ekologian doktore Joaquín Calatayudek egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan. *Zinema aretoan, 19:00etan.*

ARETXABALETA Bandaren kontzertua

Leizarra musika eskolako banda. *Ibarra kiroldegian, 19:00etan.*

ARRASATE 'Lan erreformak ezkutatzan dizuna' hitzaldia

Lubakiren eskutik. Irekia. *Gaztetxean, 19:30ean.*

BERGARA Eñaut Zubizarretaren kontzertua

Aretxabaletako musikariak *Poliedro Vol.1* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 20:00etan.*

ELGETA Ipuin erotikoak

Ixabel Agirresaroberen eskutik ipuin kontaketa saioa, *Bibliobero* egitasmoaren baitan. *Liburutegian, 22:30ean.*

ZAPATUA 19

ARETXABALETA Ibilaldi historikoa Kortaburu ingurura

Kortaburu-Arriurdiñeta-Txurleku-Gorordo-Urrexolagarai ibilaldia egingo dute, Loramendiko Toponimia taldearen eskutik. *Urkuluko horman, 09:00etan.*

ARRASATE Baserritarren azoka

Ohiko postuez gain, oraingoan, xarabeak izango dira protagonista, Ekoudalatxeko kideen eskutik. *Seber Altuben, 09:00etan.*

ELGETA Koko-batzea baserri

09:30ean, eskea baserrietan; 15:00etan, aperitifa; 16:30ean, eskea baserrietan; eta 18:00etan, kalejira GOTx elektrotxarangarekin. *Elgetan.*

ARRASATE Merkemerkaua

Udazken eta neguko stock azoka egun osoan. 18:30ean, Elen's River Dixieland Band taldearen kalejira, Herriko Plazatik. *Saltokietan, 10:00etatik aurrera.*

OÑATI 'San Martingo haritzia' hitzaldia eta irteera

Gabriel Iguñizekin eta Iban Simonekin, Ingurumen Jardunaldien baitan. *Natur Eskolan, 10:00etan.*

LEINTZ GATZAGA Zuhaitz Eguna

10 urtetik gorakoendako orientazio saioa, eta gaztetxoagoendako *Altxorraren bila*. Ostean, fruta-arbolak landutako dituzte. *San Migel plazan, 10:30ean.*

ARRASATE 'Ipuin-jolas' txokoa

4-6 urte arteko haurrendako eta beraien gurasoendako irakurketa saioa, Mari Garciak gidatuta. *Bibliotekan, 11:00etan.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria Musakolan

3-12 urte artekoendako, bi hezitzailearen laguntzarekin. *Gazte txokoan, 11:30ean.*

ANTZUOLA Bizipozaren Eguna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek iaz oparitutako gereziendoa landutako dute. *Herriko Plazan, 11:30ean.*

BERGARA San Pedroko organoari agur ekitaldia

Bergara erraldoi taldearen eta Elgoibarko dultzaineroen eta Aitor Olea eta Iñigo Alberdi organo-jotzaileen emanaldia. *San Pedro parrokian, 12:00etan.*

BERGARA 'Lan erreformak ezkutatzan dizuna' hitzaldia

Lubakiren eskutik. Irekia. *Kartzela zaharrean, 12:00etan.*

BERGARA Xaxauren batzarra

Irekia. *Oxirondon, 12:00etan.*

ARETXABALETA Korrika denda

22. Korrikaren materiala erosteko. *Durana kalean, 12:00etan.*

ARETXABALETA Txapel Txin eguna

12:00etan, kalejira; 13:00etan, Txapel Txinen irteera eta *mangera party*; 18:30ean, elektrotxaranga eta pregoia; eta 20:30ean, Banana Shake taldearen kontzertua. *Aretxabaletan.*

BERGARA 'De profesión: artista' liburuaren aurkezpena

Jesus Perez Artuche egileak aurkeztuko du, Angiolillo liburutegiak gonbidatuta. *Kartzela zaharrean, 18:00etan.*



KALEKO URDANGAK

ARRASATE Kaleko Urdangak, Harry May eta Oldarkor taldeak

Oi! doinuez gozatzeko aukera egongo da. Bergarako taldea –argazkian–, Debako Oldarkor eta Galiziatik datorren Harry May egongo dira oholtza gainean. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.*

ARRASATE Masaje saioak

Gaztetxoendako. *Erguingo gazte txokoan, 18:00etan.*

OÑATI Liher taldea

Lide Hernandok gidatzen duen taldeak *Eta hutsa zen helmuga* diskoa aurkeztuko du. Sarrerak, sei euro. *Gaztelekuan, 20:00etan.*

BERGARA San Pedro organoari agur ekitaldia

Bergarako parrokiako koruak, musika eskolako kideek, txistulari bandak eta Aitor Olea organistak parte hartuko dute. *San Pedro parrokian, 20:00etan.*

OÑATI Nare, Yogurinha Borova eta Malakias

Arrotxapeko gaztetxearendako izango da sarrerekin batutako dirua. Sarrerak: soldatadunek bost euro eta soldatagabeek, hiru. *Gaztetxean, 20:30ean.*

ARRASATE Kaleko Urdangak, Harry May eta Oldarkor taldeak

Oi! doinuak protagonista. *Gaztetxean, 22:00etan.*

DOMEKA 20

OÑATI Kodes mendilerroa irteera

Araba eta Nafarroa artean dagoen mendilerroa joango dira, Aloña Mendirekin. *Postetxean, 07:00etan.*

OÑATI 'Iturri gorriko basoa, lurzorua eta aldaketa klimatikoa' ibilaldia

Julen Astigarraga eta Nahia Gartzia adituekin egingo da irteera, Ingurumen Jardunaldien baitan. *Sindikan, 09:00etan.*

OÑATI Arrano Eguna

09:30ean, Santa Marina plazatik Arranoaitzera ibilaldia; eta 11:00etan, omenaldia. Autoetan doazenendako oharra: Korosoko aparkalekuan edo Lizargarateko bidean utz dezatela. *Santa Marina plazan, 09:30ean.*

ARETXABALETA Zuhaitz Eguna

Otala Zelain eta Ibarra futbol zelaia inguruan landutako dituzte. *Ibarra futbol zelaian, 10:00etan.*

ANTZUOLA Antzuolako Zortzi Miliak

300 bat korrikalari irteera puntuan. *Herriko Plazan, 10:30ean.*

ARAMAIO Santikurtzera irteera

Gurasolagun taldekoak joango dira. *San Kristobal ermitan, 10:30ean.*

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako txokoa, aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko. *Okendoko ludotekan, 17:30ean.*

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilen dantza

2003an jaiotako kintoen dantza saioa. *Herriko Plazan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 21

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

OÑATI Santiago Bideari buruzko solasaldia
Agotz Iturbe oñatiarrak egingo du berba, Pake Lekun gonbidatuta.
Pake Lekun, 17:30ean.

OÑATI Idazketa lantegiaren saioa
Joxemari Iturraldek gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

ELGETA 'Bidelaguna zure zain' egitasmoa
Euskarazko mintzapraktika egiteko aukera, aurretik izenik eman beharrik gabe. Inor agertzen ez bada, ikasturteko azkena izango da.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE 'Lezetxiki, territorio neandertal' hitzaldia
Giza Eboluzioaren Ikerketa Zentro Nazionaleko zuzendari Maria Martinon-Torresen egingo du berba.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA Korrika batzordean bilera
Irekia.
Kartzela zaharrean, 19:00etan.

MARTITZENA 22

ARETXABALETA 'Haurraren hizkuntza garapena' hitzaldia
Esan logopedia zentroko Libe Moralesek egingo du berba, Kuku

Miku elkartek gonbidatuta. Izenak: *kukumikuelkarte@gmail.com*.
Kuku Mikuren egoitza, 17:30ean.

OÑATI 'Asertibitatea' tailerra
Pepa Bojoren eskutik, Jabetze Eskolaren baitan.
Euskaldun berria gelan, 18:00etan.

ARETXABALETA HAP0: parte-hartze saioa
Herriarrendako.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
Jokin Muñozen *Antzararen bidea* liburua gainera saioa, Miriam Lukik gidatuta.
Zinema aretoan, 18:30ean.

ARETXABALETA M8ari begirako batzarra
Irekia emakume guztiendako.
Arkupen, 18:30ean.

OÑATI 'Walden gaur' hitzaldia
Antonio Casado de la Rochak egingo du berba, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Zinema aretoan, 19:00etan.

ARRASATE 'Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta' solasaldia
Izen bereko liburua aurkeztuko dute Joanmari Larrartek eta *Egunkaria* itxi zutenean AEDko presidente zen Joseba Ezpeleta arrasatearrak.
Kulturaten, 19:00etan.

EGUAZTENA 23

BERGARA 'Genero indarkeria dela-eta, biktimaren babesa eta tratu txarren emailearen birgizarteratzea' hitzaldia
Ixusko Ordeñanak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoa, 10:00etan.

OÑATI 'Zahartzeaz eta feminismoaz pentsatzen' solasaldia
Mari Luz Estebanek gidatutako saioa, Jabetze Eskolaren baitan.
Zinema aretoan, 18:00etan.

ESKORIATZA Korrika batzordearen bilera
Bigarra.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARETXABALETA Korrika batzordearen bilera
Bigarra.
Udaletxe zaharrean, 18:30ean.

ARRASATE 'Euskal matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak' solasaldia
Andoni Olariagak egingo du berba, Karkabatik Herria zikloaren baitan.
Irati tabernan, 19:00etan.

EGUENA 24

ARRASATE Sasoibide irteera
Eskoriatzan egingo dute ibilaldia.
Autobus geltokian, 09:00etan.

OÑATI Eguen gizen eguna
Erretiratuek ospatuko dute.
Pake Lekun, 10:00etan.

ESKORIATZA Urdelardero
10:30ean, umeein kalejira; eta 17:00etan, Potxin eta Patxin pailazoaren emanaldia.
Gorosarri plazan.

ARRASATE 'Nutrizioa eta osasuna adinekoengan' hitzaldia
Amaia Diaz de Monasteriogurenek egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30etan

OÑATI 'Ostegun kontalariak'
Ixabel Agirresaroberekin eta Mattin ilustratzailearekin.
Liburutegian, 18:00etan.

ARETXABALETA HAP0: parte-hartze saioa
Herriarrendako.
Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Sorgin dantza
Musika eta dantza eskolakoekin.
San Martin plazan, 19:00etan.

OÑATI 'Zumiriki' dokumentala
Oskar Alegria egilea egongo da emanaldia. Ingurumen Jardunaldiak.
Zinema aretoan, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Small Jackets
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

En un muelle de Normandia
Zapatutik astelehenera: 19:30.

Tundama y el templo del sol
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

El metodo Williams
Domeka eta astelehena: 19:30.

Tundama y el templo de sol
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La abuela
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Tengamos la fiesta en paz
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Belfast
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

GASTEIZ

GORBEIA

El buen patron
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:30.
Domeka: 12:00, 19:00.
Astelehenera: 19:50.

Canta 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

Lunaticos
Egubakoitza eta zapatua: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

El callejon de las almas perdidas
Egubakoitza eta zapatua: 21:50.
Domeka: 19:25.
Astelehenera: 19:35.

Uncharted
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:20, 19:45, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:45.
Astelehenera: 17:30, 20:00.

Belfast
Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:25.
Domeka: 12:00, 19:20.
Astelehenera: 17:30.
Muerte en el Nilo
Egubakoitza eta zapatua: 17:05, 19:40, 22:15.
Domeka: 12:00, 17:05, 19:40.
Astelehenera: 17:30, 20:05.

Casate conmigo
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:40, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:20, 19:40.
Astelehenera: 17:30.
Los sonidos del silencio
Egubakoitza eta zapatua: 19:00,

21:20.
Domeka: 19:00.
Astelehenera: 19:45.

Primavera en Beechwood
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 21:40.
Domeka: 17:10, 19:20.
Astelehenera: 17:30, 20:00.

La higa oscura
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:25.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenera: 17:30, 20:00.

Azor
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenera: 17:30.

EIBAR

COLISEO

Muerte en el Nilo
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.

KRITIKA

Drive my car ★★★★★
Zuz.: Ryūsuke Hamaguchi. **Herr.:** Japonia (2021). **Iraupena:** 179 min.

Artea eta bizitza

ANTONIO ZABALA

Drive my car gizakien arteko komunikazioaren garrantziari buruzkoa da. Bizitzari aurre egiteko beharrezkoa izaten da besteekin harremanetan jartzea. Gizakiok oso konplexuak gara, eta ia ezinezkoa da pertsona bat guztiz ezagutzea. Hala izanik, ahalegindu behar dugu norberaren eta besteen erruak barkatzen. Bizitzaren ezustekak eta kolpeak gaitzitzeko, nahiz eta prozesua latza izan, hitz egitea eta besteei irekitzea komenigarria izaten da.

Zuzendaria istorio desberdinetan oinarritu da *Drive my car*-en istorioa azaltzeko. Emaztea galdu duen aktore japoniar bat, bi urte pasa ondoren, Hiroshimara joango da, Chejov-en *Osaba Vania* antzerki lana zuzentzera.

Antolatzaileek zuzendaria bizi den lekutik entsegura joateko txofer bat kontratatuko dute. Eguneroko bidaia luze horretan bien arteko laguntasun harremanak garatzen joango dira. Sendotzen doazen harreman horiek sentsibiltate osoz kontaturik daude. Pertsonaien bidaia fisikoarekin batera, beraiek egiten duten bidaia emozionala antzematen joango gara.

Honekin batera, *Osaba Vania* lanaren muntaia prozesua pausoz pauso jarraituko dugu: aktoreen aukeraketatik obra estreinatzen den arte. *Drive my car*-en, Chééoven testuko pertsonaiei eta filmeko pertsonaiei gertatzen zaiena elkartzen dira, artea eta bizitza bateratzeko, eta benetan ederra den filma sortzeko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Noam-en erreferentzia

Bailarako kooperatibak erreferentzia dira askorentzat mundu osoan. Mundu osoan? Ez, jarrera kritikoenak bailaran bertan dituztela esango nuke. Kontinente guztietako lagunak etortzen dira kooperatibak nola dabilen azalduz. Jakin nahi dute zergatik, nola, zein hobetzeko dituzten, etab. Bisitarekin, haietako askok beraieen lurraldea hobetu nahi dute. Izan ere, sistema inperfektua izan arren, aspalditik funtzionatzen du eta gizartearen ondorio positiboak ditu. Baina, gurean, gizarte justuagoa aldarrikatzen duten mugimenduentzat kooperatibismo erreala ez da erreferentzia.

Duela hilabete, Noam Chomsky elkarrizketatu zuten *El país* egunkarian. Galderetako batean, harira etorri gabe, honela erantzun zuen: "Begira Mondragon Kooperatibari, hori egon da 1950eko hamarkadatik, langileen jabetzako multzoa da eta, hein handi batean, haiek kudeatzen dute. Akatsak topa diezazkiokezu, baina, neurri handi batean, munduan oso ohikoa ez den puntu bateraino, arrakastatsua da".

Noam-ek izango ditu beste eredu batzuk ere, baina, arazoak arazo, planeta honetan bere erreferentzia nagusia hemengo kooperatibak dira.

GOIENA OKM GIDA

"Gatazka ohikoena bikote arazoak izaten dira"

EIDER UGALDE ALBERDI BITARTEKARIA

Neutraltasunari eutsi eta gatazka batean bi aldeen artean egotera ohituta dago bergararra. Oraindik lan "ezezaguna" da bitartekariarena, baina, dioenez, "beharrezkoa"

Jone Olabarria BERGARA

Ibilbide profesionala garatzen jarraitzeko, aproposa iruditu zitzaion Eider Ugalde Alberdi bergararrari bitartekari hastea. Banku erakunde batean duen lanarekin konbinatzen du bere jarduna. Dioenez, interes handia dago bitartekaritza sektorea garatzen jarraitzeko: "Ez da zerbait berria, baina ez dago profesionalizatuta, eta, alde horretatik, bultzada bat eman behar zaio".

Nolatan bitartekari? Ezagutzen ez duenarentzat, zehazki, zer da?

Labur azalduta, gatazka, arazo edo edozein gorabehera sortzen denean eta norberak ikusten duenean ezin duela bere kabuz bideratu, betiere, abokatuarenera jotzeko edo epaitegira joan barik, konponbide bat bilatzeko modua izan daiteke. Egia da oraindik ez dela oso ezaguna, baina apurka errotzen ari da. **Zein da, baina, abokatuarekin ezberdintasun nagusia?**

Bitartekariak ez dizu esango hau egin behar duzun edo bestea. Zuk zeuk erabaki bat hartzen eta gero erabaki hori aurrera ateratzen lagunduko dizu.

Banku sektorean duzun beste lan batekin konbinatzen duzu. Zer ika-



2016a ezker ari da Eider Ugalde bergararra bitartekari lanean. J.O.

Zenbat eta jende gehiago, okerrago

"Kudeatzen zailena, normalean, jende askoko gatazkak izaten dira. Bi lagun baino gehiago daudenean, dena aldrebestu egiten da, eta hirugarren pertsonak agertzen direnean egoerak konplikatu egiten dira, askoz okerragoa da. Batzuetan, laguntzen saiatzen direnek ere zaildu baino ez dute egiten. Denboran ere zenbat eta gehiago luzatu, orduan eta zailagoa da konponbidera iristea. Gatazkak estankatu egiten dira, eta orduan akabo!".

si zenuen lanbide honetan bukatzeko?

Humanitateak eta Enpresa ikasi nituen Mondragon Unibertsitatean. Hogeitaz beste lanpostu mota batzuetan ere aritu izan naiz, beti banku erakundeetan. 2016an formatu eta akreditazioak lortu ostean, bitartekari nabil lanean.

Nola eutsi neutraltasunari? Ez da beti erraza izango...

Ezinbestekoa da. Alde guztiek ikusi behar dute ez duzula inoren alde egiten. Ezin zara posizionatu. Ikusten baduzu inpartzialtasunari ezin diozula eutsi, hobe da kasua utzi eta beste lankideren bati pasatzea.

Eta zeintzuk dira gatazka ohikoenak? Amodio kontuak ala auzokide artekoak?

Bai, ohikoenak bikoteen arteko hausturak eta gorabeherak izaten dira. Auzokideekin ere egoten da saltsa. Neurri txikiagoan, enpresa familiarretan bigarren belaunalditik aurrera arazoak izaten dira seme-alaben artean. **Beti erdian egonda, zer da honek eman dizun onena? Eta okerrera?** Lagungarria izan zarela ikustea da niretzat onena; zuzenean edo zeharka izanda, zerbait positiboa atera dela zuk emandako laguntza horretatik. Okerrera, zalan-tza barik, ezin duzunean arazoa bideratu.

Bi lanbide dituzu dagoeneko. Beste zerbaitetan aritzekotan, zertan? Ez nuke aldatuko, humanitate eta enpresa arloan jarraituko nuke. Beharrezkoa iruditzen zait gizarterako.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ANTZUOLAKO 8 MILIAK

GOIENA TELEBISTAN, 'HARMAILATIK' SAIOAN
OTSAILAREN 21EAN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

